

GERNIKA-LUMO

2006 URTEA

*Bosgarren
Idazlan
Koadernoia*

5IK

DBH eta BATXILERGOA

GERNIKA-LUMO

**BOSGARREN
IDAZLAN
KOADERNOA**

2006

Argitaratzailea:

- Gernika-Lumoko Euskera Zerbitzua eta Hezkuntza Saila

Laguntzaileak:

- Barrutialde Institutua
- Gernika-Lumoko Institutua
- La Merced Ikastetxea
- San Fidel Ikastola
- Seber Altube Ikastola
- HHI Gernika-Lumo

Portadaren egilea:

- Aitzol Barainka (Batxilergoko 1. mailako ikaslea)

Babesleak:

- Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila (HPS)
- Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Saila (Euskera Zuzendaritza)

Maketa eta Inprimaketa:

- BEREKINTZA

2006ko edizioa

HITZAURREA

Gauzak martxan ipinten doguzanean, noizartekoak izango diran ezin ziurtatu. Ba, hona hemen gure herrian ezagun egiten jakun urteroko fruitu bat, IDAZLAN KOADERNOA, aurten BOSGARRENA; Gernika-Lumoko ikasle eta irakasleen ereinketa lanaren emoitza, ikasturte bakoitzean indarberrituta datorren landarea eta lora berriez jantzia.

Eskola munduan irakurzaletasuna eta idazmena sendotzea helburu izanik, esperimentziak dinosku guraso eta aittitte-amuma asko urreratu direla lehenengoz euskeraz irakurtzera, seme-alaben eta iloben sormena euren dastatu gurean.

Beraz, egitasmo honen eragina biderkatu egiten da, eskola ingurutik etxebarruetako sutondo gozoetara bidea egiten dau eta.

Urte askotarako izan daiguzala IDAZLAN KOADERNOAK, ikasle/idazle amorratuon eta irakasle/eragile guztion lan estimagarriari eskerrak.

Marina Abadia Arraibi
Hezkuntza Arloko Zinegotzia



AURKIBIDEA

“ALTXOR GALDUA”	Ioana Olea Urionabarrenetxea Asier Arias Lucio	(DBH 1. maila)	6
“ANE ETA SAIOAREN ABENTURA TXIKIA”	Arlene Aldana Arroyo	(DBH 1. maila)	9
“ERROTAKO GILTZA”	Ariane Izaguirre Kanalaetxebarria	(DBH 1. maila)	12
“MUNDUTIK BIDAIA”	Jon Ander Musatadi	(DBH 1. maila)	15
“IDUNeko MISTERIOTSUA”	Laura Celaya Aguirrezabal	(DBH 2. maila)	19
“HAURTZARO GOGORRA”	Amaia Oleaga Azketa	(DBH 2. maila)	22
“UDAKO KANPAMENDUA”	Ioritz Elorriaga Aiesta	(DBH 2. maila)	26
“IRATI ETA TXAKURRAK”	María Madariaga Arancua	(DBH 2. maila)	29
“ZER GERTATZEN ZAIT?”	Alejandra Guerendiain Soler	(DBH 2. maila)	33
“EGOITZEN ABENTURAK”	Janire Lamikiz Ramírez	(DBH 2. maila)	38
“IRAGANEKO ILUNA BIHARKO ARGÍ”	Garoa Caminos Ikazuriaga	(DBH 2. maila)	41
“ITXAROPENAREN ATZETIK”	Irati Martínez Aguirrezabala	(DBH 3. maila)	45
“NATURAK DUEN INDARRA”	Mikel Elordui Alonso del Moral	(DBH 3. maila)	48
“GIZONEZKOENTZAKO MUNDUA”	Garazi Olazar Natxiondo	(DBH 3. maila)	50

“HEGAZ”	Iera Uriona Pérez de Sanromán	(DBH 4. maila)	54
“NIRE LEHEN EGUNAK ESKOLAN”	Sara Gallego González	(DBH 4. maila)	58
“SUAK JAN BARIK”	Imanol Elgezabal Garmendia	(DBH 4. maila)	61
“MAITASUN ISTORIO BAT”	Alejandra Loizaga Aboitiz	(DBH 4. maila)	65
“ASKATASUN HAIZEAK”	Iomara Renteria Muniategi	(BT 1. maila)	69
“ITSASOAREN ESKUETAN”	Pello Bilbao de Armentia	(BT 1. maila)	72
“ABANERA ILUNETAN”	Andere Bidaburu Ondarza	(BT 2. maila)	77
“BIZITZA HOLAKOA DA”	Irati Goitiz Izagirre	(BT 2. maila)	80
“ESNATU ARTE”	Arantza Kareaga Díaz (1 ipuina)	(BT 2. maila)	84
“MALKOAK ZILEGI OTE?”	Amaia Quintana Ordorika (1 idazlana)	(BT 2. maila)	87
“AZALA”	Amaia Quintana Ordorika (2 idazlana)	(BT 2. maila)	90
“UDAZKENAREN ARGIPEAN”	Jon Iñaki Etxeandia Pradera	(BT 2. maila)	92
“SENTIPEN NAHASIAK”	Nerea Ozamiz Monasterio	(BT 2. maila)	104
“EUSKADIKO FAMILIA BATEN OHITURAK”	M ^{re} Paz Ondarza Elorriaga	(HHI-ko ikaslea)	107
“TXAPAPOTE IZENENKO ITSASONTZIA”	Aitor Gorriño Gandarias	(HHI-ko ikaslea)	111



Ioana Olea Urionabarrenetxea - DBH 1. maila

Asier Arias Lucio - DBH 1. maila

"Imajinazioarekin lan egitea gustatzen zaigu"

ALT XOR GALDUA

Orain dela 700 urte Karibean itsasontzi bat zebilen altxor bat ezkutatzeko lekuaren bila. Kapitainaren laguntzaileak prismatikoen bidez uharte bat aurkitu zuenean emozioa gorde ezinik oihu egin zuen:

–Uharteak ababorrean, 5 km-ra!

Eta kapitainak erantzun zion:

–Oso ondo laguntzaile. Abia gaitezen bertarantz!

Baina uhartera heltzeaz zeudenean beste itsasontzi bat agertu zen eta bertako kapitainak erasotzeko agindua eman zuen. Horretaz jabetzeaz, beste itsasontziko laguntzaileak kapitaina ohartarazi zuen eta azken honek ere erasotzeko agindua eman zuen. Bi orduz borrokatzen egon ondoren kanoiak kargatu, sua eman eta tiro egin zuten. Lapurren itsasontzia erdi erdian jo eta hondoratu egin zuten. Barruan zituen lapur guztiak animaliak bezala ito ziren.



Gure itsasontziak ez zuen izenik baina irabazle suertatu ondoren “Treasure” izena jarri zioten.

“Treasure” itsasontzia uhartera heldu zenean bertako piratek altxorra lapurtu eta kobazulo batean gorde zuten. Ingurua tranpaz josi zuten eta denak markatu zituzten mapa batean. Altxorra kobazuloaren amai amaieran lurperatu ondoren, itsasontzirantz zihoazelarik harea mugikorren eremuan sartu ziren eta bertan hil ziren guztiak irten ezinik. Altxorraren mapa, ordea, ez zen hondoratu; haizeak eraman zuen piraten itsasontzira. Bertan zaindari geratu zen pirata zaharrak hartu eta botila batean sartu zuen. Gero lotara sartu zen. Lo zegoen bitartean ekaitza hasi zen, itsasontzia hondoratu zen eta berarekin batera pirata zaharra; botilak ez zuen zorte berbera jarraitu. Itsasoan jarraitu zuen urteetan, nora ezean.

Egun batean, hondartzan jolasean zebiltzan bost neska-mutikok aurkitu zuten. Mapa ikusi zutenean, sekretuan eduki behar zutela pentsatu zuten. Aitor, Julen, Gaizka, Ane eta Mirian dira, ausartak eta kirolariak, 17 urte eta umezurtz aspalditik. Santa Kruz umezurtz-etxean bizi zirenez ezin ziren handik irten 18 urte bete arte eta horretarako bost hilabete itxaron beharko zituzten. Botilak ere bost hilabete ezkutuan iraun beharko zituen. Baina denbora aurrera eta uztaila heldu zen, neska-mutilak umezurtz-etxetik irten, mapa hartu eta hondartzara joan ziren etorkizunerako erabakiak hartzera. Azken

erabakia altxorraren bila joatea izan zen. Arazoa pausoz-pauso aztertu zuten: lehenda-bizi munduko mapa bat erosi zuten, gero koordinatuak erabiliz altxorraren kokalekua aurkitu zuten: Ratt uhartea.

Pozik zeuden. Hondartzan egin zuten lo. Esnatu bezain laster bainu bat hartu eta itsasoz irlara hurbiltzeko txartelak erosi zituzten. Aurrezturiko diru guztia amaitu zuten. Itsasontziak Ratt uhartearen alboko uhartean utzi zituen. Egur zatiez baliaturik uretan flotatzen zuen ohola eraiki zuten eta Rattera heldzea lortu zuten. Etxola bat altxatu eta lotara joan ziren, handik aurrera proba gogorrak igaro beharko zituztela baitzekiten.

Tranpak bilatzeari ekin zioten hasiera hasieratik. Lehenengoa aurkitu zutenean aktibatzea lortu zuten baina emaitza ez zen izan esperotakoa, Ane bete betean harrapatu baitzuen eta baita bertan betirako gelditu ere... Julen eta Mirianek negarrari eman zioten. Hoberena, bueltatu eta deskantsatzea izango zela pentsatu zuten eta hala egin zuten.

Hurrengo egunean altxorraren kobazulora itzuli ziren. Aneren gorpuak han jarraitzen zuen eta gogor egiten zen hura aurrean izanik ezer egitea. Hala ere, ezin zuten atzera egin eta kobazuloaren erdira heldu zirenean bigarren tranpa ikusi zuten aurrez aurre: kolore bitako harlauzak ziren, marroiak eta gorriak. Egokiak zapaldu behar ziren tranpak eztanda egin ez zezan. Beraz kolorea aukeratu behar zen. Mirianek lehenbizi harri batekin proba zitekeela pentsatu zuen. Hortaz, harria bota zuen harlauza marroia-
ren gainera eta ukitu zuen une berean tranpa aktibatu zen: eztandak katean eman ziren. Baina arriskua beste alde batetik agertu zen: Aitorrek azken harlauzan irrist egin zuen, erori eta jarraian intsektu erraldoi batek eraso egin zion. Hura izan zen bere azkena. Negarrak ez ziren gutxi izan baina aurrera egin zuten beste hirurek.

Kobazuloaren amaierara heldu zirenean ez ziren konturatu lurraren izaera bigunaz eta aurretik zihoanak, Gaizkak, ordaindu zuen: lurrak irentsi egin zuen. Orduan altxorra agertu zen, behean, sakonean. Julen eta Mirianek igo eta kobazulotik ateratzea lortu zuten. Etxera aberats bueltatu ziren. Ezkondu eta etxea erosi zuten. Hiru ume izan zituzten: Gaizka, Aitor eta Ane.



Arlene Aldana Arroyo - DBH 1. maila

"Bidaiaatzea eta lagunekin egotea gustoso dut"

ANE ETA SAIOAREN ABENTURA TXIKIA

Baziren behin, 12 urteko bi neskato. Neskato hauek, Saioa eta Ane ziren, txikitatik ezagututako lagunak, oso onak.

Anek, ile horia eta leuna zuen, begi urdinak, gorputz handia eta hanka eta beso luzeak. Izaeraz, ez zen gaiztoa, baina ezta formala ere. Bihurrikeria asko egiten zituen, oso lagun ona eta aldi berea eskuzabala zen. Saioa berriz beltzarana zen, oso ile beltza eta begi berdeak zituen. Honek ere besoak eta hankak luzeak zituen, baina gorputza pixka bat txikia. Saioa izaeraz, oso formala zen, Aneren kontrakoa, gustuetan ere ez ziren berdinak, baina neskata bi hauek, abentura zaleak ziren, honek konturazten zien bata-beste nola-koa zen.




Bizkaiko herri txiki batean bizi ziren. Bertan ez zegoen ez zinemarik, ezta ondo pasatzeko txokorik ere, eta larunbatero batera gelditzen zirenean, bata edo bestearen etxera joan eta hantxe igarotzen zuen zuten ia egunaren denbora guztia. Larunbatetan, gelditzen zirenean, lanak egin, hitz egin edo jolastu egiten zuten. Asko kostatzen zitzaien jolasa aukeratzea, horretan alferrik galtzen zuten denbora. Gainera, bata edo bestearen neba txikia egoten zen inguruan biak gogaitzen.

Behin, arratsalde batean gelditu eta ez zekitenez zer egin, Anek zerbait proposatu zuen: beste inguruko herri batera ihes egitea, gurasoak enteratu gabe. Saioa ez zen halako zerbait egiteko gauza, inoiz ez zioten utziko gurasoek edade horrekin beste inora joaten, baina Anek, bihurrikeria asko egin zituen ordurako eta berak ondo pasatzeko, edozer egingo zuela zioen. Saioak bere amari, oraingoan bere etxera joango zirela esan zion baina, asko tardatzen zutenez, honen amak, telefono mugikorraz deitu eta Aneren etxera joango zirela erantzun zion. Aneren amak, Saioaren etxean zirela pentsatzen zuen, eta Saioaren amak, Aneren etxean zirela, beraz, ez zegoen arazorik. Tren geltokira abiatu eta hantxe Busturirako trena hartu zuten.

Hamar minutu geroago, Busturira ailegatu eta lehenengoz zinemara joan ziren. Ondoren hondartzara joan, eta hantxe buelta bat eman ondoren parke bateko aulkietan jesarri eta hantxe gai guztietaz hitz egin zuten. Saioa pixka bat kezkatuta zegoen, baina Ane oso ondo pasatzen zegoenez, ez zen kezkatzen. Izozki-denda batera joan eta Anek txokolatezko izozki bat eta Saioak limoizko izozki bat erosi zuten. Ondoren, handik hurbil zegoen parke batera joan eta pixka bat jolastu zuten.

Nekatu zirenean, berriz aulkietan jesarri eta hitz egin zuten. Saioak kezkatu zen-bait galdera segidan egin zizkion Aneri, zergatik den horren bihurria, ea kezkatu zen zegoen, ea inoiz pentsatu duen pixka bat aldatzea... Anek, berriz, erantzun luzeekin erantzuten zion. Aneri ez zitzaion gustatzen gai haietaz hitz egitea, baina oraingoan oso ondo sentitzen zen bere bihotzeko lagunarekin hitz egiten. Saioa ere ez zen txarto pasatzen ari; gainera, asko gustatzen zitzaion hitz egitea, gehien bat norbaitek zuen kezka edo problemari buruz. Bera beti zegoen laguntzeko prest eta.

Arratsaldeko seiak ziren eta oraindik segitzen zuten hitz egiten. Saioaren belarriek, elefanteen belarriak ematen zuten, handi-tuko edo egingo zitzaizkion. Atentzio guztiekin entzuten zuen, Ane, berriz, inoiz baino sentiberago zegoen, bere akatsengandik libratzen, bihurria zela esango genuke, baina barne-barnean neskaxa difereente bat zegoen. Inoiz ez zitzaion horren sentibera ikusi, bere amak ikusiko balu, ez dela bera esango luke. Herriari pare bat buelta eman zien, eta bertako bi-hiru museo bisitatu ere bai. Ondoren taberna batera joan eta hantxe zuku bana hartu zuten.



Zortzietan tren geltokirantz abiatu ziren eta hantxe, aulki batzuetan eseri ziren tren zectorren bitartean. Baina halako batean Aneri beste ideia bat bururatu zitzaion. Oraingoz ez zutela ezer interesanterik pasatu eta sasoia dela zioen. Ideia hau beraien herrira oinez joatea zen. Saioak ez zuen nahi, galduko zirela pentsatzen baitzuen. Orduan, papere-tan izenak idatzi eta ondoren batek ateratako paperean jartzen zuenaren izenak, auke-ratuko zuen. Saioak atera zuen papera, baina desilusia ere bai. Aneren izenak irten zuen, eta honek, oinez joatea erabaki zuen. Herrirantz bidean zirela, zenbait gurutz bide zeharkatu zituzten, eta ez zekiten zein bidetatik joan, beraz jendeari galdetzen zien. Askotan inori galdetu gabe ere edozein bidetatik joaten ziren. Bidean zehar gauza asko gertatu zitzairen, hainbat gauzetatik bat, eguna iluntzea zen. Eguna ilundu zen eta Saioa pixka bat ikaraturik, Aneri ez ziola kasurik egin behar errepikatzen zuen, behin eta berriro. Aurrerantz zihoazela herrirako bidean, han lurrean mozolo bat aurkitu zuten. Hilda zegoen. Nolako sustoa hura, hartu zutena biek. Hura bai zen abentura bat, inoiz ez ahazteko abentura bat. Zortziek eta berrogeita bost ziren eta oraindik kilometro erdi ere ez zuten egin. Aurrerantzean Saioaren telefono mugikorrek jo zuen. Bere ama zen, Saioa oso urduri jarri eta eskegi egin zuen. Bidaia honetaz enteratuko zirela gurasoak pentsatzen hasia zen. Baina, zer egingo zioten enteratzen baziren? zigortu, haserretu... horrek kezkatzen zuen gehienbat Ane.

Herrira ailegatu zirenean, hamarrak eta laurdenak ziren oso berandu zen eta segur aski gurasoak kezkatuta eta haserretuta egongo ziren. Anek zerbait hartu behar zuen Saioaren etxetik eta lehendabizi Saioaren etxera joan ziren. Atea ireki eta bapatean zara-taka hasi zitzaizkien gurasoak. Non egon zarete?, eta hauek isil-isilik gelditu ziren ea nork erantzungo zuen. Saioak dena kontatu zien, beno, Anek ere pixka bat lagundu zion, baina, gezurrak ere esan zituen. Gurasoek zigor bezala, bi astetan etxean geldituko zirela ikasten esan zien, eta azterketetan nota txarrak ateratzen bazituzten, beste bi aste izango zirela. Ez telefono mugikorrik, ez jokorik alboan eduki gabe.



Ariane Izagirre Kanalaetxebarria - DBH 1. maila
“Euskal kantuak asko gustatzen zaizkit eta animaliak asko maite ditut”

ERROTAKO GILTZA

Gorbea mendian aitona-amonekin bizi zen Ainize izeneko neskatxa bat. Bere aitona-amonek errota handi bat zuten eta han aritzen ziren jo eta ke lanean. Ainizek zortzi urte zituen eta eskolara joaten zen. Bi lagun zituen: Enara eta Zaloea. Hirurak elkarrekin jolastean zuten beti.

Ainize, etxera heldu bezain laster, errotara joaten zen aitona-amonei laguntzera. Oso gustuko zuen errotan lan egitea, zuri-zuri eginda amaitzen baitzuen.

Domeka oro bere aitonarekin joaten zen plazara irina saltzera, eta lortutako diruarekin erosketak egiten zituzten.

Ainizek gauero amets oso arraroak izaten zituen errotari buruz: Errotaren barruan giltza bat zegoela eta giltza horrekin diru mordoa zegoen lekuko ate bat ireki ahal zela amesten zuen. Baina Ainizek ez zien kasu handirik egiten amets haiei.



Egun batean eskolatik zetorrela, bi gizon ikusi zituen errota ingurua miatzen. Errotara sartu zen eta aitona-amonei kontatu zien ikusitakoa. Hauek lasai egoteko esan zien, errotaren kanpoko aldea nola zegoen ikustera etorri zirela eta. Orduan kasurik egin gabe lanean hasi zen. Zeregina amaitu ondoren ohera joan zen.

Beti bezala, Ainizek gau hartan amets arraroak izan zituen: Errota ikustera etorri ziren bi gizonak barrura sartu eta bere ametsetako giltzaren bila zebiltzala. Esnatu zenean, jada, goiza zen. Gosaldu eta jantzi bezain laster eskolara joan zen beti bezala.



Eskolara iritsitakoan Enara eta Zaloari kontatu zien amestutakoa; baina hauek kasurik ez egiteko esan zioten, amets bat baino ez zela.

Arratsaldean errotara itzuli zenean, amonak utzitako mezu bat ikusi zuen. Hau zioen mezuak:

Kaixo laztana:

Aitona eta ni gure laguna Kontxi ikustera goaz. Ospitalean dago gaixoa belauna eta eskua hautsita. Baliteke gaur eta bihar ez etortzea. Ez arduratu eta ez egin errotako lanik.

Musu handi bat.

Amona.

Ainizek, gutuna irakurri ondoren, lagunengana joan zen jolastera. Arratsaldean etxera etorri zenean, aurreko eguneko bi gizonak ikusi zituen errota inguruan. Beldurtuta etxe barruan sartu zen eta kisketez zarratu zituen ate guztiak. Orduan Ainizek ametsi kasu egitea erabaki zuen eta giltzaren bila hasi zen.

Bazterrak ondo miatzen ibili ondoren, irin zaku baten beheko aldean zeloz lotuta giltza bat zegoela konturatu zen. Giltza hartu, ondo gorde eta ohera joan zen.

Hurrengo goizean eskolara ailegatu zenean, bere lagunei kontatu zien gertatutakoa. Arratsaldean Enara eta Zaloa berarekin joan ziren errotara, eta giltzaren sarraila aurkitzen hasi ziren. Bat-batean Enarak irin zakuen ostean aspaldian erabili gabe zegoen ate txiki bat aurkitu zuen. sarrailan sartu giltza, eta bai, atea ireki egin zen! Sartu zirenean ate hartatik, eta han zegoen diru pila ikusi, aho zabalik geratu ziren txunditurik. Hiru lagunek inori ezer ez esatea adostu zuten.

Hurrengo egunean eskolara joan baino arinago, hirurak elkartu ziren eta kontatzea erabaki zuten. Laster zabaldu zen berria herrian zehar, baita egunkari eta aldizkarietan.

Arratsaldean aitona-amonak etorri zirenean, diru mordoa ikustean pozez txoratzen jarri ziren.

Egunkarietan berri hura agertu zenetik, bi gizon haiek ez ziren gehiago errota ingurutik agertu. Orduan ulertu zuen Ainizek zergatik zebiltzan gizon haiek handik bueltaka.

Amonak diru hura larregi zela eurentzat eta ume behartsuei laguntzea erabaki zuten. Hala egin zuten: Zeukaten diruaren zati handi bat munduko ume behartsuei eman zien, eta gelditzen zenarekin beste errota bat eraiki zuten.



Jon Ander Musatadi - DBH 1. maila

"Igeri egitea eta bizikletan ibiltzea da gehien gustatzen zaidana"

MUNDUTIK BIDAIA

Julen, Ander, Andoni, Maite, Idoia eta ni aspertuta geunden beti etxe barruan Interneteko jokoeekin jolasten.


Behin, nahi gabe, Interneteko bidaietako orrialde batean sartu ginen. Bertan zoragarriko bidaiak egitea eskaintzen zuten. Maitek esan zuen orain dela 10 urte bere gurasoek barku bat eraikitzen hasi zirela, baina bertan behera utzi zutela banatu egin zirelako eta agian egunen batetan seme-alabek bukatuko zutela.

Bere gurasoei baimena eskatu eta berehala hasi ginen prestatzen behar genituen gauzak. Maiteren aita oso pozik jarri zen eta laguntzeko prest zegoen. Berak falta ziren egur guztiak ekarri zituen. Julen eta Andoni mantelak ekartzeaz arduratu ziren belak egiteko eta timoia ere ekarri zuten. Andoniren Aitona kapitaina izan baitzen eta timoi zahar bat zeukan etxeko ganbaran. Anjel eta ni aingura ekartzeaz ardura ginen. Portuko gizon batek aingura berri bat jarri nahi zionez bere itsasontziari, zaharra euro batengatik saldu zigun. Bere furgonetan ekarri zigun aingura eta gainera bera lotzeko soka ere eman zigun. Maitek eta Idoiak ere ohol batzuk lortu zituzten.

Planak egiten hasi ginen. Batzuk pentsatu genuen hemendik, Bermeotik hasiko ginela, gero Ingalaterrara, Ameriketara, Ozeaniara, bertatik Ásiara, Asiatik Afrikara eta Afrikatik bertora, Bermeora itzuliz. Ordea, beste batzuk hemendik Afrikara, bertatik Asiara, eta gero Amerikatik bertora. Azkenean zozketa baten bitartez erabaki genuen: lehenengo aukera irten zen. Maiteren aita esan zuen bera izango zela kapitaina.

Udako oporrak hartu genituenean, eskolatik zuzen etorri ginen itsasontzira. Han Maiteren aita beste gizon batzuekin zegoen. Haiek ere tripulaziokoak izango zirela esan zigun. Eurei esker itsasontzia pentsatuta geneukan baino askoz arinago bukatu genuen. Amaitu ondoren atoi handi baten bidez portura eraman genuen geure barkua. Aste bete pasatu arte ez ginen aterako itsasora, oraindik jakiak, edariak eta behar genuen guztia prestatu behar genuelako.

Etorri zen irteteko ordua. Egun zoragarria zegoen. Bristoleko norabidea hartu genuen eta haizea alde genuen lez, pentsatutakoa baino hiru egun arinago heldu ginen portura. Jende gutxi ikusten zen bertan. Merkantziak kargatu eta egun bat bertan igaro ondoren Terranovarantz abiatu ginen. Bidean haize bolada zakarrak jasan izan genituen; oso azkar gindoazen. Elurra ere mara-mara botatzen hasi zen. Hura zen hotza. Kubiertan kapitaina eta zaindaria zihoazen bakarrik; besteok barruan hotzetik babestuta.



Hurrengo goizean haizea ez geneukan alde; orduan gelditu izan behar genuen. Hiru ordu egon ginen bertan; bale bat ere ikusi genuen nahiko hurbil pasatzen.

Habitas-en gindoazen, Terranova hurbil geneukan. Iristear geundenean beste barku bat ikusi genuen. Hego-ekialderantz zihoazen. Gure herrietarantz ote zihoazen? Zarataka gure senideak agurtzeko esan genien, baina ez ziguten ulertu.

Terranovan zama utzi eta bagindoazen bederatzi eguneko bidaian. Ander pixka bat mareatuta zegoen. Bederatzi eguneko bidaia hogeikoan bihurtu zen.

Kubara gindoazen. Janari bereziak zituzten kubatarrek. Denak probatu nituen, baita gustatu ere, sugeak izan ezik, ematen zidaten nazka gehiegizkoa zen. Julenek haiek ere jan zituen, dena jaten zuen; horregatik zegoen hain lodikotea. Han egon ginen egunetan denok argaldu ginen, denok Julen izan ezik; bera han ere loditu egin zen. Izugarrizko beroa egiten zuen Kuban, ordea. Terranovako hotzetik Kubako bero handira pasatu ginen.

Batzuk pentsatu zuten Panamatik irtengo ginela Ozeaniarantz, baina kapitainak esan zuen marinel onak Suaren Lurraldetik pasatu behar duela.

Kubatik irten eta bagindoazen, asko kostata haizea kontrara baikenuen. Argentina-rantz gindoazen. Bidean tiburoiak ikusi genituen. Harrapatu ere egin genuen bate edo beste.

Benetan handia zen Argentina. Buenos Aireseko portuan gelditu ginen. Janariz eta edariz hornitu genuen barkua, Ozeaniara heltzeko denbora luze bat igaro beharko genuelako barkutik irten gabe. Hainbeste denbora generaman barkuan lo egiten, zein erabaki genuen ostatu hartzea bertan. Hura bai eroso!

Heldu zen garaia irteteko. Berriro hotzetara gindoazen. Han bai zegoela benetako hotza. Kapitainari eta zaindariari ere nolabait babestu genien euren tokia. Egun guzti hauetan tripulazioa barruan egon zen, baita gu ere. Egun batetan ez zegoela hain eguraldi txarra eta kanpora atera ginen; Hornos ondoan geunden jada. Hornos lurmuturrean harrizko aurpegi batzuk zeuden eta haiei begira joan ginen bertatik igaro ginen denbora guztian.

Ia Ozeanian geunden eta Polinesiako irlak ikusten ziren. Txalupa txikietan hurbiltzen zitzaigun bertako jendea ongi etorria ematera. Milaka irla zeuden; gu bitan gelditu ginen: Zelanda Berrian eta Australian.

Eta bidaia jarraitu genuen Indiaraino. Azkar gindoazen eskolako oporrak bukatzeaz zeudelako. Indiako jendea oso txiroa zen, baina euren ondasun eskasak guri emateko prest zeuden. Guk Jainkoari esker ez genituen behar.

Pentsatu genuen Itsaso Gorritik joango ginela eta gero Sizilia irlara. Itsaso Gorritik igarotzean bero handia egiten zuen. Oraindik sartzen geunden eta Maiteren aita esan zigun itsaso hori oso gazia zela eta bertan inor ez dela itotzen, gazitasun horrek goian mantentzen zaituelako, nahita nahiez. Egia da, gelditu eta sartu egin ginen konprobatzeko.

Suezeko Kanala zeharkatu genuenean, itsasontzi hondatuak zeuden.



Duela urte batzuk hemen gerra egon zen, toki hau oso garrantzitsua delako ekonomi aldetik begiratuta.

Mediterraneoan sartu ginen. Itsaso honetan azken hiru mila urteetan kultura oso garrantzitsuak garatu dira: fenizioak, grekoak, erromatarak... Sizilia irla, “Mafiaren habia” pentsatu nuen eta hotzikara bat nabaritu genuen.

Gure azken aurreko geldialdia Kadiz izan zen eta handik Bermeora. Etxean geunden jadanik. Kaian gure lagunak, familia... denak zeuden guri ongi etorria emateko prest.

A ze nolako egunak! Eta, orain, hemen nago nire etxean ametsezko bidaia honen laburpena egiten. Berriz nahiko nuke bidaia hori egin, edo agian beste bat.



Laura Celaya Aguirrezabal - DBH 1. maila

“Gehien gustatzen zaizkidan gauzak, saski-baloira jolastea eta margozea dira”

IDUNeko MISTERIOTSUA



Orain dela urte asko bazen bitxigile bat erregina-
ren zerbitzuan zegoena eta Herriko bitxigilerik hobe-
rena zen.

Egun batean erreginak, iduneko bat egitea eskatu
zion: “urrezkoa izan dadila eta diamante batekin
erdian”. Bitxigileak bere gelara joan zen. Dena anto-
latu zuen; baina diamantea falta zitzaion. Saltzailea-
rengana joan zen, diamante berde bat eskatu zion
baina ez zuen hurrengo hilabete arte edukiko.

Ez zuen aukerarik, sorgin batengana joan behar
zen. Sorgin hori mendi bateko haitzulo baten bizi zen.
Sartzerakoan sorginak ikaragarritzko ikara eman zion. Ileak nahastuak zeuzkan, sudu-
rean garatxo bat zuen eta arropa zulatuak zeuzkan.

Bitxigileak diamantea berde bat eskatu zion diruaren truke. Sorginak eman baina buruargia izan zen eta idunekoa sorgindu zuen.

Bitxigileak idunekoa diamantea kokatu eta erreginari eman zion. Erregina harriturik geratu zen hain ederra zen eta.

Idunekoa distiraka hasi zen, bat-batean erregina gaixorik jarri zen eta bitxigilea kartzela joan zen. Gaizo hori erreinu guztian zabaldu zen eta zientzialariek ez zuten jakin nola sendatu. Idunekoa mendi batean gorde zuten erreinutik urrun.



Urteak igaro ziren, 2005.urtean gaude.

Ikastola batean bazeuden bi mutil oso lagun onak zirenak: Kepa eta Ander ziren.

Arratsalde batean eskolarekin ibilaldi bat egin zuten mendira.

Heldu eta korrika bizian basorantz aldendu ziren Kepa eta Ander. Andereñoa ez zen ohartu, ume gehiegi baitzegoen.

Ordu erdi geroxeago ilundu egin zuen, Anderrek bat-batean hanka zulo batean sartu zuen. Kepak linterna piztu et hanka ateratzen lagundu zion. Hanka ateratzerakoan iduneko bat zegoen. Hitzik gabe gelditu ziren. Kepak bere motxilan gorde zuen eta taldearengana joan ziren

Andereñoak haserre, zertan zebiltzan esan zien. Pentsakor jarri ziren eta perretxi-koak biltzera joan zirela esan zioten.

Hurrengo goizean Kepa eta Ander, Anderren aitonarengana joan ziren. Heldu eta aitonari begien aurrean idunekoa atera zioten, aitonak segituan motxilan gorde zuen eta kortinak itxi zituen. Kepa eta Ander harritu eta zergatik egiten zuen hori galdetu zioten. Aitonak kondaira bat kontatzen hasi zen:

«Txikia nintzenean erreinutik urrun bizi nintzen nire aita eta amarekin. Pobreak ginen, herrira joaten nintzen neguan ikatza saltzera.

Erreginaren urtebetetzea zen eta betiko moduan bitxi bat eskatu zuen. Bitxigileari jarraitu nion, nik ere jakin nahi nuen non aurkitzen zituen diamanteak, pobreak ez iza-teko.

Erreinutik urrundu egin zen mendi baterantz, han haitzulo bat zegoen. Bitxigilea amona zahar batekin hizketan ikusi nuen. Joan egin zen, baina bete betean harrapatu nuen tratua egiten.

Bitxigilea joan eta sorgina hizketan ikusi nuen nor edo norekin. Esan zuen: “Horrek ez daki zer pasatuko den, jendea gaixotu eta hil egingo da. Eguzkia gorroto du, distiraka hasten denean sorginkeria hasiko da. Ja, Ja, Ja... Erreinu guztia desagertu egingo da”.

Jendeari esan nahi nion baina ez zidan inork kasurik egiten, ume pobre bat baino ez nintzelako.

Eta Erreinua desagertu egin zen.»

Aitonak diamantea apurtu eta izozturik utzi zuen.

Aitonak, inori ez esateko eskatu zien, euren arteko sekretua izango zen.





Amaia Oleaga Azketa - DBH 2. maila

“Gazteoi gure garaia iritsi zaigu euskararen alde lan egiteko”

HAURTZARO GOGORRA

Araitzen istorioa duela 70 urte inguru kokatzen da, 1936. urtean. Bai. Ezaguna al zaizue data hau? Gerra Zibila, hainbat etxe, hiri, famili... suntsitu zituen garai horixe bera.

Araitz neskato bat baino ez zen orduan. Sei urte besterik ez zituen, baina garai latz haiek bizitzea tokatu zitzaion. Sei neba-arreba ziren eta bera gazteena. Bost neba-arrebekin, ama, aita eta amonarekin bizi zen. Orduan hasi zen bere istorioa, eta berak honela kontatzen du:

Igande bat zen, beste guztiak bezela. Eta noski, igandea zenez mezetara joan behar, izan ere nire garaietan igandez mezetara ez joatea bekatua zen, eta horrela gertatuz gero hurrengo egunean abadearengana joan behar ginen konfesatzera, noski konfesatu ondoren zigorra bete behar, hamabi “Agur Maria” abestea ortua jorratzen zenuen bitartean. Hori bai lana! Gainera ezin zen edonola jeitsi mezetara. Arroparik dezenteenekin eta ondo dutxatuta joan behar izaten zen. Arropa dexenteenak ez ziren beste munduko gau-

zarik, baina behintzat zulorik gabeak. Dutxa ere! Galdara batean sartzen ginen, banan-banan, eta amak ura botatzen zigun artean amonak txinbo xaboiaz igurzten gintuen.

Dotore, denok jaisten ginen auzoko elizara. Aita txokoan gelditzen zen (gizonekin) eta ama, amona eta gu elizara sartzen ginen. Egun horretan Kontxi herrian zegoen, Kontxi izatez herrikoa zen baina Gasteizera ezkondua, beraz, txutxumutzu guztiak ekartzen zituen. Belarria sartu nuen:

–Aizue ba al dakizue... –Kontxik.

–Zer, zer da ba oraingoan? –Margarik.

–Gerraren bat edo tirabiraren bat omen dator eta nahiko gogorra! –Kontxik.

–Horiek Gasteiztarron kontuak izango dira neska! –Gure amak.

–Bai... baina horiek ez dira txantxetako kontuak gero!

–Benetan...

Lehenago esanez gero, hara! Esan eta hilabete gutxitara etorri zen tiro-festa fama-tua. Euskal herrian ez zen kalte handirik egon oraindik... gurera bikote dotore bat etorri zenean. Benetan dotoreak! Gizonak txapel dotore bat zuen (eta ez aitarena bezelakoa) eta hanketakoak ez ziren abarkak, sekulako distira zuten. Emakumea ere ez zihoan edonola, haren zapatak ere dotoreak oso, altuak gainera (gerora konturatu nintzen takoiak zirela).

Gurasoekin hitz egin zuten, ordu osoa eman zuten hizketan. Ni atera hurbildu nintzen susmoak jota. Baina ez zuen ezertarako balio, ez bainuen tutik ulertu. Hizkuntza euskara zirudien baina oso arraroa zen “r” ahoskatu beharrean “eje” ahoskatzen zuten.

Joan zirenean amak sukaldera deitu zidan, jeitsi nintzenean han zeuden ama, aita eta amona mahai inguruan eserita, aurpegi serioekin. Amak azaldu zidan dena:

–Begira ume: lehengo bikotea zure osaba-izebak ziren, bai... Frantziakoak. Beno ba, ikusi duzu zenbat mugimendu dabilen inguruetan, hori gerra datorrelako edo gerran gaudelako da eta hori oso arriskutsua da. Sei urte besterik ez dituzu eta... pentsatu dugu babesteko hobe izango dela zure ahaideekin joatea.

–Baina ez ditut ezagutzen eta... –beldur nintzen.

–Ez da ezer gertatuko ume, gainera jende ona da eta aberatsa.

Nire iritzia kontuan hartu gabe eramán ninduten hurrengo egunean. Susmoa nuen, izan ere goiz iratzarri ninduten, eta txukun-txukun jarri.

Agurra oso tristea izan zen. Neba-arrebak ilaran jarriak zeuden pare bat musu emateko, aita ere inoiz eman ez zizkidan musuak eman zizkidan eta ama eta amonak zer esanik ez! Haiek musuak, besarkadak eta malkoak.

Agur hori gehiago luzatu nahirik gabe eramango ninduen gurdian sartu nintzen. Eta sartu orduko loak hartu ninduen, izan ere goiz gogorra izan nuen. Konturatu orduko

osabak golpe bat eman zidan sorbaldan iritzi ginela adierazteko. Jeitsi eta dena zen hain itsusia, etxeak eta etxeak baino ez zeuden, bata bestearen gainean. Baina etxera sartzean iritziz aldatu nuen, hura etxe puska!

Nire gela erakutsi eta egongelara jeisteko agindu zidaten. Behin han aurkezpenak egin genituen, osaba Pierre deitzen zen eta izeba Marie. Izen haiek entzutean barrez hasi nintzen, baina hobe nuen isildu banintz! Hura sermoia jausi zitzaidana!

–Eta orain zer egingo dugu ba, izeba? –galdetu nuen osaba-izebak gehiago ezagutzeko asmoz– Kalera irtengo al gara?

–Nola! Zuk zer uste duzu ba neskato? –a zer nolako umore petrala zuen– Eta guri ez deitu osaba-izebak, jaun-andreak baino.

Osaba andrea lasaitzen saiatu zen eta nirekin hizketan hasi zen baina ez zuen asko iraun:

–Berriz esan behar al dizut! –osabarekin ere haserretu zen andrea– Umeari ez egiteko horrenbeste jaramon, ahaztu zure iloba dela, gure zerbitzaria baino ez da, aitul!

–Baina... –ausartu zen

–Isildu zaitez! –andreak

Berehala konturatu nintzen nire osaba gizon ona zela, baina bere andrea... gaiztoa oso.

Ongi adierazi zidan andreak zein zen nire lekua etxe hartan: beraien zerbitzari izateko ekarri ninduen. Gau eta egun beraien esanetan egon behar nintzen, hobeto esanda, andreak esanetan. Eta denborarik galdu gabe hasi nintzen afaria prestatzen.

Hasieran ez neukan lan askorik baina asteen buruan lana baino ez zidan jartzen andre hark, baserrian bost emakumeok egiten genuen lana etxe hartan nik bakarrik. Osaba saiatzen zen laguntzen baina gauzak okertu besterik ez zuen egiten, baldar hutsa zen!

Txotoraino nengoen etxe hartaz eta andreaz. Baina hala ere lagun bat aurkitu nuen, osaba. Oso harreman ona geneukan. Baina gure hizketaldiak izeba etxean ez zegoela ziren, bere arratsaldeko kafetxoa aprobetxatzen genuen.

Osabak haurtzaroko kontuez hitz egiten zidan:

–Ba al dakizu gure aita zer egiten zuen maisuak belarria berotzen zigunean? Etxera heldu eta belarriaren koloreaz jabetzean PLAST! Beste bat ematen zigun “zer egin duzu oraingoan?” Galdetuz.

–Bai, hori gure aita zer egiten du. Gero gure anaiak ortzadarraren koloreko belarriekin ibiltzen dira! –gehitu nion eta barre egin genuen.

Konturatu orduko ia bederatzi urte bete nituen.

Egun hartan andrea kanpoan zegoen eta osaba pozik hurbildu zitzaidan, gerra bukatu zela adierazi zidan. Baina albiste onen atzean txarrak omen datoz, eta hala izan zen, izebak ez zidan etxera bueltatzen uzten. Negarrez hasi nintzen. Osabak zergatik galdetu zidan eta nik ezin besterik esan: aspertuta nengoela, nekatuta! Eta zera bururatu zitzaidan:

–Etxe honetaz biok gaude aspertuta, utzi dezagun bada! Goazen gurera, han lekua soberan dago zuretzako ere!

–Eta izeba –berak.

–Ezer esan gabe, konpondu dadila!

Ez zegoen oso ziur baina hurrengo egunean korrika etorri zitzaidan:

–Goazen! Gaur bertan gainera!

Plan bat egin genuen. Hamaiketarako andrea lo seko egoten zen eta orduan alde egingo genuen. Gurdi prest izango genuen.

Gaua heldu zen eta plana martxan jarri genuen. Izebari gutun bat idatzi genion, gutuna baino telegrama zirudien:

–Aspertu gara zutaz, bagoaz, egin nahi duzuna gu gabe! –zioen.

Etxera heltzean goiza zen. Ama eta amona uretan ziren, aita behiak atontzen eta neba-arrebak ohean oraindik. Ama izan zen gu ezagutzen lehena. Galdarakada ura lurrera bota eta niregana hurbildu zen, begiak malkoz bustirik eta galdezka hasi zitzaigun. Istorio osoa azaldu genion. Aita asko poztu zen anaia etxean gelditzen zela jakitean eta bostekoa eman zion, amona zer esanik ez bere semea berriz etxean izatean eta anai-arrebak asko poztu ziren ezagutzen ez zuten osaba ikustean. Osaba ere asko poztu zen arropa zaharrak jantzi eta bere burua denboran atzera botatzean.

Izeba delako hark ez dakit zer egingo zuen baina niri egia esan, bost axola! Ahalik eta urrunago hobe!

Gerrak bere aztarnak utzi zituen etxeko hormetan baina hori konpondu zen.

Iragana ahaztu eta oraina bizitzeko garaia zen!



Ioritz Elorriaga Aiesta - DBH 2. maila

“Abenturazalea naiz”

UDAKO KANPAMENDUA

Ingalaterrako herri txiki bateko familien artean bazen bat oso apal eta langilea zena. Richesterreko familia honek Joe izeneko seme bakarra zuen, bere aitona sarritan esaten zutenenez “baratzuria baino finagoa” zena, etxeari ospea eta izen ona ekarriko ziona.

Urte hartako udan Joeri kanpamendu batera joan behar zuela bururatu zitzaion eta zuhur ibiltzen jaioa zenez, oso merkea zen bat lortzea ez zitzaion larregirik kostatu. Egun gutxiaren buruan Euskadiko mendi arteko herritxo batean zegoen, mendiz inguratutako animalien babesleku zoragarri horietako batean. Bidaia ordaindu behar izan bazuen ere ez zen hainbestearainokoa izan, aurretiaz urtean zehar poliki-poliki aurrezturikoarekin nahikoa izan baitzuen. Gainera gurasoak ere konforme zeuden kanpamenduaren ideia horrekin. Beraz, hurrengo egunean izena eman eta mailetak egiten hasi zen uztailaren 1erako den dena prest izan zezan.

Eta eguna heldu zen, Euskadirantz abiatzeko eguna. Gurasoak agurtu, aireportura heldu eta hegazkina hartu, dena izan zen bat. Bost ordu eman zituen hegazkin barruan,



aulkiari lotuta haurtxoa bailitzan. Hegazkineko asko eta asko izango zituen lagun handiak handik gutxira baina hori berak ez zekien. Azkenean heldu ziren Bilboko aireportura eta bertan zituen zain begiraleak gazte talde handi batekin. Aireportuetan dabiltzan autobustxo horietako bat hartu, kide berriak ezagutu eta lanaren antolaketari ekin genion lehen egun berberetik. Ordutik aurrera, nork esnatu, nork garbitu, nork gosaria, bazkaria eta afaria prestatu, nork jokoak aukeratu, oheratzerakoan nork argiak itzali eta abar eta abar galdetu beharrik ez zen egongo. Zailena, herrikoekin harremanetan jartzeko zein hizkuntza erabili jakitea izango zen, ingelesez egitera ohituak baitzeuden eta zuten gaztelania-maila eskolan lortutakoa besterik ez baitzen. Gainera herritarren ama-hizkuntza euskara izanik gehienetan harremanak hizkuntza horretan ematen ziren.

Lotara joateko ordua heldu zen. Bakoitzak bere ohea aukeratua zuen jada baina mailetak desegin gabe. Afari on bat prestatua zuten. Musika-saiorako zein diskotekarako sarrerak ere banatu zizkieten lehenengo egunetik integratuak senti zitezten. Beraz, “non burua han zangoa “esaten den moduan, hauek ere, zangoa, besoa, gerria, begiak... dena jarri zuten prest gau aro zoragarri hartarako. Joek ez zuen aspalditik haren pareko gauek bizi; dantzan eta jolasean eman zituen orduak, gelditu ezinik, nekatu ezinik, nahikotu ezinik, eta beti solasean, hizketan, barrezka. Lagunak lagun egin zituen gau hartan. Loguretu zenean, oheranzko bidea hartu zuen lagun guztiak agurtu ondoren. Jaiki, prestatu eta tailerren saioa hasi zuen. Goiz osoa eman zuen hartan. Gero, bazkaldu eta

atseden denbora bat eman zioten besteei bezala. Tarte horretan Joek eta beste neska-mutil batzuk inguruko basoan barneratu ziren. Ibili eta ibili etxe batekin egin zuten topo. Hasieran abandonaturik zegoela pentsatu zuten. Hurbildu ziren eta ate parera heldu zirenean gizon bat agertu zitzaien, zoro itxurakoa. Ikaratu eta ihesari eman zioten. Kanpamendura heldu arte ez ziren gelditu baina ez zioten inori ezer kontatu. Basoko gizon misteriotsu hark jakinmina piztu zien eta hurrengo egunean gehiago ikertzera joango zirela erabaki zuten. Plan sekretua antolatuko zuten kanpamenduan.

Hurrengo goizean goizetik jaiki ziren euren plana martxan jartzeko. Tailerrak bukatu bezain laster basoan sartu eta gizaki misteriotsuaren etxerantz abiatu ziren. Ailegatu bezain pronto gitarra soinuaren antzeko zerbait entzuten zutela eta, leihorantz begiratu zuten. Huraxe zen! Gizon hark gitarra elektrikoa jotzen zuen! Atean jartzen zuenez, Elias deitzen zen eta ez zen zoroa, naturarekin harreman zuzenean bizitzera ohitutako gizakia baizik; eskolatua eta hirian lan egiten ibilitakoa baina nazkaturik aparteko bide batetik jarraitu nahi zuena. Umeak inguruan somatu zituenean, jotzeari utzi, kanpora irten eta ustekabeen harrapatu zituen. Galderaz josi zituen, nontzerberri kuxkuxero iza-teko ohitura horren nondik norakoak jakin nahirik.

Umeak zintzoak izan ziren erantzuna ematerakoan. Ero itxura zuenez eta bere bizitzeko modua arraro samarra zenez, gazte- espedizio bat ondo merezia zuela erabaki zutelako zirela bertan esan zioten. Eliasek bakeak egin eta meriendatzera gonbidatu zituen. Kanpamenduko beste lagun berri bat balitz bezala tratatu zuten opor labur horietan eta bueltatzeko eguna iritsi zenean, desagertu egin zen inori agurrik esan gabe. Hala ere inor ez zen bere bila joan, libre jaiotakoari libre utzi behar zaiola uste baitzuten.



María Madariaga Arancua - DBH 2. maila

"Niri idaztea asko gustatzen zait baita kirola egitea ere.

Handitan idazlea izatea gustatuko litzaidake baita kirolaria ere."

IRATI ETA TXAKURRAK

Duela urte batzuk, Gipuzkoako herri batean, Beasainen konkretuki, Irati izeneko neska bat bizi zen: Bera ez zen bertakoa, Donostiakoa zen, Beasainera etorri zen ikas-tera. Irati bakarrik bizi zen, solairu baxuko pisu batean. Beno, ez zen bakar-bakarrik ere bizi, bere 2 txakurrekin baizik.

Iratik 22 urte zituen, neska oso jatorra, alaia, barregarria eta batez ere bihotz onekoa zen, denei laguntzeko prest zegoen. Ez zitzaion gezurrik esatea gustatzen, baina noizbehinka, baten bat esaten zuen. Begi marroiak zituen, ilea ez zuen ez beltza ez gorria, gaztaina kolorekoa baino, eta ezpainak ere oso politak zituen. Altuera normala zuen, bere adinerako. Kirola egitea asko gustatzen zitzaion eta noizean behin gimnasia joaten zen lagun batzuekin. Berari benetan egitea gustatzen zitzaiona marraztea zen eta hori egiten zuen bere ordu libreetan. Horretaz aparte lehen esan dizuedan eran, unibertsitatean abokatu izateko ikasten ari zen. Bere aita bezalakoa izan nahi zuen, hori zen bere ametsa eta baita margolaria izatea ere. Iratik mutil lagun bat ere zuen, Jon izenekoa. Hura ere mutil jatorra, alaia eta oso barregarria. Mutilak kirola egiten zuen,

futbol talde bateko atezaina zen, Irati askotan joaten zen bere partiduak ikustera eta bitartean txakurrak ateratzen zituen paseatzera.

Honen txakurrak arraza berdinekoak ziren, “Setterrak”. Iratik oso maite zituen. Bat emea zen eta bestea arra. Emea Argi deitzen zen eta arra osteria, Mendi. Hauek biak oso ondo konpontzen ziren batera eta ez ziren ia inoiz haserretzen, baina batzuetan bai. Argik urte bat zuen eta Mendik bi, Argi zuria zen, orban beltz batzuk zituen, gutxi baina bai eta belarri bat marroi gorrizka kolorekoa. Mendi oso zuria zen baina bazituen beste bat edo bi orban. Txakur biek egongelan egiten zuten lo, batzuetan Iratiren logelan, ohearen gainean ere lo geratzen ziren. Beraien gauzak kaka, txixa eta horrelakoak egiteko komunean zuten zerra hutsarekin jarritako kaxa bat, normalean Iratik kalera ateratzen zituen eta han egiten zituzten beraien beharrak baina hala ere, hura zuen jarrita.

Irati goiz guztietan joaten zen unibertsitatera ez baitzuen klase bat ere galdu nahi eta. Oso ona zen ikasten eta azterketa guztiak aprobatzen zituen, hori bai, gogor saiatzen zen ikasten. Bere gurasoak oso pozik eta harro zeuden berataz, eta Iratiri asko gustatzen zitzaion. Bere mutil lagunak ere futboleko jolasteaz aparte, ikasi egiten zuten, ingeniari-tza ikasi nahi zuten. Hau ere nahiko ona zen ikasketetan baina ez Irati beste, honi pixka bat gehiago kostatzen zitzaion ikastea. Esan dudan moduan futboleko jolas-tzen zuten, atezaina zen eta oso ona gainera. Beti jolasten zuten titular.

Irati eta Jone asteburuetan lagunekin batera irteten ziren eta gauera arte ez ziren etxera joaten. Txakurrak etxean utzita joaten ziren jaten eman eta gero. Hauek etxean oso formal ibiltzen ziren eta ez zuten zaratarik egiten eta ez zuten ezer apurtzen, jolas-tzen ez bazeuden noski. Iratik, badaezpada ere, balkoiko atea itxi egiten zuten txakurrak bertatik ez irtetzeko. Atea zabalik utziko bazuten txakurrek laster asko eta erraz salto egingo zuten, altuera oso gutxi zegoelako.

Arratsalde batetan, larunbat arratsalde bat edo izango zen, Iratik ahaztuta, balkoiko atea zabalik utzi zuen. Jon bere bila etorri zenean, joan egin ziren segituan. Txakurrak balkoiko atea zabalik zegoela konturatu zirenean, birritan pentsatu gabe, jauzi egin zuten, lehenengo batek eta gero besteak. Kanean agertu eta parke alderantz abiatu ziren Irati eta Jon konturatu gabe. Iratik telefono mugikorra etxean ahaztu zuela esan zion Joni eta honek etxera lagundu zion haren bila. Etxera sartu zirenean, Iratik ez zuen ikusi txakurrik eta gainera atea ireki zuenean ez ziren beregana etorri beti egiten zuten bezala. Oso arraroa iruditu zitzaion eta txakurrei deika hasi zen. Ikusi zuenean ez zela inor etortzen eta ez zuela inork zaunka egiten, haien bila hasi zen, eta berarekin Jon ere. Lagunei deitu zien esanez ez zirela irtengo, txakurrak desagertu baitziren. Hauek laguntzarik behar bazuten deitzeko esan zien eta horrela egingo zutela behar bazuten esan zien Jonek eta Iratik. Etxean ez ziren inondik inora ageri eta kalera irten ziren ea han aurkitzen zituzten. Hiruzpalau ordu pasatu ziren, zerua ilundu egin zen eta ez zegoen Iratiren txakurren arrasto txiki eta miniorik ere. Irati oso urduri jartzen hasi zen eta baita negarrez ere. Jonek laister agertuko zirela aritu zen denbora luzean bera kontsolatu nahian baina ezer ez. Iratik oso urduri eta negarrez jarraitzen zuten. Oso berandu egin zen eta biak etxera itzuli ziren bertan zeuden ikusteko ala ez. Txakurrak ez ziren

itzuli eta Irati ohera joan zen. Jon egongelan geratu zen lo egiten, balkoiko atea zabalik utzi zuten itzultzen baziren handik sartzeko.

Txakurrak kalean zebiltzan oraindik, inora joateko prisarik gabe, Iratiz ahaztuta. Irati bezalako neska bat ikusi zuten kalean txakur batzuekin eta orduantxe ohartu ziren Iratiz eta etxera itzuli nahi zuten. Baina dena oso ilun zegoen, hotz egiten zuen eta gainera euria egiten zuen. Ez ziren ondo zentratzen, hots, oso galduta zeuden. Asko ibili ondoren, hori bai noraezean, oso kantsatuta zeuden eta alderdi batean, biak elkarren ondoan etzan ziren beroa edukitzeko. Handik denbora apur batera, emakume bat joan zen etxerantz eta txakurrak aurkitu zituen. Hotzak hilik zeudela ikusi zuenean, izartu egin zituen eta bere etxera eraman zituen bero mantentzeko. Etxera iritsi zirenean, emakume hark, toaila batez, ilea zikatu zien txakurrei eta ondoren suaren ondoan jarri zituen berotzeko. Emakumeak, eguerdian jan gabe utzi zituen okel puskak eta berotutako esnea eman zizkien bie. Txakurrek oso pozik jan eta edan zituzten emakumeak emandako jakiak. Hauek bertan geratu ziren lo egiten. Emakumeak, Naiara zuen izena, bazekien txakurrak norbaitenak zirela, koilar bana zutelako, baina ez zekien norenak ziren.

Hurrengo egunean, Irati jaiki zenean ez zuen txakurrik ikusi eta oso triste jarraitzen zuen. Jonek itzuliko zirela esaten zion baina Iratik ez zuen hark esaten ziona sinisten.

Buruari hainbat eta hainbat bira eman ondoren zera bururatu zitzaioan, txakurren argazkiak ordenagailuan inprimatzea, galdu egin direla idatzi eta deskribapena jarrita, kartelak egitea. Norbaitek ikusi bazituen edo hartu bazituen bere etxeko zenbakia eta mugikorrekoa jarri zituen.

Joni kontatu zion ideia eta ondo iruditzen zitzaiola erantzun zion. Kartel bat egin zuten eta fotokopiak egiteko dendara eraman zuten. Bertan hainbat fotokopia atera zituzten eta dendan bat jarri zuten. Kartelak honela zioen:

BI TXAKUR GALDU DIRA, SETTER ARRAZAKOAK. BAT, EMEA DA ERA BETEA ARRA (gero argazkia eta deskribapena jarri zituen). NORBAITEK IKUSTEN BADITU EDO HARTU BADITU DEITU ZENBAKI HAUETARA MESEDEZ. 946588710 / 697412300 / 625479001.

MILA ESKER.

Kartel hauek herri guztitik jarri zituzten eta hori egiteko lagunei deitu zieten.

Kartel guztiak jarri ondoren itxarotea baino ez zitzaien geratzen. Hori oso luzea izango zela uste zuten denek.

Txakurrak emakume haren etxean bizitzen egon ziren denbora luze. Emakumeak kalera irteten zenean ez zuen kartelik ikusten ez baizen Beasaingoa, ondoko auzo batekoa baizik.

Hiruzpalau aste pasatu ziren eta txakurrak ez ziren etxe hartatik mugitu ere egin eta Iratiren etxean txakurrik agertu ere. Iratiren itxaropen eta ahalegin guztiak haizea hartera joan ziren. Ez zirela itzuliko pentsatu zuen.

Egun batean, emakume hura herrira etorri zen jateko zerbeit errotera, orduantxe ikusi zituen Iratik eta bere lagunak jarritako kartela. Bertan idatzita zeuden telefonoak idatzi zituen orri batean.

Etxera iritsi zenean, txakurren ondoan eseri zen eta pentsatzen aritu zen denbora apur batean. Ez zuen bakarrik geratu nahi, baina baita ulertzen zuen neska, Irati oso txarto pasatzen arituko zela. Orduan erabaki bat hartu zuen, beraren ustez erabaki ona hartu zuela pentsatu zuen.

Iratik etxean oso urduri jarraitzen zuen. Baina halako batean telefonoak jo eta ziztu bizian joan zen haren bila, baina bere lagun bat baino ez zen izan ea txakurrak agertu ote ziren galdezka, Iratik ezetz esan zion eta telefonoa berriz bere lekuan utzi zuen. Geroago berriz jo zuen, hartu eta emakume hura izan zen. Gertatu zen guztia kontatu zion Iratiri eta hau oso pozik jarri zen. Non bizi zen galdetu zion Iratik, hark kalea, etxearen zenbakia eta abar eman zizkion.

Iratik Joni kontatu zion guztia eta autoa hartuta, Beasainetik joan ziren emakumearen etxera. Emakumea bertan zegoen zain ea noiz iritsiko ziren. Azkenean iritsi ziren eta Irati oso pozik jarri zen bere txakurrak ikustean, emakume hura berriz ez. Emakumeak ez zuen bakarrik geratu nahi baina Iratik eta Jonen txakurrak etxera eraman behar zituzten. Iratik emakumea oso triste eta goibel ikusi zuenez zera proposatu zion, nahi zenean etor zitekeela Beasainera txakurrak ikustera eta gero paseatzera irten ahalko zirela edo bera joango zela haren etxera txakurrak eramatera. Emakumeari primeran irudituta zitaion eta hortaz horretan geratu ziren.

Irati eta Jon etxera bueltatu ziren oso pozik eta alai. Ordutik aurrera askoz ere hobeto zaindu zituen Argi eta Mendi.

Urte batzuk pasa ondoren Irati eta Jon ezkondu egin ziren eta ume bat eduki zuten, Argik eta Mendik ordea, BEDERATZI.

Irati abokatua izatera iritsi zen eta Jon injenierua. Denak oso pozik eta alai bizi ziren, eta noizbehinka emakumearen bisita izaten zuten.

“Lagunak edukitzea da gauzarik ederrena”

ZER GERTATZEN ZAIT?

Nire pentsamenduak jira biraka zeuden nire burmuinean irudi azaldu ezinak islatuz. Irudi hartako batean objektu txiki bat zegoen irla batean kokatuta, eguzkiaren argia gogor jotzen zuen eta ezin nuen objektu hark zehatz mehatz deskribatu, baina borobila zen, luzea eta zabala. Erdian beste borobil bat zuelarik biraka hasten zen, objektu biribil hura zeru urdinean zehar ibiltzen hasi zen, baina segituan lurraren kontra jauzi zen zarata ozen bat jaurtiz. Orduntxe berririo aldatu zen irudia, ni geldit nengoen, bitartean irudiak biraka zeuden nire inguruan kolore eta forma desberdineko irudi fantastikoak agertu zitzaizkidan, begiak zabal-zabal nituela gerizpe baltz bat igaro zen nahaste hartan, bat batean paradisu handi bat agertu zitzaidan nire begi aurrean, eguzkiak gogor jotzen zuten hango palmerak, haizeak ere bere soinutxoak ateratzen zuten itsasoarekin

konbinatuz. Bi palmera handi zeuden eta erdian hamaka bat, ni hamakan etzan nintzen, hamaka hura ez zen eroso baina primeran nengoen, haizeak nire ilea astintzen zuen itsasoko olatuek area zimurtzen zuten. Begiak zarratu nituen, paradisu hura amaitzea ez zitzaidan gustatuko, hango olatua, palmeretako gerizpea, haizea...

Begiak zabaldu nituenean beste lurralde batean nengoen hura bai zen amets gaiztoa, mundu hura iluna zen Eguzkia itzal handi batek estaltzen zuen, herri batean nengoen bertan bizitzen ziren pertsonak, beno ez dakit pertsonak deitu ala beste zeozer, soineko beltzak zeramaten zituzten hankak estaltzen zituenak baita aurpegia ere. Ibiltzen hasi nintzen, nire buruari galdezten: Non nago? Hankak ez nituen nik kontrolatzen beste norbaitek baizik, nire hankak korrika hasi ziren. Azkenean etxe zahar batera iritsi nintzen, nire ustez jauzteko zegoen, ezin nuen etxe hori zapaldu, sentsatzio bitxi bat ematen zidan.

Baina nire hankak aurrera egiten zuten, atea zabaldu nuen, sartzerakoan nire lehenengo inpresioa txarra zen, benetan txarra, barruan nengoean dena ikusi nuen, ezin nuen sentsatzio hura esplikat, baina benetan harrigarria egiten zitzaidan, etxearen barnean beste mundu bat zegoen. Hemengoa guztiz desberdina zen, kolorez egina zegoen dena alaitua, zerua naranjaz eta horiz egina zegoen, etxeak berriz, txokolatezkoak eta kolore desberdinez egina eta erdian plaza handi bat zuen, bertan eszenatoki bat zegoen hura karamelu eta lakazitox egina.

Nire lehenengo pentsamendua dena ikustea eta esploratzea zen. Begiak zarratu nituen, bai denbora eskas horretan lehen ikusitako itzal berbera agertu zitzaidan, oraingoa handiagoa zen, beldurtu egin nintzen ez nekien zer gertatzen zitzaidan, baina dena ahaztu zitzaidan eta mundu hartako materiala harrigarria zen, bitxi edo harrigarriena zen hango biztanleak. Ibiltzen hasi nintzen eta koloreak konbinatzen hasi ziren, mota askotako koloreak, gaur egun ezin dira esplikat horko koloreak lur miragarri hura atsegin nuen benetan alitsua eta misteriotsua zen aldi berean, dendak, etxea, ikastolak... etab zituzten eta hango ingurua aztertzea joan nintzen. Dendak ikustea erabaki nuen, azoka bat ematen zuen, era guztietako produktua zeuden baina ez ziren gure munduaren berdinak denak kolore alaiez eginak zeuden, bertako jendea erosten zegoen, saltzailak berriz zarataka zeuden jendea erakartzeko asmoz. Denbora asko eman nuen zeozer arraroa ikusteko, bat-batean nire begiak denda zahar eta aldi berean alaitu batean finko gertatu ziren, goian kartel handi bat zegoen bertan idatzita zegoen.

IRAGANA? ZURE ESKU DAGO

Kartel bitxi hura susmagarria egiten zitzaidan, baina kilikagarria zen, denbora asko eman nuen kartel hura zer nahi ote duen esan pentsatzen eta konturatu baino arinago dendaren atean nengoen, barrutik soinu bitxi bat entzuten nuen ahots hori sartzeko esaten zidan, aurrera! Nire hanka aurrera egin zuten, atea ireki nuen, denda itxura zatarrak zuen, magia egiteko objektu eta tresna asko zeuden. Atzean, ate handi kokatuta zegoen, beheko zuloxoetatik argi berde bat ateratzen zen, nire hankak aurrera egin zuten ate handiaren aurrean nengoen, atea pixkana-pixkanaka zabaldu nuen eta zera ikusi nuen andra zahar bat zegoen bere sorginkeriak prestatzen, bere esku zaharretan sugaeren mihi gorri bat zuen eta bestean sapoaren hankak, bitartean dantza bitxi bat dantzatzen ari zen

eta hitz magiko batzuk ahoskatzen zegoen. Ni harrituta beraren sorginkeri eta dantzari begiratzen nengoen, nahi gabe atea bultzatu nuen eta sorginkeriaren erdian jauzi nintzen, zahar hura haserre jarri zen eta niri begirada maltzur bat bota zidan, ni ez nekien zer egin momentu hartan eta egoera latz horretatik lehenbailehen irtetea gomendagarria zen. Atea zeharkatu nuen abiadura biziz, baita sarrerakoa ere eta korrika segitu nuen, ez nekien nora joan, ez nekien non nengoen baina momentu hartan ez nuen ezertaz pentsatzen, bitartean jendeak niri begiratzen zidaten aurpegi izugarria.

Bat-batean lurmutur batera iritsi nintzen itsasoak gogor astintzen zuten harkaitzen kontra, harkaitzak berriz kontra egiten zuten zarata ozen bat askatuz, efektu hori behin da berriz errepikatzen zen. Nik ikuskizun hori ikusten nenbilen, baian nire atzea pertsona bat susmatu nuen, giratzeko prest nengoen, ia-ia ikusi nuen pertsona hura, baina bultzakada batez behera erori nintzen. Airean nengoen lurra jotzeko prest gora begiratu nuen eta itzal bat zegoen pertsona baten irudia zuelarik irribarre maltzur bat bota zidan, segituan behera bajatu nuen nire begirada, begiak zarratu nituen ez nuen nahi egoera ikusi, orain zarata ozenagoa zen, olatuek gogorrago entzuten nituen, ez nekien zer gertatuko zitzaidan eta...

Begiak zabaldu nituen, dena argitsua zegoen ez nekien zehazki non nengoen. Burua niregana etorri zen nire ohean nengoen buru osoa izerdi patzetan zegoen, eskua-ekin izerdi guztia kendu nuen, sukaldera joan eta termometro baten bila hasi nintzen, termometroa nire beso azpian jarri eta itxaron egin nuen. Denbora apur bat pasatu, ondoren termometroa bribatzena hasi zen, beso azpitik atera eta markatzen zituen graduak ikusi nuen, kalentura nuela baieztatu nuen 40 gradu nituen, gorputza dardarka hasi zitzaidan, nire ama eta nire aita kotxea hartu eta ospitalerako bidea hartu genuen.

Ni kezkatuta nengoen nire gorputza beroaren erruz zorabiatu eta lo geratu nintzen berriz ere. Nire irudiak ez ziren ondo ikusten zirriborroen antzekoak eta koloregabeak, oraingoan ez ziren irudi zehatzak, dena ilun ikusten nuen, beldurraren erruz itzal mada-rikatu berdina agertu zitzaidan, itzalak nire gorputzaren itxura hartu zuen, baina koloregabe zegoen, barrezka hasi zen niri begira, niri amorru bizia ematen zidan, baina ez nekien zer egin. Orduan itzalak hegan hasi zen mundu ilun horren zehar, hankatik kea ateratzen zitzaion irudi eta forma geometrikoak osatuz zeru ilunean zehar.

Leihoko koloreak eta tokiak biratzen ari ziren, nik begiak zabal-zabal nituen, aurrera begiratzean kotxearen aurrealdea desagertu egin zen, sentsazio bat ematen zidan.

Ametsetan ote nengoen? Ez nekien, baina leihoko kristala bribatzen hasi zen abiadura biziz, ni aurpegi txarraz begiratu nion kristalari, eta berak aurpegi txarraz begiratu zidan ere, ni harriturik, kristal hura ikutzen hasi nintzen, baina dena leun zegoen ez zegoen aurpegiaren arrastorik. Ingurura begiratzen nengoen, dena hutsik zegoen, ez zegoen inor bakarrik ni nengoen kotxe zatar eta tristean, kotxearen bihotzak zarata txiki bat ateratzen zuen, begiak itxita zeraman eta hanka abiadura biziz korrika. Kotxeak burrumba hotsa ateratzen zuen eta ni mugitzen hasi nintzen gora eta behera, beti mugimendu berdina ateratzen zuen ni mugituz. Denbora ako igaro zen eta konturatu nintzen kotxea ez zuela aurreratzen beti leku finko batean zegoela baina irudiak higitzen ari



zirela. Nire begirada kotxeko leku guztietan galdu zen, kotxea bizia zuela iruditu zitzaidan, zeren bihotzaren taupadaka entzun nuen, hankak pixkanaka pixkanaka aurreratzen ari ziren gero eta arinago zebiltzan, kotxearen begiak zabaltu egin ziren dena argituz ni zarataka hasi nintzen baina inork ez zidan erantzuten, garrasika egon nintzen denboraldi luze batez.

Azkenik kotxetik irtetea erabaki nuen, segurtasunezko gerrikoa kendu nuen segituan, kotxearen atea ireki nuen baina segituan zarratzen zen haizea bortitzaren erruz, berriro egitea erabaki nuen, nire indara guztiarekin atea zabaltu eta salto egin nuen, ez nekien nora nindoan, nire gorputza biraka hasi zen aldats behera. Bat-batean kotxea hurbil zegoen etxe batekin kontra egin zuen eta kotxearen puskak dena izorratzen zuen. Nire gorputza biraka zebilen, ez nekien nora joango nintzen, nire aurpegia urratuta zegoen, pika egiten zitzaidan eta baita min ere, nire besoak, nire hankak berdin jarraitzen zuten urratuta eta odolez betea, odolak nire arropa guztia zikintzen zuen. Denbora asko igaro ondoren, amildegi batera heldu nintzen, ezin nuen nire gorputza geratu, ez nekien.

Begiak zarratu nituen ez nuen jakin zer gertatuko zitzaidan eta... Begiak berriz zabaltu nituen, eta nire kotxeko jesarlekuan nengoen izerdi patzetan, eztulka eta botaka egiteko gogo biziz nire ama ni begiratzen ninduen aurpegi triste batez nire aita berriz, begiak zuzen-zuzen errepidera zeuzkan baina nik susmatzen nuen kexaturik zegoela nire gaizotasunagatik. Kotxean denbora asko iraun genuen eta nahi genuen helburua lortu genuen, ospitalera hain zuzen. Aitak kotxea aparkatu zuen kiosko txiki eta zahar baten alboan, nire aitak ni bizkarraldean neraman ospitalerantz, jendea ni begiratzen ninduten eta nire aitari, itxura xelebrea genuen eta, nire ama berriz niri denbora guztian galdetzen ari zitzaidan: ondo al zaude? zerbait nahi duzu? Nahi al duzu musuzapi bat?... Nire ama aspergarri hutsa zen, baina egia da gurasoak asko arduratzen direla bere seme alabengan. Beno, ni ospitalera heldu nintzen eztulka eta izerdi patzetan, medikuek laster kasu egin zidaten eta kamila handi batean jarri nintzen kamila zuria zen, hanka handi batzuekin behealdean gupil batzuk zituen, haiekin errazago egin zitekeen kamila mugitzea. Medikuek abiadura biziz neramaten, nire gurasoak haien atzetik zenbiltzan korrika. Nire begiak dena ikusten zuten, andreak, ordezkariak, sendagileak... eta baita gaizoak ere. Medikuek gela handi batera neramaten, ate hori zeharkatzerakoan nire gurasoak atearen

aurrean geratu ziren niri begira, amak negarrez hasi zen eta aitak besarkatu egin zuen, beste eskuarekin agurtu egin zidan. Gela hartan nengoen ni neu eta beste gizaki batzuk, tresnak ikusi nituen leku batean zein bestean, medikuek hitzegiten hasi zitzaizkidaten. Ni urduri nengoen medikuek berriz lasai-lasai eta ziur zeuden egin beharrekoa oso arris-kutsua zela. Ni kamilan nengoen, etzanda, mediku batek esan zidan lasai egoteko eta zitzada txiki bat susmatuko nuela baina ezer larririk ez, hitz horrekin lasaitu nintzen.

Dena bere lekuan zegoen, operazioa asteko zegoen, orduntxe mediku batek injekzio bat sartu zidan besoan, zitzada gogor bat sentitu nuen. Medikuek nola nuen izena galdetu zidan, nik ahoan zabaldu nuen eta ahoskatzerakoan begiak pixkanaka-pixkanaka zarratzen ari ziren dortoka baten bezala. Ni beldurra nuen ea berriro itzal beldurgarri hura agertuko bazait, une hartan koloreak, animalia prehistorikoak, automobilak, etab. agertu zitzaizkidan denak mundu txiki batean zeuden, lurretik oso-oso urrun. Eguzkiak bere izpiekin berriketan ikusten zen, lainoek *mus*-eran jolasten eta animali prehistorikoak Golf-era jolasten. Mundu edo planeta hura asko gustatu zitzaidan barregarria zen.

Bat-batean eguzkia eta bere izpiek laino beltz batzuen erruz desargertu egin ziren, lainoak ere eta animaliek makilak zelaiaren erdian utzi zituzten. Bat- batean laino beltzen zehar nire ametsetako irudi beltza agertu zen gizaki guztiak ikaratua eta beldurtuz, haiek beraien etxeetara joan ziren, ni bakar-bakar utziz. Gerizpeak, niri seinalatu zidan eta beraren lainoak niregana abiatu ziren, ni korrika ari nintzen planeta horren zehar.

Bat- batean planetaren puntara heldu nintzen, planeta hark laukia baitzen, nire amaiera zela pentsatu nuen, baina erratuta nengoen. Ospitaleko gela batean nengoen, etzanda, alboan Suero izeneko likido bat nuen eta mahaitxoan gailera batzuk. Nire gela zehatz-mehatz aztertu nuen eta txikia zen baina 4 pertsona egoteko egokia zen. Gailera bat hartu nuen nire gosea asetzeko, ahora sartu nuen eta gailera dastatzen hasi nintzen mmm... gozoa zen inoiz dastatu dudan gailetarik onena. Gailera amaitu nuenean gurasoak etorri zitzaizkidan eta amak azaldu zidan gailetazko pakete berak ekarri zuela, biak besarkada handi bat eman zidaten eta operazioari buruz berriketan ari ginela, norbaitek atea jo zuen, medikua zen. Hark nire gurasoei kanpora joateko eskatu zien eta eskatu eta egin, amak musua eman eta atetik irten zen aitak kiñu bat egin eta kanpora joan zen, atea gogor zarratu zen eta kanpoko jendeak kexatu egin ziren, ni barre egin nuen eta gailetak jateari hasi nintzen berriz ere. Minutu batzuk pasatu ondoren medikua sartu zen, nire ohean jesarri zen eta baimena eskatu zidan gailera bat hartzeko, ni baiezkua egin nion buruarekin. Gailera amaitu zuenean eskerrak eman eta nire gaixotasuna azaldu zidan, gaixotasun bitxia zen eta jende gutxi zeukan baina ez da hilkorra.

Medikua oso jatorra zen eta berarekin berriketan egon nintzen denboraldi luze batez zeren bere laguntzailea etorri eta azaldu zion gertatzen ari zena, medikuek agurtu eta atetik irten zen abiadura biziz. Nire gurasoak etxera eraman ninduten egun 2 pasatu ondoren, bidaian lo gertu nintzen berriz ere, beti bezala, nire gurasoak beraien kontuez berriketan zenbiltzan ni berriz nire ametsetan, ez zitzaidan agertu gerizpe hura gehiago, azkenean lortu nuen lasai amets egitea. Heldu ginenean ni oraindik lo seko nengoen eta gurasoak bizkar gainean eraman ninduten nire logelaraino. Esnatu nintzenean nire gelan nengoen alboan nire guraso nuelarik.



Janire Lamikiz Ramírez - DBH 2. maila
"Nire kirolik gustokoenak saskibaloia eta frontenisa dira"

EGOITZEN ABENTURAK

Behin batean Euskadiko herri xume batean Egoitz izeneko mutil gazte bat bizi zen. Berak ez zuen gurasorik, ortaz, bere aitonarekin bizi zen oso txikia zen etxola batean. Kanpotik ikusita oso zahar zegoen. Atea aritz-egurrez egina zegoen baina denbora eta intsektuen ondorioz oso zaharturik ikusten zen. Bi leiho baino ez ziren ikusten, baina hauek, atea baino askoz barriagoak ziruditen, haize bolada indartsu baten ondorioz puskatu eta Egoitzen aitonak konpodu egin baitzituen. Barrualdea oso bestelakoa zen. Sar-tzean egongela handi eta polit bat ikusten zen hainbat argazkiz apaindua. Bertan, tximi-nia bat eta hiru eserleku zeuden mahai txiki baten inguruan. Egongela zeharkatu ondoren eskatz txiki bat zegoen. Piskat zikina egoten zen, Egoitz eta aitonak garbiketa kontuak ez zituztelako oso gustuko. Logela bat baino ez zuen eta bertan Egoitz eta bere aitonak egiten zuten lo batera. Logelaren ondoko eskailerak igo eta usoak eta oiloak zeuden, Egoitzen aitonari asko gustatzen baitzaizkion txoriak, gustokoenak usoak zitue-larik. Egoitzi ordea, ez zitzaizkion batere gustatzen eta ez zuen ulertzen bere aitonak nola zaintzen zituen hain izaki zaratatsuak. Beti ari zen usoak nola zirikatu pentsatzen,

bai eta sarritan lortu ere: behin, uso guztiei lumak kentzen hasi zitzaizkion. Eskerrak aitonak harrapatu eta berarekin haserretu zela. Ez zituen batere atsegin baina arratsalde asko pasatzen zuen usotegian lasaitasun handia sentitzen zuelako.

Behin, usotegian zegoen arratsalde batean, uso batek mokoan zerbait arraroa zekarela konturatu zen. Ez zekienez zer zen begiratzera hurbildu eta paketetxo bat zela ikustean, irekitzea pentsatu zuen, baina Aitona haserretuko zela pentsatzean zitzu bizian jaitsi zituen eskailerak paketetxoa eskuetan zuela. Aitona etxean ez zegoela ikustean, irekitzea erabaki zuen. Eskumuturreko bat zen. Ez zen oso handia baina bai pisutsua. Ziurrenik urrez eginikoa izango zen, kolore hori bizia zuen eta. Aitonarentzat zen eta nork bidaltzen zion begiratzearan honako hau jartzen zuen: Fermin Etxebarria. Gizon honen izena ezagutzen zuen, bere aitonak hainbat aldiz hitz egin baitzion bere gaztetako lagunaz, Fermin Etxebarriataz. Piskatean begira geratu eta jarri egin zuen. Argi handi bat agertu eta berehala desagertu zen Egoitz. Aitona etxera heldu zen eta Egoitz etxean ez zegoela ikusirik usotegian egongo zela pentsatu zuen baina han ere ez zen ageri. Hala era, zerbait arraroa sumatu zuen, lurrian zerbait zegoen, paketetxo bat. Barruan begiratu eta gutun bat zegoela ikusirik irakurri egin zuen.

Andres maitea:

Ez dakit nitaz oroitzen zaren, Fermin naiz zure eskolako laguna, duela 40 urte herri honetatik alde egin zuena. Nik ez zaitut ahaztu, horregatik, opari hau ematen dizut. Egiptora eginiko bidaia baten aurkitu nuen. Nik oso gogoko dut, elezahar batek esaten baitu eskumuturreko hau magikoa dela, jartzen duenak edozein garaitara bidaiatu dezakeela uste dute. Nik ere sinisten dudanez, ez dut inoiz jarri eta zuk ere gauza bera egin beharko zenuke.

Besarkada handi bat

Fermin

Hau irakurtzean bihotzekoak eman zion ia. Oso ondo ezagutzen zuen Egoitz eta bazekien eskumuturrekoa erabili zuela eta hori zela etxean ez egotearen arrazoia. Arrapaladan jaitsi zituen eskailerak eta Ferminen zenbakiaren bila hasi zen. Aurkitzean deitu eta gizonezko batek erantzun zuen:

–Fermin? –esan zuen, ez baitzaion beste ezer bururatu.

–Bai, nor da?

–Andres naiz. Eskumuturrekoagaitik deitu dizut. –Oso urduri zegoen eta ezin zuen hitz erdirik egin.

–Andres, zenbat denbora! ez zaizu eskumuturrekoa gustatu ala?

Aitonak dena kontatu zion eta Ferminek astebetean hor izango zela agindu zion. Astebete luze baten ondoren, auto batek klaxona jo zuen aitonaren etxe aurrean. Fermin zen eta beste gizon bizardun batekin zetorren. Ferminek azti ahaltsu bat zela azaldu zion bai eta Egoitz bueltan ekarriko zuela agindu ere. Aztiak hitz arraroak esaten hasi eta etxeko egongela argiz bete zen. Aitonak zerbait beltza ikusi zuen. Egoitz zen. Egoitzek

harriduraz begiratzen zion baina korrika hasi eta besarkatu egin zuen aitona. Orduan ikusi zuen guztia kontatzen hasi zen, nola argiaren ondoren itsasontzi baten agertu zen etab.



Esan zuenez, marinela eta bera oso harrituta geratu ziren. Arrantzan egiten irakatsi zien eta itsasoko hainbat istorio kontatu zioten. Egoitz oso pozik zegoen etxera bueltatzeaz baina marinelen falta ere bazuen. 10 urte geroago Egoitzek bere itsasontzia erosi eta itsaso zabalera abiatu zen.



Garoa Caminos Ikazuriaga - DBH 2. maila

*“Goza ezazu momento bakoitza, une oro,
denbora ez delako existitzen baina bai oroitzapenak”*

IRAGANEKO ILUNA BIHARKO ARGİ

Apika hemen bizi izandako urte guztiek eraman naute bizitzan zehar horrela pentsatzera.

Bakartia naiz aske sentitzen naizelako, bakardadea atsegin dut betiko bizitza hone-tatik urrun nagoelako... Isiltasuna, ametsak, oroitzak... aurkitu ahal ditudalako, baina guzti horren gainetik ni neu naizena izaten laguntzen didalako.

Ez naiz perfektua, nerabezaroan murgildu berri den mutil umezurtz bat besterik ez naiz.

Estatu da nire izena. Bizitzaren zergatia, egunaren esanahia... oraindik zer diren ez dakien izaki txiki bat naiz.

Aspalditik ahantzita eduki izan ditut euriaren doinu burrunbatsua eta haizearen gupida gabeko ziztadak. Zinez existitzen diren ez badakit ere noizbait berriz noiz senti-tuko zain nago.

Udazkeneko azken hostoa, neguko elur maluta txikiena, udaberriko lore zein fruitu loratu eta heldugabea, beste urtaroengandik desberdinarazten duen eguzkiaren printze ahula... ikusteko aukera izan dut ordea, nahiz eta guztiak txikiak izan. Denak elkartuz sentipen, irudi zein bizipena hedatu egiten da bizi izandako gauzarik garrantzitsuenan bihurtuz eta gorputzeko toki aipagarrienean sustraituz, bihotzean. Baina nola bizi eta hazi landatutakoa ez bada ureztatzen? Nola eman zerbaitetan aurrerapausua adorea zer den jakin gabe?

Iritsi da egunsentia Bulgariara azkenean. Barruko malizia iluna eramateko agian, pertsiana zuloetatik agerian utzi du bere nortasuna. Urrezko printzek bere betebeharrak egiten dihardute. Argitasuna da nagusi orain, begiak itsutzen ituen argia hemen da jada, egun berriari harrera egin diezaiodan behin eta berriz esanez. Betikoak itxaroten dit ordea, eguneroko errutinak. Errealitate gordinak.

Zaindariaren ahots erlatsaren oihartzuna entzun da pasabidean zehar. Jeikitseko garaia da.

Oilarraren kantu armoniatsua ordez egunero entzuten dugun mintzoa hasi da berriz bere lana egiten.

Lehenik ume txikiak, ondoren neskak eta azkenik gu. Ordena horri jarraituz iratzartzen ditu eraikin zaharrenean bizi diren umezurtz guztiak.

Leihora hurbildu naiz zerbait desberdina ikusteko esperantzaz. Barroteek ordea, irudi eta paisaia zoragarri oro zapuzten dituzte.

Gure kide baten deiadar ozenak supituki atera nau nire gogoetatik. Gela jelatuta utzi du ipar haizeak eta beldurra lagun duelarik izua nagusitu da denon artean.

Ziegara bidean eraman dute. Negarra eta samina ostendu ezinean eskailera zaharretatik tatarrez joan da nire laguna, malkoen arrastoa egurrean utziz.

Ohiko txutxumutxuak entzun ditut isiltasuna janzten. Gorroto ditut gaizkiesanak, are gehiago ezer jakin ezean asmatutakoak. Galdera asko nire buruan, lo ez egiteko arazo bihurtu dira denak.

Izara artean nengoen, urteetan nire solaskide izandakoen ukitupean, elurte gogorretan estalki eta babes izandakoen goxotasunean murgildurik... esku hotz baten ukitua sentitu nuenean. Berehala jakin nuen ordea nor zen. Nola ahortzi momentu zailtan bostekoa luzatu zidanaren eskuaren igurtzi leuna.

Momentu horretan bertan, begirada soil batekin ohartu nintzen zerbait egiteko asmotan zebilela nire lagun Oanna; bere betiko ametsa errealitate bihurtzera zihoan. Begietara handi zaigun altxorrek, bizitzak, gordetzen dituen misterioak ezagutzera, sentitzera... baina gauza guzti horien gainetik familia bat edukitzeak sortzen duen sentipenarekin bat egitera.

Zigortuak izan gara hemen igaro ditugun urte hauetan guztietan zehar eta oraindik ere zaindariaren hira geure larruetan jasaten ari gara etengabe. Zergatia oraindik ondo jakin ez arren isilik geratu beste erremediorik ez dugu, itsasoari burla egiteak ondorio latzak ekartzen dituelako. Are gehiago gu bezalako itsasontzi txikiak direnean itsaso zabalaren biztanle bakarrak.

Arnasa sakon hartu eta jada ondotoxo ezagutzen dudan bidean gora biatu naiz orain arte jorratutako benetako adiskidetasuna iluntasun eta olatu artetik salbatzera.

Zeldako paretan hezetasunean barneraturik, kantoï batean kulunkan ikusi dut.

Burua altxatu du poliki bere atzamar luzeez aurpegiko ile luzea kenduz eta ubelune guztiak agerian utziz. Negar anpuluen konpainian neskaren begi marroien sakontasunean galdu dira nire ernamuinak.

Nekez utziz bere eserlekua izan den zorua agerian laga du dardarti eskua herdoildutako barroteen artetik. Gogo biziz oratu eta esku biekin berotzen saiatu naiz, alperrik ordea, neguko elur izotzua eguzki gabeko egun batean berotzea bezalatsu izan da.

Uraren zahatoa eskeini bezain laster esku artean hartu eta ahora eraman du hainbat ur tanta ezpain sikuetara isuriz. Honek egindakoa eskertu nahian irribarre egin dit ezti-kiro eta aurpegia barroteen artetik ateraz musu batez agurtu nau.

Logelara iritsi bezain pronto ohean sartu naiz arropak eta zapatilak soinetik kendu gabe, leiho zulatutik sartzen den haize hozkirria elkarrizketa solaskide dudala eta nire betiko izarak tristura momentuetan kontsolamendu. Gaua mantso izarren argipean abailduz doala sumatzen dut. Ero baten modura nabil maitasun itsu baten atzetik, baina ametsak zeruaren urdin zabalean galtzen zaizkit. Loratzen ikusitako lorea sasi artean kateaturik dago, bakardadean usteltzen ari da eta nik ezin dezaket ezer egin hori saihesteko. Nork esango ote zidan niri Oanna eta nire arteko adiskidetasuna urrutiago iritsiko zela?

Ez dakit zergatik baina negarrez ari naiz. Ez nago seguru honekin zein sentimendu den adierazi nahi dudana, Oanna berriz inoiz ez ikustearen beldurra edota ondo ezagutu ez dudan pertsona bat galtzearena. Dena dela negar egiten dut, barrena nahastuta dudala argi utziz.

Argia pizten deneko soinua aditu dute nire belarri zorrotzek eta segundu gutxi batzuen buruan bonbila nola pizten den begietsi dute nire begiek.

Begirale ipurterrearen aurpegi zurbila ikusiz soilik jakin dut zerbait gertatzen dela.

Birritan pentsatu gabe nigana etorri, besotik sendo hartu eta eskilaretan gora eraman nau ziegara bidean.

Orduantxe ikusi dut nire Oanna maitea zoruan etzanda begiak zabal-zabalik, ahoa irekita oihu eginez ito izan balitz bezala. Eskumuturra hartu eta pultsua duela ziurtatu dut, ia nabari ere egiten ez diren bihotz taupadek bere lana egiten dihardute oraindik.

Barneko haserre kontrolaezina gidari dudalarik oihu egin diot begiraleari zerbait egiteko erregutuz.

Eriautoaren sirena hotsa nabarmendu da isiltasunean barrena. Akaboa eta heriotzarekin lotzen ditugun argi laranja bidean dira, gorputzaren patua zein izango den erabakiko duena hemen da jada.

Iritsi da hareazko erlojuari buelta emateko unea eta hondar garautxo bakoitza nola erortzen den begiratzeko unea. Momentu hauetan itxarongelan gaude, batzuek eserita egotea nahiago dute beste batzuk ordea, ezinegona jasan ezinik hara eta hona dabilta. Norbaiten heriotza edo bizitza itxaropenen berri izateko zain dauden, nolabait senide, bakarrak gara gu, Sofia umezurztegiko hemeretzi umeak.

Gaueko hamabiak dira. Erizainak irmo jarraitu du bere bidea nigana iritsi bitartean.

Pasatzeko esan dit. Momentu horretan, aurpegi zurbila ikusitakoan bizi osoan bera-rekin iragandako pasarte guztiak etorri zaizkit burura. Bere hatzen ukituak asaldatu nau. Musu batez bere azken arnasa nire ahoan nola itzaltzen den sentitu ahal izan dut. Betiko agurra izan da oraingoa. Betikoa.

Azken egunetan bizi izandako oinazeak alde batera utzi eta zutik jarri naiz mirari-
ren bat gertatu denaren itxaropenaz, baina zoritxarrez, ingurura begiratzearekin batera zapuztu dira nire ilusioak, Oannaren gorpuak hor jarraitzen du, petalorik gabeko lore baten antzera. Ez dago atzera egiterik jada.

Nire bihotza amildegi amaigabe batean behera nola amiltzen den sentitu dut.

Gertakari honi izugarrizko garrantzia eman zioten udaletxekoek eta berriz halako-
rik gerta ez zedin gure bizitokia izandakoa ixtea erabaki zuten, bertako umei etxe eta familia berriak aurkituz.

Azkeneko aldziz ikusi dut Sofia. Giltzarrapo sendo batek oztopatzen du sargunea orain. Bukatu da dena.

Bakartia naiz aske sentitzen naizelako, bakardadea atsegin dut betiko bizitza hone-
tatik urrun nagoelako... Isiltasuna, ametsak, oroitzak... Aurkitu ahal ditudalako, baina guzti horren gainetik ni neu naizena izaten laguntzen didalako. Ez naiz perfektua, nera-bezaroan murgiltzen ari den 15 urteko mutil bat besterik ez naiz, orain bi urte benetako adiskidetasuna ezagutu eta maitasuna zer zen sentitu zuen umezurtz izandakoa eta orain familia bateko semea dena.

Iban da nire izena. Bizitzaren zergatia, egunaren esanahia... zer diren ikasten ari den izakia naiz. Orain arte noraezean ibili ostean, zelai zabalaren bihotzera, itsasora, martxan jarri naiz, atzean eta iraganean utzi dut mezurztegia, baina ez ahanzturan, nire Oanna maitea eta honen hitzak.

Eguzkia zilarrezko leiar bihurtzean uhertz zuria eta urrunago ikus daitekeela esan zidan, neurrigabeko larre berdea egunsenti iheskorrean hedatzen... eta nik hauek denak aurkitzeko esperantzaz motoreak piztu ditut gogoz, bizitzan norbait izateko irrikaz.



Irati Martínez Aguirrezabala - DBH. 3 maila

“Gerrak badira nahiko; nik bakea nahi dut”

ITXAROPENAREN ATZETIK



Goizeko seiak ziren. Ez zen jada tiro hotsik entzuten. Zerua ez zen oraindik guztiz esnatu; iluntasun zertzelada batzuk nabarmentzen ziztaizkion. Kaleak ez ziren kale, beldurrez eta egonezinez beteriko pasabide estuak baizik. Etxerik ez zen ageri, denak lokaturik ziren, etzanda, lasai, luze, seko lurraren gainean.

Eta jakin nahi izango duzue ea nor den hau guztia sufritzen dagoena nondik datoren... Igor Kavach nauzue, hamar urteko ume kaxkarra, pobrezian bizitzera ohitua, noraezean ibiltzera... Baina hel diezaiozun aurretik genbiltzanari, hiriaren suntsipenari, txikizioari, birrindurari, triskantzari... nola esan bestela... gerrak irentsitako herriari.

Laster entzungo ziren tronpeta hotsak gerrari bukaera emango ziotenak. Gauzak ez nituen bat ere erraz ikusten niri zegokidan horretan; kale erdian nengoan, sakelean zentimo pare batzuekin eta zer egin jakin gabe. Familia desagerturik, non eta noiz banandu gintuzten ere gogoratzen ez nuelarik.

Nire buru kaxkarrean nituen oroitzapen bakarrak azkenengoz amari entzundako hitzok ziren: nahiz eta soldadu hauek gu banandu, ez ahaztu beti aurrera egin behar duzula, gertatzen dena gertatzen dela ere zuk egin aurrera beti.

Orain ere, berba horiek burura etortzen zaizkidan bakoitzean sentipen bulkada batek gurutzatzen du nire gorputza: maitasunak, segurtasunak, beldurrak, amorrak, bakardadeak... Ezin dizkizuet denak zehatz-mehatz argitu, hitz bakarrera laburtuz, ezinezkoa erabat. Baina hemendik aurrera, datorrena datorrela ere dena da eskertzekoa... Argi eta garbi ikusi edo nabari izango baituzue nire bizitza ez dagoela nire kontrolpean, Jaungoiko berberaren eskuetan baizik. Hala ere, beti esan ohi denez, itxaropena ez da sekula ere galdu behar eta horretan nago: sentipen horrek bizirik irauteko beste indar ematen didan bitartean hemen izango naute... Baina begiak ixten ditut eta gertatutakoa, bizitakoa, oraintxe bertan bizitzen eta sufritzen ari naizela pentsatzen dut. Hala, berriro entzuten ditut tronpeta hotsak, dorre estu eta bizi batetik datoz. Harantz doaz beraien bizia salbatzea lortu dutenak, bai haur, bai agure eta baita helduak ere. Hori ikustera-koan, nik ere bertarantz joatea erabaki dut. Heldutakoan bizirik dirautenen berri ematen hasiak direla ohartu naiz, familika izendatzen dituzte: “Kavach” esan dutenean, nire bihotzak ez du aurkitu toki nahikorik gorputzean izan duen nahigabea ezkutatze-ko; denak hilak dira antza. Triste, goibel, kopetilun, haserre, egonezinik, gogaiturik... nazkaturik informazio gehiago eskaintzen duten paper ofizialen bila jo dut. Eskuetan izan bezain laster ziztu bizian abiatu naiz hutsik zegoen toki bakarra betetzera, ni neurearekin egotera, gertatutakoa hausnartzera, negarrak hustutzera. Bertan igaro ditut bi edo hiru ordu, dena zuhur eta arretaz irakurtzen.

Seguruenez, zuek ere nahiko duzue jakin zer jartzen duen paperotan. Lehendabizi, ama hila dela, San Petersburgoko indarkeri lan –eremuan birusen batek jota edo. Ez dakite zeinek, baina ez da harritzekoa, gerra sasoian zikinkeriak dakartzan ondorioetako bat gaixotasunen agerpena baita. Ondoren aita, beste lan eremu batera eraman eta bertan fusilatu dutela, zaharregia omen zelako.

Hau guztia ez da erraza izango niretzat. Nire gurasoen heriotzaz ari naiz eta hori bat-batean onartzea zaila da. Ukitu gabe zauritu naute, odola dariot eta odol jario hau eteteko botikarik ez da oraindik munduan. Erren bihurtu naute, hankarik moztu gabe, itsu egin begirik kendu gabe, nire sostengu, oinarri, muin guztiaz egin dira, lapurtu egin didate, nor naiz, zer naiz, zertarako, noiz, nondik edo nora bezalako galderen erantzunik gabe utzi naute. Eta Margareth? Nire arreba Margareth?

Margareth txikia, Margareth gaixoa? Ez dago hildakoen zerrendan, beraz bizirik dirau, baina non?

Hemendik bere arrastorik ez da ageri. Moskuko jende asko eta asko Austriako zenbait herri txikitara joan omen da ezkutatzen. Antza denez, bertan lana aurkitzea oso erraza da eta baliteke bertan egotea. Hala ere, alferreko pausorik ez dut eman nahi; ongi informatuko naiz inora joan baino lehen. Hainbeste eta hainbeste dira hildakoak!

Gaur gaua arin sartu da, inoiz baino arinago eta inguru honetan lo egiteko leku eroso aurkitzea horren erraza ez bada ere... azkenean batekin egin naiz. Bihartik hasiko omen dira Mosku inguruko herriak laguntza ematen.

Goizeko zazpiak dira jada eta zeruan, laino artean, nabari da jada eguzkiaren lehen izpien argitasun ikaratia. Astegun buruzuria da eta langileak hasi dira martxan. Gosez amorratzen nago baina nire arrebaren berri izateko nahia sendoagoa da eta goseak itxaron beharko du.

Bulegora heldu eta sarreran ate ikaragarri batekin egin dut topo. Birritan jo dut atea eta doinu goxo batez ahoskatutako hiruzpalau hitzek bulego barrura zuzendu naute. Neska xarmant bezain adoretzu batek hartu nau, bere hortzen zurbiltasunak ikaratzen nautelarik, txundigarria benetan...

Berba eta berba aritu gara, harroputz handi horietakoa dela konturatu naizen arte. Baina lortu dut bilatzen nuen informazioa. Margareth, Vienan dago, bertan lana aurkitu ondoren bertan bizitzen geratu zelako. Eta hara non niretzako arazo bat gehiago agertzen den! Dirua behar dut Vienara joateko eta udaletxeak laguntzak eskaintzen dituela entzun dut. Beraz hor nago orain, ni ere dirulaguntzaren zain eta paper batean zintzilik, zerrenda bateko zenbaki bihurtu naute amets bategatik.

“Musika entzun eta lagunekin egotea gustatzen zait denbora librean”

NATURAK DUEN INDARRA

48

Han gindoazen nire lagun bi eta ni etxerako bidean, bat-batean indar handiko zarata batek oharkabea harrapatu gintuenean. Leihotik kanpora begiratu eta gure atzean, ehun bat metrora aurkitzen zen izugarrizko tornado bat ikusi genuen.

Ahalik eta bizkorren autobusetik irteten saiatu ginen, baina halako batean nire lagunetako bati jertsea atean trabatu zitzaion, eta hura han utziko ez genuenez, hirurok ondo heldu eta zorionez tornado hark ez gintuen inora eramán.

Hamabi bat minutu pasatuko ziren altxatu ginenean. Mendiaren txoko batean geunden, ez genuen ezer, eta gutxi ez balitz gautzen hasi zuen. Gauzak zeuden bezala ikusita, zulo txiki edo kobaren baten bila abiatu ginen.

Ez dakit nik baina uste dudanez, arratsalde osoa biraka ibili ginen noraezean galduta eta goitik behera bustita.

Halako batean aurkitu genuen bilatzen genbiltzan koba hura. Arraro samarra egin zitzaigun koba hura han aurkitzea, gainera hurbilean zarata arraro batzuk entzun genituen, orrore antzerakoak.

Ahalik eta azkarren saiatu ginen han hurbilean haizea zela eta erorita zeuden arbola batzuetatik arbola adar batzuk hartzen.

Orrore horiek gero eta hurbilago entzuten ziren et halako batean han agertu zen hartz ikaragarri bat. Bi metro inguru zituen eta ez zirudien pozik. Nire lagunetako bati eraso egin eta hatzaparrekin hanka harrapatu eta izugarrizko zauria egin zion. Odola lurretik zihoan, ura balitz bezala eta trumoeikin batera zaratak entzuten ziren.

Genituen arbola adarrekin buruan ahalik eta golperik gogorrena ematen saiatu ginen eta ihes egin zuen.

Bazihoala zirudien, baina gu berriz oharkabea harrapatu nahian erasoari ekin zion.

Saiatu zen berriz ere norbait harrapatzen, baina ez zuen lortu. Orduan (hatzaparra lurrean jartzerakoan), nik eta beste lagunak ahal izan genuen bezala arbola adarrak hartzari saman sartu eta hil egin genuen.

Besteak odola botatzen jarraitzen zuenez, tornikete bat egin genion eta odol jarioa geratu. Ondoren kobara sartu ginen eta ahal genuen bezala bata besteari helduz berotan sartu ginen.

Gaua luzea, gogorra egin zitzaigun, lagunaren kalenturak gora egin zuela eta.

Gau luze eta gogor hura pasa ondoren lehen eguzki izpiak ikusi ziren laino artetik irteten. Laguna kobatik atera eta ahal genuen bezala basotik irten ginen.

Herrira heltzean, hutsik zegoen etxe batean sartu eta bertan geratu ginen laguntza-
ren bat heldu arte, geure buruei esanez nolako indarra zuen naturak. Nola zuen gure gaindiko indar ikaragarria.



Garazi Olazar Natxiondo - DBH 3. maila

*“Hizkuntza bat ez da galtzen ez dakitenek ikasten ez dutelako,
dakitenek hitz egiten ez dutelako baizik”*

GIZONEZKOENTZAKO MUNDUA

Paper zuriaren aurrean nago isiltasunean murgildurik. Batzuetan ez zaio garrantzi-rik ematen baina horrenbeste urte galdurik izatean benetan atsegin dut. Momentu hone-tan idazleak paper zuriari dion beldurra baieztatuta gelditu zait. Jackek nigan konfi-dantza osoa dauka. Ondo egin dezakedan gauza bakarra idaztea da nire nebaren istorio xeleei esker nire imaginazioa guztiz landu baitzen, eta ez diot utsik egin nahi. Isto-rio desberdinak pasatzen zaizkit burutik ezinezko abiadura batean baina ez dakit nondik hasi eta bata bestea baino zentzugabeagoa da. Zein hautatu erabakitzen ari naizelarik ni neu protagonista naizen benetako istorioa gogoratzen dut.

Nire jaiotza tristuraz hartu zen etxekoan artean eta amak gogor ordaindu zuen ni neska izatea. Eskaileretatik erori zela esanez ospitalera joan behar izan zuen mediku guztiek ongi jakin arren zer gertatzen zen. Gurari asko izanez gero, neska izango zela zioten eta zurrumurru hori baieztatua gelditu zen neba nagusia izandakoan. Bigarrena ere mutila izango zela espero zuten baina neska izatean dirua xahutzen zuela esanez

amaren akats bihurtu nintzen. Akats horri jaten eman behar zitzaion, beretaz arduratu eta ahalik eta bizkorren norbaitekin ezkondu.

Hautzaroa infernua izan zen noizbait argi izpi ahulez argitua. Nire neba nagusia aitarekin ibiltzen zen alde batetik bestera ni bere istorio burugabeen zain etxean gelditzen nintzen bitartean. Nebak ez irteteko kalera zioen, kalea bost eskuko eta tronpadun jainko indiarrez beteta zegoela, tronpez neskak urrundik usaintzen zituztela eta bost eskuk min handia sortzen zutela. Nik sinestu egiten nion amaren bertsioa guztiz bestelakoa izan arren. Lau pareta horien artean pasa nuen nire hautzaroa aitaren jipoien eta nebaren laztanen artean nahastuta. Nire amak ez zuen nigan eraginik izan aitaren beldur izateko bakarrik bizi baitzen. Ez nuen bere beharritza ere sentitu. Gainera nire gaixotasunak sendatzeko baneukan aita. Behin buruko mina neukanean burdina gori-gori jarri zidan oinean. Agian sinestu ez arren esan beharra daukat buruko mina kendu zidala, nahiko min banuelako oinean burukoaz arduratzeko. Hortik aurrera ez dut buruko minik izan edo behintzat ez dut esan dudarik.

Hamabi urterekin nire gorputza forma hartzen hasi zen eta aitak gizona bilatzen hasiko zela erabaki zuen.

Nik albistea pozik hartu nuen mundu osoan bi gizon soilik ezagutzen baintuen eta aita gizon indiarren salbuespen izango zela argi nuen, ezinezkoa baitzen etxe horretatik kanpoko bizitza horren iluna izatea.

Gizona aurkitu zidaneko eguna izan zen aita irribarrez ikusi nuen lehen eguna.

Protagonista neska izango dela argi dut, bere pentsamenduak mendera ahal izateko eta guztiz ausarta izango da, beti izatea amestu dudan neskatxa baina izatera inoiz ausartu ez naizena. Otso batek ere tarteko izan behar du. Nire gizongaiaren liburutetan ikusi nituen eta gehien errespetatzen dudan animalia da. Animalia bat bada protagonista, umeentzako ipuina idatziko dut eta horrela nik izan ez nituen argi izpiak oparitu ahal izango ditut.

Aitak gizon aberats batekin ezkon nendin lortu zuen nire edertasunari esker gure diruaz ezin baitzen gizonik erosi.

Nire ezkontza ez zen gainerako guztiak bezalakoa izan, ezkondu aurretik, Said nire gizongaiak, ohiturak alde batera utziz, ikusi egin nahi baininduen bere inbertsioa ona zen jakiteko.

Nire jaun izango zenaren ikusketa gainditu ondoren, bere etxean gelditu nintzen eta egun batzuk nire eskuetatik alde egin ondoren aurrerago sortu nuen gizonen teoria baztertu nuen. Said nire aita baino okerragoa zela posible dela frogatu nuen, hori baitzen berarengandik espero zutena. Baina Said-en begietan amaren eskuetatik aldendu duten ume baten irudia soilik ikusten nuen.

Hurrengo gauean, lehen aldiz kalera irtetea erabaki nuen eta hori izan zen nire akatsik handiena. Kalean ez nuen bost eskuko eta tronpadun jainko indiarra aurkitu baina bai min handia eman zidan eta nire bizitza aurrez prestatuari bira osoa eman zion gizon bat. Ez nezakeen imajina gizona zekoen horren arma suntsigarria izan zezaketenik ezkutuan ni kondenatzeko gai zena.

Ondo jakina zen ezkontzara birjintasun gabe zetozen emakumeak harrika hiltzen zituztela, beraz, ihes egitea erabaki nuen.

Gau osoa oinez ibili ondoren gizon zuri asko zeuden leku batera iritsi nintzen. Beraietako bat soinekoan nuen odol multzoa eta malkoz beteriko aurpegia ikusirik, gupidatu egin zen eta bere etxera eramanez ninduen.

Urteen poderioz guztiz maiteminduta amaitu genuen. Hasieran barrikada gogor baten atzean gordetzen zuen bere bihotza baina pixkanaka eta pazientzi handiz barrikadak ahultzen joan ziren bere bihotza ukitzea lortu nuen arte.

Nire maiteak Jack du izena eta amerikarra da. Soldadua izan zen noizbait, horregatik, hasieran, eginikoaren barkamena lortzeko hartu ninduen baina orain egoera guztiz bestelakoa da. Gidaria da, turistak Indiako leku politenetatik eramanez eta negozioa ondo doa, turistek inoiz ulertu ez dudan konfidantza baitute beraien kolore berdinekoengan.

Etxe honetan gizon emakumeen arteko desberdintasunak iragan bihurtu dira eta orain idazle izateko erabakia hartu dut ez dudalako nahi gizon baten menpe egon, gizon hori Jack izan arren. Horretarako ekonomikoki inoren menpe ez egotea garrantzitsua da. Beno idatzi egin behar dut:

Oto bat biraka dabil zortzi baten irudia eginez kaiola barruan. Ez itxaron, ez da zortzi zenbakia, infinituaren ikurra baizik. Oto honek sentitzen duen nahigabea, imajinaezina izan behar da. Oso gogor ordaindu eragin nahi diote bere birraitonak bi moto-tesko eta txano gorridun neskatxa bati egin ziona.

Nolabait atera egin behar dut hortik. Zoo atzean mendi bat dago. Gauez etorri behar dut kaiolatik atera ahal izateko.

Hiruretan jo du iratzargailuak eta kexu batzuen ondoren iratzartu naiz. Etxetik irteteko lehen asmoa, hainbat filmetan agertzen den izarak apurtu eta leihotik jaistea izan da, baina gero gogoratu dut filmetako heroiak ez dutela ama marmarti bat, ez dituela inork zigortuko izarak apurtzearen.

Guzti hori ikusirik, atetik irtetea erabaki dut eta dirudienez nire erabakia zuzena da.

Zoora sartzeak ez da izan lan zaila, hain txikia izanik ez dutelako harresi bat baino gehiago segurtasun gisa, eta erraz salto daiteke. Behin barruan, atea irekitzera noala ustekabez zaindaria harrapatu nau. Bi aldiz pentsatu gabe telebistara deitu du asteko

albiste xelebrearen bila agian. Telebistan nire arrazoi ergelak azaldu ditut defentsa gisa, baina ikusleei pentsarazi egin diete eta herriaren boterea erakutsiz parke naturala bihurtu dute toki hau zooko animaliak bertan aske utziz. Nik egindakoa batzuentzat ausarta eta baikora izan arren, zigortuta jarraitzen dut.

Ipuina irakurtzean kezkek eragindako bekokiko zimurretatik urruti, aho parean, beste zimur bat agertu zait baina oraingoa poztasunak eragindakoa.





Iera Uriona Pérez de Sanromán - DBH 4. maila

“Nor bait, non bait, zerbait egiten ari da, baina ez dago argi zer”

HEGAZ

Atzera azken begirada. Aurrera begiratzen duzu, gero behera. Begiak itxi eta birritan pentsatu gabe, pausu bat aurrera. Beldur zara, altuera dezente dago. Zure gorputzaren aurka hasi da airea borrokan. Hegaz ari zara, txoria bezala, txoria bezain libre. Begiak zarratzeko bultzada larri bat daukazu, ez duzu ezer gehiago jakin nahi. Baina begiak zabaldu dituzu. Beldurra zure begietan isladatzen da.

Inon entzunda izan duzu, momentu larrietan, kamera geldoan gertatzen dela guztia, eta zure bizitzan zehar gertatutako ekintza garrantzitsuenak gogoratzen dituzula segidan. Momentu hau larria da bai zuretzat, eta inon entzundako txorakeri hau, egia dela ziurtatzen duzu.

Ama negarrez ari da. Inpotentzia negarra, kolpeek eragindako negarra, sufrimendu negarra. Ama ikusterakoan, jostorratz fin eta txiki baina madarikatu batek bihotzean ziztada egiten dizula nabaritzen duzu. Nahiz eta fina eta txikia izan, jostorratzak ikaragarri min egiten dizu.



“Aita ez da gaiztoa. Amak esaten du edan egiten duelako egiten dituela gauza txarrak. Ez, aita ez da gaiztoa. Baina aitak ez du beti edaten. Baina aita ez da gaiztoa. Baina beste pertsona bati min egiten badiozu gaiztoa izatea da, eta aitak amari min egiten dio, niri ere bai. Baina ez da aitaren errua. Baina... Baina zer! Nik ez dut ama gehiagotan negarrez ikusi nahi. Berak ez du merezi! Amak ez du ezer txarrik egin! Aita gaiztoa da! Bai! Nire aita gaiztoa da...”

Lurra gero eta hurbilago dago. Ezin atzera itzuli, ezta nahi ere. Begiak itxi dituzu. Bi negar tanta ageri dira. Amorrua. Ez duzu ezer gehiago pentsatu nahi. Orain aske sentitzen zara.

Baina sentimenduak zure buruan ari dira bueltaka eta beste eszena bat datorkizu burura. Telebista ikusten ari zara. Ama, beti bezala, sukaldean ari da jo eta ke. Pausuak. Tap, tap, tap...

Giltzak elkar jotzen ari dira, baina batek bakarrik lortzen du sarrailearen zulotik sartzea. Pausu arinak. Ama da. Zuregana dator presaka. Muxu goxo, esti eta bigun bat oparitzen dizu. Zuk irribarre egiten diozu eta berak itzuli egiten dizu.

–Ezkutatu zaitez, arin! Ez irten nik esan arte, ulertzen?

Zuk baiezkoa ematen diozu buruarekin. Beldurtuta zaude.

–Maite zaitut laztana.

Aita etxean dago jada. Zu atearen atzean zaude ezkutaturik. Belarriak eskuez tapatu eta begiak gogor itxi dituzu.

Aita zarataka hasi da. Pum! Lehenengo kolpea. Nahiz eta belarriak eskuekin tapatu guztia entzuten duzu. Ez duzu ezer entzun nahi. Eskolan ikasitako azken kanta abesten duzu. Berdin da, kolpeen soinuak hor daude. Baita jostorratz madarikatua ere. Baina zuk abesten jarraitzen duzu. Gero eta altuago, gero eta altuago, gero eta altuago...

Ez duzu ezer entzuten. Isildu egiten zara. Begi bat zabaltzen duzu. Arnasarik gabe gelditzen zara. Jostorratzak bere lana bukatu du. Zure bihotza mila zatitan dago. Ama lurrean botata dago. Bere begirada goibelak jostorratzari indar ikaragarria eman dio.

Aita arnasa hartzeko gelditu da. Izerdia kendu du kopetatik eta ekin!

Oraindik ez da gustura gelditu.

“Ez ahal du ikusten ama hil egingo duela!”

Ostikada bat, beste bat eta beste bat... Amak jada ez du oihurik egiten. Aitak bai orde. Oihuak eta oihuak eta oihuak...

“Ezin dut gehiago!”

(Isilunea)

Zure arnas larria besterik ez da entzuten. Zure eskua begiraten duzu. Begiak topera zabaldu dituzu. Aiztoa eskutik erori zaizu. Aita ere lurrera erori da. Bere odolak zure oin biluztuak ukitzen ditu. Suak bezala erretzen dizkizu oinak. Aitari begietara begiraten diozu. Gero amari. Amaren begirada noraezean galdurik dago. Gero leihoa. Zabalik dago. Leiho gainean zutik jartzen zara. Atzera azken begirada. Aurrera begiraten duzu, gero behera. Begiak itxi eta birritan pentsatu gabe, pausu bat aurrera.

[...]

Azkenean behera iritsi zara. Inurriak sentitzen dituzu zure gorputzetik gora eta behera. Zure buruaren barnean kolpe bortitz batzuk ikaragarri min egiten dizute. Gorputzeko beste atalak ez dituzu ia sentitzen. Momentu honetan zuretzat ez dira existitzen. Bakarrik burua. Pom! Pom! Pom!...

AAAAAAAHAH!!! Oihu bortitz egin duzu. Baina kolpeak ez dizu zure oihurik entzuten utzi.

Orduan, bizirik zaudela gogoratzen duzu.

Gutxika-gutxika kolpeen soinua baretzen doa, baina beste kolpe batzuk nabaritzen dituzu. Oraingo hauek bularretik datoz. Zure bihotza da. Jostorratz madarikatuak ez du nahi izan zure sufrimendua bukatzea. Hor dabil oraindik ere lanean.

Jada, buruko kolpeak bukatu egin dira eta gorputzaren atalak esnatzen hasi dira. Hankak, gerria, lepoa, besoak...

Begiak zabaltzen dituzu. Odola...

Odola kantitate handian. Odolaren atzean, kalea, jendea. Ez duzu lortzen ezer argi ikustea.

Entzumena. Oihuak. Jendearen oihuen artean, soinu ezagun bat. Anbulantziaren sirena alegia. Gorriz jantzitako gazte batzuk anbulantziaren barruan sartzen zaituzte kontu handiz. Konortea duzula ikusita, kontu handiz zauriak sendatzen hasi zaizkizu. Nola zauden galdetzen dizute, baina zuk ezin duzu erantzun. Ahotsa blokeaturik daukazu.

Halako batean norbaitek eskutik heldu dizu. Begirada zure eskua helduta duenarenenganantz daramazu.

Jostorratzak azkenean amaitu du bere zeregina.

Irribarre egiten duzu.

Ahotsa desblokeatzea lortu du pertsona horrek.

Ama!!



Sara Gallego Gonzalez - DBH. 4 maila

“Eskolan ere egunak ez dira beti berdinak”

NIRE LEHEN EGUNAK ESKOLAN

Lehenengo eguna:

Nire eguneroko maitea. Badakizu bihar eskolara hasiko naizela? Bai, hala behar. Bihar nire eskolako lehen eguna izango da baina urte hau ez da izango beste urteen modukoa. Ikastetxe berri batean hasiko dut aurtengo ikasturtea; 4DBH. Ez ditut ikusiko nire betiko lagunak eta oso triste nago. Baina hori ez da txarrena. Ez, ez; ez dut lagunik ikastetxe honetan; nola esan, ez dut lagunik. Badakit azkenean lagunak egingo ditudana baina lehen eguna gogorra izango da, jende guztiak pizti bitxitzat hartuko nau, ondo analizatuko naute eta euren begiak nigan jarriko dituzte; irakasle berberak baino interes handiagoa sortaraziko dut. Beti izaten da berdin gelara berriren bat etortzen denean. Beti berdin! Baina zergatik ni? Zer egin diot munduari nik hau merezitzeko? Zergatik ni? Zer egin diot munduari nik hau merezitzeko?

Ez dakit hau jasateko gai izango naizen. Ez dut ez lagunik ez inor ezagunik ikastetxe honetan. Inor ere ez. Ezin dut hori nire burutik kendu. Biharko eguna espero dut

Lehenengo eguna:

Nire egunereko maitea. Badakizu bihar ikastolara hasiko

*naizela? Bai, hala behar. Bihar nire eskolako lehen eguna
izango*

da haino urte hau ez da izango beste urteen modukoa.

Ikastetxe berri batean hasiko dut aurtengo ikasturtea;

4DBH.Ez ditut ikusiko nire betiko lagunak eta oso

triste nago. Baina hori ez da txarrena. Ez, ez, ez dut

lagunik ikastetxe

bertan nire lehen lagun berria egingo dudanaren itxaropenarekin; kurtso honetako nire lehen laguna. Eta nire betiko eskolan, iazkoan, hain lagun nituen haiek ez ditut gehiago ikusiko. Horrez gainera, ez nago nire betiko herrian. Ez, ez. Madrilén bizi gara orain; gurasoak, neba eta ni. Hemengo jende guztiak txarto begiratzen gaitu. Nik uste dut Euskal Herritik etorri garela eta gure beldur direla. Ez dakit barreari ala negarrari eman behar diodan.

Zer egingo dugu guk laurok honelako hiri handi batean? Badakit hemengoek zer uste duten, aparteko arraza garela eta indarkeriz baino ez dakigula jokatzén. Eta zer egin? Lotara noa biharkoa egun berria izango delako eta seguruenez gaurkoa baino hobeaz!

Agur nire maitetxoa.

Bigarren eguna

Gaurkoa nire bigarren eguna izan da. Klasearen erdian jarri naute mutil batekin. Ez dut gogoratzen bere izena baina badakit Londonetik etorri dena eta nire alboan jezarriko dena. “The Lord of The Ring”eko aktore baten izena dauka. A bai! Gogoratzen dut! Bere izena Dominic da. Dom lagunentzat (hori esan dit). Kasik ez daki Gaztelaniarik; hitz bakar batzuk besterik ez dakizki.

Ai zelako mutila den! Urre kolorea du bere ileak, eguzkia bailitzan, eta begiak urdin-urdinak ditu, guztiz liluragarriak. Ez dut ikusi inoiz horrelako begirik. Inoiz ez. Ralph Laurenen modeloa dirudi. Ezin dut sinetsi nire lehen egunean horrelako mutil bat ezagutu izana eta gainera ni bere lehen laguna izatea. Baina beste neska batzuk gudan beraien begiak jartzen ikusi ditut. Uste dut beraiek ere nahi dutela Dom ezagutu, beraiekin joan dadin eta ez nirekin. Oraindik ez dut inor gehiago ezagutu. Oraindik ez.

Gaur Madrileko zenbait toki bisitatuko ditut eta nire gurasoek Domen gurasoekin batera joatea pentsatu dute. Dom ere etorriko da! Bazenekien Domen aitak eta nireak lantegi berean egiten dutela lan? Aita bezain langilea bada salbaturik nago, batez ere matematika eta fisikako arloetan! Orain bai nahi dudala Madrilen geratu!

Ordua da. Joan beharra daukat. Agur ene eguneroko maitea.

Hirugarren eguna

Gogoratzen duzu atzo esan nizula Madrilen eguna pasatzera gindoazela? Zoragarria izan zen. Pradoko Museora sartu ginen eta han margolan ederrak aztertu genituen. Lastima nire margolaririk preziatuena ez egotea, Dali. Horren margolanek zoratzen naute; bere koadroak oso arraroak dira eta batzuetan irudipenak bat baino gehiago dira. Adibidez, emakumearena eta erlojuarena. Hori bai koadro polita dela! Lastima Pradoko Museoan ez egotea Daliren eskulanik edo koadrorik. Museoan egon ondoren, Domen gurasoen etxera joan ginen. Bertan ginela, gure gurasoak egongelara joan ziren eta Dom eta biok bere logelara. Han musika jarri genuen. Robbie Williamsena. Bion gustokoa da. Baina nik ez dut honen diskorik.

Gaur, ikastolan, pila bat lagun egin dut Domi esker. Orain badaukagu norekin irten zapatuetan. Uste nuena baino hobea izango da urte hau zeren hirugarren egunerako mutila aurkitzeaz gain lagun taldea ere badaukat Bost mutil eta bost neska gara baina ez gara denak gela berdinekoak. Beno. Ohera joan behar dut.

Laster arte nire maitetxo.



Imanol Elgezabal Garmendia - DBH 4. maila

"Lotan ere idatz daiteke"

SUAK JAN BARIK

Egia da azken hiru asteotako zurrumurrua. Diotenez, Bushek NBeko ikuskatzaileei, Irakera arma nuklearrik dagoen ala ez jakiteko doazenei, ordaindu egin die. Ordainketa erreza izan dela diote, ikuskatzaileak bertakoak baitira edo bertan bizi baitira.

Informazio hori konfidentziala da baina FBIko agente gorenekoei esan digute guran konfiantza dutelakoan baina, badirudi, konfiantza hori dudatakoa dela.

Ikuskatzaileekin batera joango naiz Irakera, baina turista izango naizelakoan. Lanean depresioa dudala esan diet eta opor batzuek lagunduko didatela; izan ere, duela sei hilabete neskalaguna galdu nuen auto istripu batean. Iraken ikuskatzaileak ikertuko ditut eta lortutako informazioaz, gure presidentea hiltzailea eta lapurra dela frogatu nahi dut espetxeratua izan dadin.

Hegazkinean nago, ezin izan dut besteen hegazkinean joan, bizkartzainez josia baitzegoen eta eurak baino beranduago helduko naizen arren, Iraken lagun bat dut eta hark lagundu egingo dit ikerkuntzan.

Irak ederra eta polita da. Basamortua izateko ez da lar beroa baina mendirik ezak, zabaltasun ikaragarri horrek beldurra ematen dit; noizbait beste herriren batera helduko ez naizen ustea baitut.

Hala ere, beldur honek ez du nire barnean dagoen su hori itzaliko, hori itzaltzeko posibilitate bakarra dakizuen gartzelan egotea litzateke eta horrela asetuta sentituko nintzateke.

Mahad, nire laguna, eta ni bertako zientzialari batzuekin egon gara eta esan digutenez, orain ez daukate arma nuklearrik. Zientzilariorik susmoak dituzte guda piztuko ez ote den baina barnean badakite orain edo beranduago egun hori iritsiko dela.

Martxoa. Borroka bihar piztuko da eta ni hemen nago, Iraken sartua. Ikerketa bukatua dut eta ikerkuntza hau munduari erakutsi nahi diot. Hala ere, orain guda kru-dela dela eta ezingo naiz hemendik irten eta beraz, hau bukatu arte hemen egongo naiz.

Hona petrolioia lapurtzera etorri direnek gogor ordaindu beharko dute eta hori lortzeko, egin dudan lan hau eta bertakoan iritziaz baliatuko naiz, bertakoak edozein erlijio eta taldetakoak izango direlarik.

Urtebete eta hiruzpalau hilabete daramatzat Iraken. Talde armatuekin, herritarrekin, aliatuak deiturikoekin eta beste hainbatekin egon naiz; tartean Sadamen zinegotzi batzuekin.

Bertako egoera ifernukoa bezalakoa da. Kontuz-kontuz ibili behar zara kalean, edozein momentutan hil baitzaitzakete. Hala ere, ematen du bertakoak honetara ohituta daudela, ohitura bat bihurtu dela.

Gaur, hiritik ibilaldi bat egiten ari nintzela, atzo zutik zegoen etxe bat erorita ikusi dut. Ez da ezer berezitik izan garai honetan baina lurlean, orri batzuk ikusi ditut, gehienak erreta zeuden baina zenbaitek suari ihes egin diote. Horiek hartu eta hotelera ekarri ditut. Irakurri ditudanetatik jakin dut eguneroko bat izan zela noizbait; Irakiar gazte batena. Bikainak iruditzen zaizkit orrialdeak eta eguneroko honetan idaztea pentsatu dut, inoiz ez ahazteko.

“Martxoa, gaua. Estatubatuarren hegazkinek ez naute lo egiten uzten beraien zarata jasangaitza baita. Etxean ez daukagu ez janik, ez argirik eta ur eskasia gero eta handiagoa da; janaria ur gabe prestatu behar dugu.

Tripako mina dut, min izugarria, uraren errua dela uste dut. Ura zikin dagoen susmoa daukat; badakit egia dela baina ez daukagu beste urik, etxe ondoko putzua lehor baitago eta hartzen dugun ura petrolioia garraiatzen duen hobi batetik metro eskasera dago. Putzuko urak ur beltza iduri baina zer egingo diogu ba; mundu honetan diruak asko bermatzen du eta hori gutxi duenak, duenarekin konformatu behar edo bestela hor konpon.

Hau guri gertatzen zaiguna da. Mapetan zentimetro batzuk beherago aurkitu arren, zentimetro horiek kilometroak dirudite diru kontuan; ez baitaukagu ezer. Hori gutxi balitz orain putreek gure bizimodu bakarra, petrolioia, ostu nahi digute. Bizimodua hobetuko digutelakotan sartu dira eta irteterakoan ez dira kartzelara joango. Ez nago esaten Sadamekin guztiok pozik bizi izan ginenik eta denon egoera berdina zenik baina gure herria azkenaldian jasaten hasi den aldaketak beste modu batean egin behar dira, modu hau guretzat eta putreentzat desegokia baita.

Uztaila. Ama hil egin da. Bart gauean liskaraldiak izan ziren gure auzoan estatubatuarren eta talde armatuen artean. Bat-batean, ametrailadora baten disparoak gure etxea aurkitu eta baletako batek ama garbitu zuen.

Zorigaitzak gure etxea aurkitu du eta hori gutxi balitz aita preso hartu dute, ustez talde armatuei laguntza emateagatik. Akaso delinkuentea ote da zauria duenari laguntza ematen diona? Mundua ustelduta dago eta guk pairatzen ditugu hori usteltzen ari direnen ondorioak.

Martxoa. Urtebete pasa da gerra piztu zenetik eta ez daukagu aitaren berririk. Gure susmoak aita hil egin zutela dira baina oraindik ez dugu itxaropena galduko. Ez harik eta berri lazgarri bat jasotzen ez dugun bitartean behintzat.

Neba-arrebak gara familiaren euskarri eta bakoitzak eguneko hogeita lau orduak ematen ditugu lanean, soldata urri baina nahitaezko bat lortzearren, guztiok elikatzeko. Amonak zaintzen ditu txikienak besteok lanean jarduten dugun bitartean.

Apirila. Esfortzu luze baten ondoren suhiltzaile postua lortu dut. Nekeza da lanbidea baina bizi garen denboraldi honetan suteak anitzak dira eta lan asko dago egiteko. Diru gehiago irabazten dut, ez askoz gehiago baina orain lortzen dugunarekin neba-arrebak txikienak eskolara joatea lortu dugu; beraiek guk galarazita izan dugun hezkuntza jaso dezaten eta nagusitan lanpostu ona izan dezaten. Astelehenean lagunduko diegu eskolara eta hortik aurrera nik lagunduko diet, lanerako bidean baitago eskola.

Maiatza. Benetan egun tristea. Eskolara gindoazela kanpotarren eta talde armatuen arteko tiroteoa baten erdian aurkitu gara. Bala bat nire ezkerreko birikia zulatzekotan izan da baina ezin izan du, saihesten hezurrek bidea oztopatu diote eta. Ia konortea galtzeaz nengoela, anaia eta arreba amarengana joaten ikusi ditut, zorura zerraldo erori ostean eta nik ezin izan dut ezer egin bidaia atzeratzeko. Begien aurrean ikusi ditut biak, zoruan etzanda ni bezala, irribarretsu baina begiak itxita, beraien odol garbia nigana nola iristen zen ikusiz.

Ospitalean esnatu naiz, momia bat izango bainintzan eta gertatutakoa kontatzeko eskatu didatenean ezin izan diet malkoei eutsi eta hauek begiak zikindu dizkirate.

Amorru bizian irten naiz ospitaletik, zerbait gehiago egin nezakeelako baina ez dudalako egin; aitari eginiko promesa hautsi dut; ezin izan ditut denak berak esan bezala zaindu.

Liskarraldiek gure auzoa aurkitu dute berriz eta etxe batzuk behera erori dira. Orain, gauean, zarata ez da goizekoa bezain jasangaitza; esan dezaket azkenaldian izan dugun gaurik onenetarikoa dela lo egiteko. Hala ere, bularreko mina pairatzeko hartzen ditudan sasisendagaiek ez naute lo egiten uzten gau zoragarri honetan. Zelako zortea duan!

Gaur mezkitora joan naiz eta otoitz egin ondoren zin egin dut Meka hiri santura joango naizela erromesaldi handia iritsitakoan; datorren urtarrilean.

Sunien jaiegun bezpera. Biharko zain gaude guztiok, festa handirako. Beldur gara atentaturik egongo ote den baina egonagatik ere biharko egunaz disfrutatzen saiatuko gara.

Gauerdia. Tropa amerikar eta ingeles bat auzoan ezkutatutako talde miliziano baten aurka dabilta. Beldur gara hilko ez ote garen.

Gaueko ordu biak dira orain eta sutea hasi da eraikinean, baina gu ezin gara irten bestela kanpotarrek etsaitzat hartuko gaituzte gu fusilatuz. Heriotza gure etxera etorri da oraingoan ere, bere jantzi ilunaz kodaina guztiz zorrozuta dakar oraingoan, guztiok berarekin eramateko asmoa duelako.

Azken minutuak. Sua logeletan barrena hedatu da eta guztiok egongelan gaude azken otoitza egiten. Alak hurrengo bizitzan berarekin har gaitzan nahi dugu. Ez naiz oso fededuna, besteak ez bezala, baina momentu honetan otoitz egitea besterik ez dut zortea aurkitu eta Alarekin joateko. Ez dut uste zorte izugarria aurkitu eta honetatik bizi-rik aterako naizenik. Espero dut gerra hasi zenetik idazten aritu naizen egunerokoa norbaitek aurkitzea, irakurtzea eta mundu guztiari esatea Irakiarron egungo egoera zein den. Nire bizitzako azken nahia da suak ez dezala gaur gurera gonbidapenik gabe etorri den gose ikaragarri horrekin nire egunerokoa jan.”





Alejandra Loizaga Aboitiz - DBH 4. maila

"Irakurtzea eta musika entzutea gogoko ditut"

MAITASUN ISTORIO BAT

Bakarrik sentitzen naiz, oso. Kartzelako gela txiki eta ilun honetan nire begiradak pareta gogor eta mugiezin batzuk baino ez ditu ikusten. Leiho estu bat ere badago, bai, baina orain ez daukat bere aurka borrokatzeko indarririk. Hasieran, nire pentsaerak libre uzten nituen zirrikitu bat bezala ikusten nuen leiho hori, preso nengoela ahaztarazten zidan itxaropen bakarra. Leihoaren beste aldean, edozein pertsonak bizi ahal izateko, beharrezkoak dituen amets eta ilusioak kokatzen nituen. Kasu honetan nire ametsak ziren, ez beste edozein pertsonarenak, nire indar guztiekin desio nituenak.

Alima, nire hitz bakarra, jakituria, inteligentzia, sentsualitatea, perfekzioa deskribatzeko. Elkar maite genuen bi emakume ginen, eta erlazio hori zen, hain zuzen, kartzelatik kanpo kokatzen nuen ilusioen abiapuntua.

Oraindik ere ametsezko mundura eramaten nau Alimaren gogoetak. Aurpegi boro-bila zeukan, beltzarana eta inoiz ez apaindu gabea. Masaila haragitsuak, begi sakonak, nabarrak. Urrunetik begiratzuz gero, ez zitzaizkion niniak bereizten; oparitu zizkidan

musu ezti horien hurbiltasunetik, berriz, distirak salatzen zituen. Sudurra eta belarriak txikiak ziren. Alderantziz gertatzen zen ahoarekin. Hura zen nire zoramena, hitz eta musuen ataria. Hortz zuri-zuriak zituen, eta txikitan eramandako hortz zuzentzaileak ematen dituen emaitzetatik urrun. Naturalak, benetakoak. Inguruan, ezpain busti baina batez ere erakargarriak. Ez estuak ezta lodiak ere, neurri justuan. Gorriak, hori bai. Alimaren ezpainak deskribatzerakoan, orain goizetan ematen ez dizkidan musuak ditut gogoan.

Arabiarra zen, hamalau urtetatik atzerrian bizi arren, sustraiak ahaztu ez zituen arabiarra. Pertsonalitate gogorrekoa. Irribarre gozo baten atzean, seriotasuna nagusi zuen Alimak. Ezinbesteko hitzak baino ez zituen esaten, gainontzekook hainbeste beldur diogun isiltasunari aspaldi aurre hartuta. Hitz soil bat esan gabe igarotzen genituen gaueko ordu laburrak, berriro ere bata bestearen gorputzaren jabe bihurtu arteko momentuak. Amodioa egiten genuen bakoitzean, bere gorputzeko atal guztiak laztantzen nituen, zuhurki, portzelanazko panpinak bezala apurtuko ote zen beldurrez. Pentsamenduek beste dimentsio batetara ihes egiten zidaten, errealtateak eta desioak bat egiten duten lekuraino. Sabeleko dantza egiten ari zela imajinatzen nuen. Mugimendu suabe eta geldoz, nire barrenaz jabetzen zen legez. Musika lasai baten erritmoa jarraituz, alde batera eta bestera, gorputzeko atal sekretuenak zetazko zapi gorri batekin estaliz.

Espetxean, gizakion bizian gertatzen den modu-modura, lehendabiziko urteak izaten dira ilusioz betetakoak, dena ondo bukatuko dela itxaron dezakezunean. Haur txiki eta mokotiek dena negarrez konpontzen duten bezala, zure burua preso, askatasunik gabe, ikusten duzun lehen urteetan, ahul sentitzen zara, babes gabe, haur bat ikastolara iristen den lehen egunean sentitzen den antzera. Iritsi berria izateak ez ditu arazoak arintzen, eta are gutxiago, ni bezalako arrazoiengatik kartzelaratzen duten preso baten-tzat.

Irailaren erdi inguruko egun batean hasi ziren arazoak, 17an oker ez banago. Izututa nengoen, beldurra, kontzientzia lasai uzten ez dizun sentimendu bortitza. Horrek ez du ezertarako balio, ordea. Koldarkeriak alde batera utzi, eta aurrera jarraitu beharra dago. Gainera, alde aurretik hamaika bira emandako eginkizun bat betetzeko geunden Joxe eta biok han. Ekintza arrunta baina konplikatua era berean. Autoan joango ginen bertaraino, leherkaria komisariako atarian utzi eta kito! Ez zegoen besterik!

Goiz iluna zen Hernaniko herrian. Iritsi, leherkaria kokatu, ihes atera, tiroak, tiroketa, tiroak! Tiroketa hotza izan zen, bat batekoa! Tiro egin eta akabo! Ni bakarrik nengoen etsaiaren kontra; bere izterrean zeukan metalezko etsai txikiak jan zuen Joxe. Bakarrik nengoen, bakarrik sentitzen nintzen oso. Ihes egiten saiatu nintzen, bai, baina arranoak sagu txikia harrapatu egin zuen. Nire aurrean ikusi nituen begi urdin haiek izugarrizko gorrotoa oparitu zidaten, bere kideetariko bat nik hil nuela gogoratuz. Muturreko indarkeria batekin atxilotu ninduen arren, bere aurpegian zeuden bi itsaso haietatik bi malko hotz eta mingarrik ihes egin zutela ikusi ahal izan nuen. Momentu hartan ez neukan umekierientzako denborarik ordea, nire komediak gehiago arduratzen ninduen. Arranoaren atzapar gogorren artean, ez nintzen ezer. Euskal basoetan sagu bat

gutxiago baino ez. Etsaiak senti zezakeen hutsune berbera sortu zidan niri Joxeren heriotzak. Desberdintasuna, egoera gainditzeko izango genituen baldintzetan zegoen, adiskidetasuna bakardadearen aurka, ama baten besarkada ezerezaren kontra. Espetxera nindoan eta han dena desberdina zela nekien.

Orain hemen nago, kartzelan, egindako burugabekeria zahartzaroa iritsi arte ordaintzen.

Eguneroko bizitza ez da batere erreza lau pareta hauen artean. Bakoitzak bere denbora-pasak aukeratzen ditu eta apurka-apurka egoerara moldatzen da. Nire kasuan, urrurago joan gabe, pintura lanetan murgildu dut ikasketetarako balio ez duen burutxo hau. Hain zuzen, joan den astean bukatu nuen margolan bat dut paretaren erdi erdian zintzilik. Txikitatik gustatu izan zait margotzea. Aitonaren bibote beltza eta begirada zorrotza are zitalago margotzen omen nituen. Bai eta amonaren zapi zuria, zimurduraz inguraturako begi zuloen gainetik, noizbait izandako emakume lirainaren arrastoak ahaztuta. Gogoratzen dut, neskatoa nintzenean, nola sentitzen nintzen margolan bat hasten nuen bakoitzean. Milaka ideia eta gogoeta etortzen zitzaizkidan burura eta irudimenak etengaldirik gabe lan egiteko gai diren makina horietako bat ematen zuen. Bazegoen, halaber, zerbait berezia hainbeste ilusioz hasitako pintura guzti haietan. Guztiek islatzen zuten bitxikeriaren bat, bizitzako une jakin batean izandako sentimenduen delako grina hori. Momentuan momentukoa bizi duen neskatar baten eguneroko perfektua zen niretzako paper xafila hori, giltzarrapo batez itxitako liburuxka baten sinpletasunetik urrun. Gorritik hasi, arrosatik igaro, eta berdearekin bukatuz, barren barreneko sentimenduak kanporatzeko gai den neskatar baten bizipozaren, baina batez ere askatasunaren adierazle. Aitzitik, gaur egun ezer ez da hain erraza.

Nire margolanek ez dute behinolako bizitasun berbera. Aiton amonaren irudi nostalgikoek aspaldi zarratu zizkidaten ateak, eta grisaren eta marroiaren arteko kolore hotz batek lapurtu dio lekua berde itxaropentsuari. Paretara begira dihardut oraindik. Arantxa, presondegiko kide bat, margotu nuen paper zatira. Orain dela asko zuria izan zen kamiseta bat darama, galtza bakeroak eta oinetako beltzak. Eskuetan, liburu lodikote bat du, bizia bertan joango balitzaio bezala irakurtzen duena. Pixka bat gorago, besoaren erdi inguruan, konkretuki, orbain itsusi eta desatsegin bat dauka. Kartzelan egoteak ez dio gauero-gauero zauri hori nabarmenago bihurtzea galarazi; erraztu egin diola esatera ere ausartuko nintzateke. Modu batera edo bestera, aitoritutako gaizkile baten eskutik, edo semeari bizikleta berri bat erosteko asmoz, droga saltzen zuen polizia ohoretsu bati eskerrak, inoiz ez zuen bere bizitzaren erregai kutsakor bilakatu zen heroina faltarik sumatu. Eta egia da baita, bere etsipena margotuz, baitako porrotak gutxien zituena margolari zaputuz bat ere ez zuela inoiz faltan bota; ordurako, denbora bezalako etsai gogor bati aurre egiteko soilik margotzen zuena.

Lehen esan dudana erara, kartzelan igaro dezakegun denbora, beste edozein pertsonaren bizitzarekin konpara daiteke. Orain dela urte batzuk, kartzelan bizitzea tokatu zitzaidan, niri ere. Hemendik kanpo, garai zail eta korapilatsua iruditzen bazitzaidan, ikuspuntu honetatik, oraindik ere gogaikarriagoa zela baieztatu nuen. Nerabezaroak,

inguruko bazter, pertsona, sentimendu eta hesi guztiekiko gorrotoa ekarri zidan eskutik oratuta. Hori da hitza, gorrotoa. Mundua nire aurka zegoela sentitzen nuen, gartzelan egotearen arrazoi bakarra bidegabekoa zela.

Halaber, beste edozein gatzetxori gerta lekioken bezalaxe, inoiz baino gehiago menperatzen ninduen desioak. Desio primitiboak, animalien legekoak. Une latzak bizi izan nituen ditzosozko sexu grina zela eta ez zela; eta orain ulertzen dut, muturreko egoera batean, giza banakoa edozer egiteko gai dela.

Igande gaua zen, ziur nago. Kartzelako zaindarien beraien atletikok sartutako golak ospatzen zituzten asteko egun bakarra zen igandea. Ospakizun haiek ziren nire denboraren ardatza eta aste bat gehiago, edo gutxiago, norberak duen baikortasunaren arabera noski, igaro zela adierazten zidaten erlojuaren orratzek.

Igande hura, ez zen ordea, futbol egun bat soilik izan. Kartzelan egin dudana denbora guztian, neure buruak nazka eman didan egun gutxienetarikoa bat baizik. Amodioa modu zikin eta deseroso batean ezagutu nuen, bi gorpu maitasunean urtu orde, berekoi eta baldar azaltzen ziren, bakoitzak bere nahia soilik betetzeko asmoarekin. Oso desatsegina iruditu zitzaidan, baina behar bada lehen aipatutako gutziaren agindupean, neuk ere gauza bera egiteari ekin nion. Lizun sentitzen nintzen. Nire aurrean zegoen emakume gaixoarekiko atsekabea eta nahigabea nabaritzen nituen kontzientziaren bazterren batean. Hala ere, kartzelako norberekeria nitaz jabetu zen eta emakumearen malkoak lurrintzen ziren bitartean, nik ez nuen ezer egiten egoera galarazteko.

Hain izan zen desberdina gau hura, Alimarekin pasa nituenekin konparatuz gero. Hala, denbora pasa bitartean, kartzelako zahartzaroa bizi izan nuen; margolaneko aiton-amonen moduan, Alima besotik hartu eta bizitzaren azken pausu gozoak emango nituela itxaroten nuen unea. Zaila da kartzelan itxaropen hitzaz jardutea; hainbeste ezbeharren artean murgildutako burua atera, eta aire berria arnastea. Gau hartan, aldiz, baneukan oxigeno tuturik nik neuk ere, giltzapetik ateratzeko kasu hipotetikoan, bizia emango zidan emakumea hain zuzen. Loak hartu ninduen. Ametsek errealitatearen aurpegi neketsuena mozorrotzen zuten bitartean, nire pentsamenduak sabeleko dantza samur bihurtu ziren.



Iomara Renteria Muniategi - Batxilergoa 1. maila

“Natxituako kostaldeko Lapatzan musika entzutea zoragarria da”

ASKATASUN HAIZEAK

Begiak ireki ditut, “hau da dudana nagia, (aaaaaiiii!!!!) altxatu beharko da ohetik (aaaaaiiii!!!!)”. Leihotik, pertsianaren zulotxoetatik argi izpiak sartzen dira eta begira nago. Altxatu eta banoa pertsiana igotzera. Igo dut pertsiana eta begiak itxi egin behar izan ditut, eguzkiak aurpegian zuzen zuzenean jo nauenean. Egunero bezala jantzi naiz eta beherantz noa gosaria jateko asmoz. Sukaldetik usain gozosa dator, “tostadak direla uste dut, gaur emaztea lehenago altxatu da gosaria prestatzeko antza”. “Bai bera da” atzetik hurbildu eta txantxetan ikaratzan saiatu naiz, baina ikusi egin nau, musu bat eman diot masailetan, berak irribarre goxo bat itzuli dit. Eseri naiz mahaian eta hasi naiz gosaltzen, “ez dut lanera joateko gogorik”. Altxatu naiz mahaitik eta hartu dut ate atzean dudana txapela. Atea irekitzera joan naiz eta bat-batean norbaitek heldu dit atzetik. Ene alaba izan da, jaso, besarkatu eta arropa jantzi eta txintxo-txintxo portatzeko esan diot. Utzi dut lurrian, korrika joan da amarengana.

“Beno banoa, agur gero arte”, ireki dut atea eta bat-batean lau polizi ikusi ditut etxe aurrean, “zer egiten dute hauek nire etxe aurrean? Zer egin behar dut orain?”

“¿Es usted Aitor Urrutia?” –Galdetu didate. Nik buruarekin baietz esan diet harri-duraz.

“Tiene que acompañarnos!” –Esan dit bibotedun gizonak eta eskuburdinak jarri dizkit jarraian.

Emaztea eta alaba etxeko sukaldetik daude negarrez niri begira, ez dut nahi hau izatea beraiek nitaz gogoratuko duten azken irudia. Negar malkoak masailetan behera doazkit. “Amets gaiztoa izango da, egon lasai lo zaude eta”, baina ez, ez da ametsa. Bibotedunak ukabilez aurpegian jo bezain laster konturatu naiz erratuta nagoela.

*
**

Denbora asko igaro da egun hartatik eta harrezkero hemen nago, ziega ilun honetan, denbora aurrera nola doan sentitzen dudana bitartean. Egunak, aurreko leiho horretatik sartzen diren argi izpietan flotatzen duten hauts eta ileei begira ematen ditut. Hauxe da nire mundua orain dela lau urtetik, hauexek orain dela lau urtetik ikusten ditudan paretak. Eta dena askatasunaren alde borrokan egiteagatik, ez nuen inor hil, baina hemen nago argi izpiei begira.

Egunak aurrerantz doaz, haizea joan eta badator, jendea joan eta badoa, baina ni hemen nago argi izpiei begira. Alboko geletan izan ditudan lagunak joan eta etorri dira, gelazainak ere joan eta etorri dira, baina ni hemen nago, orain dela lau urtetik ikusten ditudan lau orma hauen artean, leihotik sartzen diren argi izpiei begira.

Gau ilun batean, gelako barroteen aurka jotzen duen makila batek esnatu ninduen, zarata gero eta hurbilago zegoen, gero eta argiago zen. “Oh ez, nire bila datoz, berriro ez mesedez!!” Oihu egiteko gogoia izan nuen, negar egiteko gogoia izan nuen, gorrotoa sentitu nuen, mina sentitu nuen, baina horren ordeaz ohean eseri eta erne jarri nintzen. Makilaren zarata gero eta hurbilago zegoen, gero eta handiagoa zen, begiak itxi nituen eta ukabilak gogortu, baina ez zen inor nire gelan sartu. Zarata urruntzen zihoan berriz, “gaur libratu naiz”, lasaitu, ohean etzan eta begiak itxi nituen, ea lo hartu eta biharko eguna iristeko itxaropenez.

Bart gauean, txoria nintzela amets egin dut, Aizkorri, Oiz eta beste hainbat mendi gainetik hegan pasatzen nituela amets egin dut, haizeak aurpegian jotzen nauen bitartean. Urdaibaiko Erreserbaren gainetik ibili naiz ilun abarrean Mundakako olatuak miretsiz. Hurrengo goizean hegan jarraitu dut eta urrunean zerbaitek dir-dir egiten duela ikusi dut. Zer zen jakin nahian hurbildu egin naiz, nahiz eta ene barneko ahots batek ez hurbiltzeko esan ezin izan diot jakinminari eutsi. Ia-ia argia ikusi izan dudana tokiraino iritsi naiz, ahotsa gero eta ozenago entzuten dut baina nik ez diot jaramonik ere egin. Argiaren tokian izan naizenean zarata entzun dut, oso zarata gogorra eta norbait ikusi dut, “gizon hori nire ziegazaina da”, bizkorrago hegan egin nahi dut, altuago, ihes egin ahal izateko. Baina bat-batean beste hots bat entzun da, gogorra hau ere eta mina nabaritu dut gorputz osoan. Zer da hau? “Ez dut ezer ikusten, ezin dut hegan egin!” Begiak ireki nahi ditut, hegoak mugitu nahi ditut, baina ezin izan dut ezer egin. Begiak pixka bat ireki ditut eta gizon bat ikusi dut irribarre maltzurrez, lurra gero eta hurbilago dago, bat-batean izerdi patsetan esnatu naiz, bihotzaren taupadak bizkor, oso bizkor izan ditut,

lasaitzen saiatu naiz. Pixka bat baretu da nire barrua azkenean, berriz ere argi izpiak sartzen dira leihotik beste egun bat iritsi da berriro.

Goiza da eta nire gelako atean dagoen marraskiloari begira nago. Neure buruari galdera egiten hasi naiz. “Zenbat denbora egon beharko naiz hemen nire familia besarkatu gabe? Zenbat denbora nire lagunak ikusi gabe? Zenbat denbora nire emaztea musukatu gabe?” Derrepentean berari galdetu izango banio bezala, marraskiloa mugitzen hasi da, bere oinatza gero eta luzeagoa da eta luzeagoa eta luzeagoa... eta azkenean paretan dagoen zulo txiki batera sartu da. Marraskiloak atzetik utzitako aztarna zuriska pixkanaka-pixkanaka ezabatuz doa, nik munduan utzitako oinazearen antzera.

Bi egun beranduago, marraskiloa zulotik ez dela irteten ikusita, eskua sartu dut harri bitarte horretan eta marraskiloaren oskol hutsa besterik ez dut atera.

Negua iritsi da azkenik “hau bai hotza!”. Ez dakit gaua den edo eguna iritsi den oraindik, dena ilun baitago. “Ziega hau oso hotza eta oso iluna da”. Bat-batean tximista baten argiak dena argitu du eta trumoi izugarri bat ondoren. “honek ez du itxura onik” pentsatu dut. Pausuak datoz, ez dator betiko gelazaina bakarrik, oraingoan gehiago datoz. Nire gelan sartu dira, batek ostikada bat eman eta altxatzeko esan dit eta hala egin dut. Eskuak eskuburdinez loturik jarri dizkirate eta buruan oihalezko poltsa bat. Banaramate nire zeldatik at, “hau da beldurra!, nora ote naramate?” Sartu naute autoan, bidaia oso luzea da eta euriaren hotsa oso monotonoa, lozorroan egin dut bidaia osoa.

Itzartu naiz, autotik atera eta eskailera batzuetan gora eraman naute, jendearen zarata entzun dut. “Zer da hau?” Eseri naute aulki batean eta buruko poltsa kendu. Orduan konturatu naiz nire epaiketaren eguna dela eta kirioak dantzan jarri zaizkit. Atzera begiratu dut eta nire emazte, familia eta lagunak, denak ikusi ditut negarrez eta nik irri egin diet. Ez da izan luzea epaiketa dena arin erabaki dute. Azkenean zutitzeko esan du epaileak eta hala egin dugu. Sententzia ematen zihoala begietara begiratu diot eta nolabaiteko plazerra sentitzen duela sentitu dut. “ERRUDUN!” esan du denek entzuteko bezain ozen, hitz horren soinu bakoitza eskopetaren tiroak bailiran sartu dira ene barnean.

Arnasa hartzea kostatzen zait eta bihotzetik esker eskurantz min sendo bat doala konturatu naiz. Oinek huts egin didate eta lurrera erortzeko zorian egon naiz eta begiak itxi ditut. Ezin ditut begiak ireki, ezin ditut hankak ez eskuak mugitu, eta mina gorputz guztirantz barreiatzen doa. Nire bihotzeko jendea negar zotinka entzun dut, nire amaren negar isila nabaritu dut ozen nire barruan. Azken ahalegin batean, begiak ireki ditut eta epailearen begirada gogorra ikusi dut neure aurrean. Negar ez egiteko esan nahi diet, lasai egoteko ondo egongo naizela, baina horren orde z saminez betetako irri triste bat atera zait soilik. Begiak itxi zaizkit berriro. Ezin izan dut gehiago.

Berriz ekarri naute hona. Nire gelako leihoan nago, eta hegoak ditut, “badakit, hesiaren gainetik hegan egingo dudala, hor noa.” Hegan noa patioaren gainetik askatasun haizeak aurpegian jotzen dit, askatasun sentimenduak gorputza zimurkatzen dit, gorputz osora oilo ipurdia hedatuaz. “Azkenean, hor dago hesia” eta hesi atzean dena da berdea, dena argia, oso argitsua. Ez daukat beldurrik, ez daukat minik.” Txoria izan al nintzen beti? Ametsa soilik izango ote da? Ez dakit, baina hesia zeharkatzera noa. Zeharkatu dut hesia. Haize freskoak aurpegian jotzen nau... Hauek dira askatasun haizeak.



Pello Bilbao L. de Armentia - Batxilergo 1. maila

“Itsasoan bilatzen dut idazteko behar ditudan hitzak”

ITSASOAREN ESKUETAN

Udazkeneko egun goibel horietakoa zen. Ipar haizeak bortizki astintzen zituen zuhaitzak, eta laino geruza sendoak estaltzen zuen zerua, lurra ilunpetan utziz.

Egunsentiarekin batera atera nintzen etxetik, kostaldera bidean. Errepideak hutsik zeuden eta nire autoaren zaratak apurtzen zuen egunsentiko lasaitasun eta pakea. Lasaitasunaren ondorioz loak ez hartzeko asmotan, irratia piztu nuen.

“Egun osoan zehar zerua lainoturik izango dugu eta kostaldean prezipitazioren bat edo beste bota dezake. Temperatura atseginak izango ditugu, Euskal Herri osoan ez da espero tenperaturak hamabost gradutik jaistea. Haizeak iparretik joko du, zazpiko indarrez eta zortziko ufadaren batekin, honek lehenengo hogeitaz miletan lau bost metroko olatuak altxaraziko ditu. Itsasora ateratzekotan zaudeteno portuan geratzeko gomendioa ematen dizuegu.”

Nire metereologo senak ez zuen hutsik egin egun hartan ere, ilargiaren egoerak eta ipar haize indartsuak olatu politak altxatu behar zituen Bizkaiko kostaldean.

Pentsamendu sakonetan murgildurik nindoala danbateko batek nire senetik atera ninduen. Olatuen hotsa zen eta bidean aurrera nindoala, gehitzen zihoan. Hondartzatik gero eta hurbilago nengoen. Zarata entzun bezain laster zirrara sentitu nuen eta hotzikara batek nire gorputza zeharkatu zuen.

Itsasoak, milaka urtetan zehar, lurraren aurkako borrokan lortutako txoko zoragarria zen hondartza hura. Amildegiz inguraturiko gotorleku naturala. Landarez beteriko dunak atzekaldean eta eskuinetara, haitz zorrotzek osaturiko ilara bat lurretik itsasoan barneratzen zena. Olatuak, surflari guztiok desio ditugun modukoak ziren, luzeak eta indartsuak.

Hondartzara heldu eta guztiz harriturik gelditu nintzen. Ia ez zen hondarrik bistan gelditzen, olatuek estaltzen baitzuten. Ez zegoen inor, ez uretan ezta kanpoan ere. Nire bizitzan ikusitako olaturik handi eta indartsuenak ziren. Sentsazio arraro bat sentitu nuen egoera ikusita, olatutzar haiek harrapatzeko gogo eta amorru bizia nuen baina bost metroko mendi haiek apurtzean ateratzen zuten burrunbadak oilo okela piztu zidaten. Esperientzia handiko surflaria nintzen arren, errespetua nion itsasoari.

Azkenik, gogoak beldurrari irabazi eta itsasoan barneratzeko erabakia hartu nuen. Surf ohola autotik atera eta neoprenoa jantzi nuen. Hondartzan gelditzen zen harea esparru txikian eseri nintzen uretan sartu aurretik, itsasoaren egoera aztertzen. Itsasoaren atsedena aprobe txatu behar nuen olatuak sortzen ziren muturreraino iritsi ahal izateko.

Izugarrizko olatu bik nire muturren aurrean apurtu ondoren, nolabaiteko lasaitasuna nabaritu nuen eta denborarik galdu gabe bete betean sartu nintzen deabruaren ahoan. Hasieran olatuen hondakinak baino ez nituen saihestu behar baina itsasoan barrurago nindoan heinean, olatuak gero eta zakarrago astintzen ninduten eta ni paper bat haize zurrumbiloaren erdian bezala sentitzen nintzen. Aurrera egitea oso zail egiten zitzaidan zeren eta apur bat aurreratzen nuen bakoitzean olatuek hondartzarantz bidaltzen ninduten gupidarik gabe. Olatuen azpitik taularekin batera igarotzen saiatzen nintzen arren, beraien jostailua banintz bezala eramaten ninduten alde batetik bestera. Heltzeko gutxi falta zitzaidala, nigandik hogeit bat metrotara sekulako pareta altxatzen ari zela ohartu nintzen eta denbora gutxiren buruan, nire gainean apurtuko zela. Momentu hartan damutu nintzen egindako hanka sartzear. Berehala hasi nintzen olatuarenganantz igerian, marrazo bat atzetik izango banu bezala. Olatua apurtzeko zorian zegoen eta ni arnasestuka nindoan, besoak uretan sartu eta atera ahala, behin eta berriz, olatuari begiratzeko burua altxatuz. Apurtzeko zorian zegoen, bits pixka bat ere bazuen, makurtzen hasia zen jada, azken unea, ozta-ozta, gainetik igaro nuenean. Hura izan zen hartu nuen lasaitua olatuaren gailurra harrapatu nuenean. Olatu hark irentsi izan banindu berarekin eramango nindukeen eta urpean milaka buelta emango nituzkeen indarra galdu arte, beharbada beranduegi izan zitekeen.

Momentu larri hura igaro nuenean, ez nuen besterik buruan, berehala irten behar nuen bertatik. Olatu bati itxaron behar nion berriro itsasbazterrera bueltatzeko. Olatu polit bat zetorren niganantz eta nik ez nuen aukera galdu, indarrez besoak astindu eta olatuak tira egiten zidala nabaritu nuenean, oholaren gainean zutik jarri nintzen. Olatu bikaina zen, olatuan gora eta behera mugimendu zoragarria egin nuen. Halako batean

konturatu nintzen urez inguraturik nengoela. Olatua nire gainetik apurtu zen baina ni olatuaren hodian sartu nintzen. Irteera gero eta urrutiago gelditzen zitzaidan baina azkenean, olatuak bufada batekin atera ninduen kanpora. Gutxitan izan dut olatuaren barruan sartzeko aukera eta segundu gutxitako esperientzia izan zen harren, zoragarria izan zen. Olatuarekin bat eginda sentitu nintzen une hartan.

Ia itsasertzean nengoen baina azkeneko olatuari esker edo olatuaren erruz, lehenago pasaturiko estualdia ahaztu eta beste bat harrapatzea erabaki nuen. Olatuen aurka borrokatuz egiten nuen aurrera, gutxika-gutxika eta pazientzia handiz. Olatuen bitsa hurbiltzen zitzaidanean, ohola urperantz bultzatu eta gogor helduz, azpitik igarotzen nintzen.

Apurtu gabe zetorren olatu bat gainetik igaro nuen eta begirada aurrerantz zuzendu nuenean, bihotza ere gelditu zitzaidan. Sekulakoa zetorkidan gainera eta oraingoan ez nuen saihesteko aukerarik zeren eta nigandik distantzia gutxitara apurtu baitzen. Ni baino hiru lau aldiz handiagoa zen bits mendiak irentsiko ninduen, beste erremediorik gabe. Olatua ia gainean nuen unean ohola ur gainean utzita, ahalik eta sakonen urperatzen saiatu nintzen. Alferrik suertatu zen, ordea, nire ahalegina, sekulako burrundada nabaritu nuen eta gorputzak astinaldi bortitza jasan zuen, taularen sokak oina bere tokitik ateratzeko moduko tirekada eman zidan. Urpean milaka buelta eman nituen, ez nekien non zegoen hondoa eta non zerua eta ez zitzaidan arnasarik gelditzen. Azkenik olatuak indarra galdu zuenean urazalera heltzea lortu nuen, baina oxigenoa nire birikietara heldu baino lehen bazetorren beste olatu bat eta honek bete betean harrapatu ninduen. Konortea galtzeaz nengoela burua urpetik atera nuen. Arnasestuka eta erdi galdurik sokatik tiratuz taula hurbildu eta gainera igo nintzen, han gainean salbu egongo banintz bezala. Olatu handi haien ostetik bazirudien itsasoak atsedenaldia hartu zuela baina hain nengoen ahul, ezin nuela itsasoaren aurka aurrera egin.

Egindako esfortzuaren ondorioz botaka egin nuen. Lurrera heltzea besterik ez nuen buruan, baina alferrik, nire ahaleginak ez ziren ezer korrontearekin alderatuz eta itsasoan barneratuz joan nintzen, apurka-apurka, ia lurra bistatik galdu nuen arte. Gehiago nekatzea alferrik zela pentsatu nuen eta errenditu egin nintzen. Itsasoak irentsi egin ninduen eta lurra laino artean galdu nuen.

Itsasoan lau bat ordu neramatzan ezer ikusi gabe, eguerdia zen eta sekulako gose eta egarria nuen jada. Neoprenoa nuen arren hotz handia sentitzen hasia nintzen jada. Itsasoan egoera, hondartzan baino lasaiagoa zen, baina uhinek gora eta behera narabiltzen eta haize zakarrak urez ziprztintzen ninduen etengabe. Ezin nuen bakardade hura jasan. Nire burua lasaitzen saiatzen nintzen, laster topatuko ninduela itsasontziren batek edo korronteak lurrera eramango ninduela esanez, baina ezin nuen nire burua engainatu.

Arratsaldean ezin izan nion, ordea, neure buruari egia izkutatzen jarraitu eta egoera ezin larriagoa zela konturatu nintzen, bizirik irauteko posibilitateak oso urriak ziren. Oihuka hasi nintzen, kaskoa burutik kendu eta taularen kontra jotzen hasi nintzen, baita neure burua taularen kontra kolpatzen ere. Zeozelan kanporatu behar nuen barruan neukan amorru eta ezintasuna. Kaskoa hartu eta pikutara bidali nuen, bera nire egoeraren erruduna balitz bezala. Errua neure neurea zen ordea, ez nintzelako arriskuaz jabetu,

lehenengo abisuaren ostean atzera bota ez nintzelako eta ausartegi eta axolagabeki jokatu nuelako.

Ahoan ez zitzaidan listurik ere gelditzen, egarriak jota nengoen eta urez inguraturik nengoen arren ezin nion zurrutada txikienik ere eman. Ezin nuen egarria jasan eta tentazioak ahoa bustitzera bultzatu ninduen. Trago ederra eman nion eta ahoan gazitasun desatsegina utzi eta egarria areagotu zidan.

Lainoak gero eta beltzago jartzen hasiak ziren eta arratsalde erdian euri zaparrada hasi zen. Ahoa zabalik jarri nintzen zerura begira eta eskuak jarri nituen ahoaren inguruan ur gehiago harrapatzeko asmotan, hala ere ahora heltzen zitzaizkidan tanta urriak ez ziren nire egarria asetzeko haina. Ideia bat bururatu zitzaidan momentu hartan, buelta eman eta gelditzen zitzaizkidan indar hondarrak erabiliz, korronteak neraman kontrako norabidean hasi nintzen igeri egiten. Bost bat minuturen buruan aurkitu nuen nire salbazioa. Uhinaren gainean objektu borobil zurixka bat ikusi nuen, hura zen lehenago uretara bota nuen kaskoa. Taularen gainean luze etzan eta kaskoa hanka tartean sartu nuen gora begira. Zaparradak bere horretan jarraitu zuen eta hamar minutu itxaron ondoren baneukan kaskoan bilduta ahoa betetzeko beste ur. Pazientzia handiz baina apurka-apurka egarria pixka bat disimulatu nuen. Baina zertarako egin ote nuen hura? Nire heriotza luzatzen baino ez nengoen. Zenbat eta lehenago hil gutxiago sufrituko nuen. Ideia hori bururatu bezain laster, bitan pentsatu gabe, kaskoa berriz bota nuen uretara, zertarako behar nuen nik, heriotzetik urruntzen ninduen zerbait? Buruari bueltak ematen hasi nintzen eta hasieran ur geza izan baino lehen sufritutakoaz gogoratu nintzen. Atzerantz begiratu nuen, kaskoa ez zegoen urruti oraindik. Buelta eman eta kaskoaren bila joan nintzen. Berreskuratu nuenean pozik begiratu nuen, berriro botako ez nuela esanez bezala eta euria batzeko posizioan jarri nuen berriz ere.

Gaua egiten hasi zen eta baneraman itsasoan galduta egun erdi bat. Orduak ezin luzeagoak egiten zitzaizkidan taularen gainean etzanda. Paisaia berdina denbora guztian, zarata berdina, hori bai, hotza egarria eta gosea gero eta handiagoak ziren. Gainera euria gelditu egin zen eta deshidratatzen ari nintzen. Gaua guztiz sartu zen eta nik iluntasunean zerbait aurkitu nahian neramatzan orduak eta orduak. Bapatean argi bat ikusi nuen nigandik urruti, argia gero eta biziagoa zen eta petrolio ontzi bat zela igarri nuen. Gero eta hurbilago neukan baina ez zetorren nireganantz. Bere ibilbidera heltzen saiatu behar nintzen. Ahalegin handiak egin arren nekez egiten nuen aurrera, besoak leher eginda neuzkan. Itsasontzia oso hurbil neukan, berrogeita Hamar bat metrotara eta oihuka hasi nintzairen. Nire ondotik igarotzen zeuden metro gutxitara eta oihuka jarraitzen nuen baten batek kasualitatez entzungo ninduen esperantzaz, baina atzea eman eta bere bidea jarraitu zuen. Nik zarataka jarraitu nuen, ahotsik gabe gelditu nintzen arte, itsasontzikoek entzuteko baino nire gorrotoa ateratzeko.

Etsita nengoen, ezin nuen gehiago, iparra galduta, itsasoaren eskuetan zegoen nire patua. Egoera ez zen egokiena horretarako baina nekearen ondorioz loak hartu ninduen.

Uhin batek taula irauli eta uretara bota ninduen. Izututa esnatu nintzen, hasieran ez nekien non nengoen baina jarraian gogoratu nuen guztia. Segituan, taulara berriz igo eta

begiak itxi nituen. Begiak irekitakoan kostaldea ikusteko desioa nuen eta hori ez gertatzeko beldurrarekin ireki nituen begiak. Alde guztietara begiratu eta ura baino ez nuen ikusi, disgustu handia hartu nuen. Eguna ongi argituta zegoen jada, gutxienez goizko bederatzi edo hamarrek zirela pentsatu nuen, baneraman egun bat itsasoan. Horren sintomak nabariak ziren gainera.

Izan nuen aurreko egunean pentsatzeko denbora pila baina nigan baino ez nuen pentsatu. Zer egingo zuten familiakoek nire falta sumatzean? Norbait bidaliko ote zuten itsasora nire bila? Beharbada helikopteroren bat ibiliko zen nire bila baina eremu oso zabala zen arakatu beharrekoa eta ni aurkitzeko posibilitateak oso urriak ziren. Bazirudien aurreko eguneko haizea baretzen zihoala apurka-apurka eta eguzkia ere azaltzen zen tarteka laino artetik.

Itzartu nintzenetik, denbora asko igaro zen eta pentsatzen hasia nintzen zenbat denbora iraun zezakeen pertsona batek egoera honetan. Hipotermia sintoma argiak neuzkan, desidratazioa, gosea, ia ezin nintzen mugitu eta burua apur bat galtzen hasia nintzen. Kalkulatzen nuen beste egun bat iraungo nuela asko jota, hotzak nirekin bukatu arte. Ezin nuen egoera hura gehiago jasan, ezin nintzen heriotzaren mehatxupearan bizi, jakinda denbora gutxiren buruan eramango ninduela. Horregatik hankako lokarria kendu eta uretara bota nuen nire burua. Apurka-apurka joan nintzen ondoratzen, nire birikiak uztutzen zihoazen heinean. Begiak zabaldu nituen eta urazalera begiratu nuen beldurti, gero eta urrunago nengoen. Birikak guztiz urtuta nituen unean sentimendu arraro batek urazalerantz bultzatu ninduen. Besoak motel-motel astinduz, apurka-apurka joan nintzen eta azken unean gehiago eutsi ezinik, ura sartu zitzaidan birikietan. Ur eta airearen arteko muga igaro bezain laster, eztulka, birikietan pilatutako ura kanporatuz, taula heldu eta kostata baina gainera igo nintzen.

Nik ere ezin nuen ulertu zergatik bueltatu nintzen baina heriotzari nion beldurra baino gehiago, amorrua izan zela uste dut, itsasoarekiko amorrua eta bizitzeko esperantza eta gogoia. Ezin nintzen hain gazte izanik joan, hainbat gauza nituen egiteko oraindik eta ez nengoen prest berehalakoan errenditzeko.

Momentu hartan pixka bat esperantzak berritu nituen arren, izan nuen denbora nahikoa damutzeko ere. Ordu luzeak eman nituen oraindik ere taula gainean. Eguzkia jaisten hasia zen eta begiak ozta-ozta mantentzen nituen zabalik. Begiak irekita mantentzeko borroka horretan nenbilela kostaldea begiztatu nuen. Besoak uretara jausten utzi eta astiro-astiro ateratzen nituen, hilda baleude bezala. Beti toki berean nengoen sentsazioa neukan. Herri bat ikusi nuen kostaldean eta haren azpian zegoen hondartza txiki bat, ez nuen toki hura ezagutzen. Korronterik ez zegoen arren, lurra ikusi nuenetik heldu arte bi ordu edo igaro ziren eta bi orduak bukaerarik gabeak egin zitzaizkidan. Azken zatian hondartzara heltzeko zorian nengoela olatu txikiek eman zidaten azken bultzadaxoa. Taula bertan behera utzi eta katuka hareatzen gorantz igo nintzen ziur sentitu nintzen tokiraino heldu arte. Lurra oinpean sentitu nuen arte ez nintzen lasaitu, baina hain handia izan zen lasaitua eta hain nengoen nekatuta etzan eta loak hartu ninduela.

Qu'est-ce que tu fais ici?



Andere Bidaburu Ondarza - Batxilergo 2. maila

"Idaztea asko gustatzen zait, bertsotan egitea are gehiago"

ABANERA ILUNETAN

*I. Zortziak puntuan eta
igo ginen hortik gora
derrepentean etorri
zitzaidan bera ondora
eseri ginenerako
lotsa guztiak kanpora
bere arnas estu hori
astiro botaz lepora
nola begiratzen zidan
orain etorri zait gogora
bere begi ederrekin
egin nintzen guztiz txora
hotzikarak senti ahala
xamur ta gorputz osora*

*bere ondoan ze azkar
pasa zitzaidan denpora.*

*II. Berarekin ametsetan
pozaren pozez gauero
nik horrelako mutilik
ez nuen inoiz desiro
eta lehenengo aldia
ezin honela espero
zer pasatuko ote zan
guztia galdu ezker
bera barik nengoenean
minutuak ere luzaro
bere ondoan ze ondo
bere ondoan ze bero
gauetan egiten ninduen
izar guztien bezero
lehenengo zitan eskua
muxua zetorren gero.*

*III. Amodio haren gustua
ezin ba ondo dastatu
jadanik utzi nauela
beharko baitut aipatu
ez al zuen ba denbora
behar bezala gozatu
edo lehenago ez ote zan
ba, ni uztera ausartu
gertatutako guztia
behar dut orain hausnartu
trumoiak nire bihotzaren
ingurua du iltzatu
zauriak ez zaizkit eta
oraindik behintzat osatu
zin egin zidan muxua
oraindik ez da ailegatu.*

*IV. Irtenbiderik gabeko
horma beltz hauen artean
inork ere ez daki eta
zer pena dudan banean
azken hile bi triseak
igaroz negar batean*

*maitasunik barik nago
preso horien antzean
haizea bezala nahi dut
bizi aske eta bakean
entzun mesedez norbaitek
nago egoera txarrean
orain sufritzen ari banaiz
zer izango da hiltzean?
ze gaizki sentitzen garen
maite dugun bat galtzean.*

*V. Uste dut galdu dudala
betirako eta osoan
agian egon izan naz
inusentean moduan
edo hartu ote dut ba
maitasun hori itsuan
zein ondo geunden lehenago
oraindik daukat gogoan
aingeruen artean geunden
poz pozik biok zeruan
nun nagoen jakin gabe
nun nagoen ere dudan
ohetik altxatu naiz ta
aurkitzen naiz infernuan
hobe oin egongo banintz
maite ninduenaren ondoan.*



Irati Goitiz Izagirre - Batxilergo 2. maila

“Itsasora begira orduak pasatuko nituzke”

BIZITZA HOLAKOA DA

Bilboko familia bat zen, familia arrunt bat; bi seme zituzten, eta ikasketetan nahiko onak ziren biak. Bietatik bat nahiko isila eta lotsatia zen, Garikoitz. zuen izena eta 17 urte zituen. Garikoitz azkenaldian nahiko arraro ikusten zuten bere gurasoek, baina ez zioten garrantzi handirik eman, adinaren kontuak zirela uste baitzuten.

Garikoitzek, txikia zenetik, lagun oso on bat zuen, Eider izenekoa. Txikitan elkarrekin ibili ziren eskolan, baina hamar urte zituztela, Eider-ek kanpora joan behar izan zuen; Frantziara joan zen bizitzera aitaren lana zela eta.

Garikoitzek bere falta handia nabaritu zuen eta oso triste geratu zen, bere barnean isolaturik gelditu zen, mundutik aparte egongo balitz bezala. Hilabetero gutunak idazten zizkion Eiderri, eta erantzunak jasotzen zituen beti.

Urteak pasa ahala, gutunak gero eta helduagoak egiten hasi ziren, baina Eider-ek zerbait arraroa somatzen zuen bere lagunarengan. Ez zen berak ezagutu zuen Garikoitz, askoz ere tristeago zegoen, itzaliago, ilunago, ez zizkion lagunekin eginiko abenturak

kontatzen, ez zituen bere lagunak aipatu ere egiten. Eider-ek, berriz, bere gorabehera guztiak kontatzen zizkion. Eider-ek zenbat eta gauza alaiagoak kontatu, Garikoitz-ek bizitzari buruz sentimendu ezkorragoak kontatzen zizkion; berarekin barnea zabaldu egiten zuen, inolako apururik gabe. Garikoitzentzat dena zen ezegokia mundu honetan, beti geroan pentsatzen egoten zen; mundu hau uztean zer izango garen... ez zuen bizi-tzaz gozatzen.

Goiz batean, Eider bere gurasoekin etxean zegoela, hilabetero idazten zion gutuna iritsi zitzaion, Garikoitz-en gutuna. Irakurtzen hasterakoan, harrituta geratu zen. Gutunak hau esaten zuen:

Aupa Eider zelan zaude? Ni betiko moduan, oso triste, bizitza honetaz aspertuta. Egunero gauza berak egiteaz, monotoniaz nazkatuta. Betiko moduan, klasera joan, etxera heldu eta etxerako lanak egiten. Inolako helbururik gabe. Gainera, egunero arazoekin hasten dut eguna, mundu hau nahiko gogorra da, ezin dezaket esan mundu hone-tako egoerak ondo eramaten direnik, ezta inolako arazorik gabe bizi garenik.

Jaio eta batera badakigu momentu gogorrek izango ditugula, inor ez dela mundu honetatik pasatuko egoera horiei aurre egin gabe. Egoera horiekin asko ikasten da eta pertsonak azkenean oso ondo ezagutzen dituzu, edo behintzat zure inguruan daudenak; eta konturatzen zara ia bakarrik zaudela mundu honetan, norbait izatekotan zure fami-lia izango duzula, eta zorte handiz lagunak bat, benetako laguna, ez klaseko eta laneko" lagunak", azken finean, hauetariko gutxi izaten baitira zure lagun-minak.

Atzo ere, arratsaldean, asperturik nengoenez, heriotzaz pentsatzen hasi nintzen; beldur ikaragarria diot, mundu honetatik alde egitean ez baikara ezer; eta orain nor gara? Nor arduratzen da gure arazoez eta gure minez? Bakarrik al gaude mundu hone-tan? Nik behintzat, nire inguruan begiratu eta ez dut inor aurkitzen. Eta gauza hauen ostean, beti pentsatzen dut ea mundu honetara zertara etorri garen, ea ezer onik ba al dagoen mundu honetan, edo sofritzeko baino ez garen etorri... Esan behar dizut baita ere, mundu hau oso artifiziala dela; gure ardura bakarra besteak zer esango duten pentsatzea da, eta bakoitzak norberaren onurak baino ez ditugula bilatzen.

Badaude gizarte honetan rol desberdinak. Gaur egun pentsamendu batzuk modan daude, eta zuk horiekiko ideia desberdina baduzu, beti arraro sentitzen zara, pentsa-mendu hori zure baitan ezkututzen duzu, baina hor dirau eta norberaren esfortzuz saia-tzen zara pentsamendu hori ez azaleratzen. Zer esango edo pentsatuko dutenaren beldur baitzara; ondo dagoen edo ez, arraroa bazaren edo ez... badakizu zer esan nahi dudan? Askotan gure baitan duguna erreprimitu egiten dugula, arazo edo gorabehera barik bizi-tzeko; besteak bezalakoa izateko, lasai bizitzeko. Baina azkenean, txarrago bizi zara: barruan duzun hori ezkututzen baituzu eta ez baitzara zu zaren bezalakoa adierazten.

Baina, beno, besterik gabe, nire penak kontatu ostean, espero dut oso aspertuta utzi ez izana; egia esan, zurekin hitz egiteak asko lasaitzen nau. Eskerrik asko zure arre-tagatik, muxu handi bat.

Garikoitz

Eider, hau guztia irakurri ostean, oso arduratuta geratu zen; hasieran ez zekien zer egin, bere gurasoei Garikoitzen pentsamenduak kontatu eurek erantzuna idazten laguntzeko; edo besterik gabe, berak pentsatzen zuena paper batean idatzi.

Azkenean, bere kabuz idaztea erabaki zuen, bere pentsamendu guztiak adierazi eta bizitzari buruzko egoera positiboa azaleratuz adieraztea; Eiderrek argi baitzuen hamaazpi urteko mutil hori nahiko arraro zegoela, ez zuela bere adinekoen antzeko bizitzarik, askoz ere gehiago arduratzen zela gauza guztiez.

Erabakia hartu ondoren, bere logelara igo, mahaian eseri, papera eta boligrafoa eskuan zuelarik, leihotik kanpo zegoen paisaia lasaia eta baketsuari begira geratu zen. Eta zera idatzi zion:

Kaixo Garikoitz:

Arduratuta utzi nau zure gutunak. Ezin dut sinetsi horrelako gutuna zuk idatzia denik, ezin dut sinetsi bizitzarekiko jarrera hain ezkorra duzunik. Egia esan, ezin duzu triste egoteko arrazoirik eduki, behar duzun guztia duzu: familia, lagunak, bizitza eroso, aurrerakuntzak... eta oraindik galdetu egiten diozu zure buruari ea zer egiten duzun hemen. Nik esango dizut: zu mundu honetan zaude horrela gertatu delako, eta gainera, herri eroso batean inolako arazo gogorrik gabe bizi gara. Egin behar duzun bakarra inguruan begiratzea da; adibidez Afrikan edo hirugarren mundua delakoan. Han bai egongo dela jendea bere buruari galdetzen diona ea mundura sufritzera etorri den. Hangoak gosez hiltzen dira, gaixotasunei aurre egiteko ez daukate baliabiderik. Ikasteko edo kultura bat jasotzeko ez dute biderik. Guk guzti hori eta gehiago daukagu. Beraz, nik uste nahiko arrazoi daudela gu pribilegiatu sentiarazteko.

Egia da mundu honek gauza onak eta txarrak dituela, eta onak bizitzen ditugula, baina baita txarra ere. Txarren artean ere gogorrak direnak ere badaude; baina azken finean, denok pairatu behar ditugu egoera ezegokiak eta txarrak guretzako. Baina egoera horiei aurre eginik asko ikasten da; gero eta helduagoa egiten zara, eta zuk esan bezala, inguruan dituzunak ezagutzen dituzu azkenean.

Eta mundu honek gauza onak eta txarrak dituen moduan, egiak eta ez hain egiak ez direnak ere baditu. Eta batzutan hobeto izaten da egai hori ez ezagutzea.

Badago Anthony De Mello-ren ipuin bat “Egiaren denda” izenekoa, eta honek zera esaten du: badoa pertsona bat kaletik eta denda batean sartzen da, egiaren dendan. Sartzerakoan, dendariak galdetzen dio ea zer nolako egia nahi duen; aritmetikoa, erlatiboa, absolutua... Gizonak, duda barik, egia absolutua nahi duela esaten dio. Orduan, dendariak erantzuten dio, egia absolutu hori lortzeko prezio oso altua ordaindu behar duela, hau da, bakean inoiz gehiago ez bizitzea. Azkenean, gizona dendatik irten zen egia absoluturik gabe. Argi dago, egia ez den gauzetan askotan babes-ten garela, zoriontsu izateko ez dugula egia bilatzen, eta batzutan nahiago izaten dugula bakean bizi, nahiko manipulaturik, egia jakin eta lasai ez bizi beharrean. Beraz, bakoitzak aukeratzen du bere bidea mundu honetan.

Eta heriotzari buruz esan behar dizut, hori bizitzako legea dela, jaiota batera badakizu eta hil egin behar garela. Eta ez da bat bestea baino hobe, horrela da, eta ez du atzera bueltatarik. Mundu honetan bizitzeko aukera izan dugu, eta gure ordua heltzen denean, bizitza gozatu izanaren lasaitasunaz joan behar dugu.

Erreflexionatu guzti honi buruz, eta aukeratu zure bizitzeko modua, askea baitzara nahi duzuna egiteko! Nahiko ziurra da mundu honetako egoera latz horiek ez direla urrunduz konpontzen direnekoak; beste batzuegan berriz, beharrezkoa da aldentzea zoriontsu izateko, baina aurrera egiteko arrazoiak aurkitu behar ditugu inguru honetan.

Seguru nago zerbait ona aurkituko duzula. Mundua aurrera doan bitartean, zer egiten duzun galdetzen diozu zeure buruari, baina badakizu zer? Gozatu bizitza eta utzi bakean txorakeri guzti horiek, egin momentuan aukeratzen duzuna eta bizitzak eramango zaitu eraman behar zaituen puntura.

Musu handi bat zure betiko eta betirako lagunaren partez.

Eider



Arantxa Kareaga Díaz - Batxilergo 2. maila

“Aurrera jarraitu behar dugu”

ESNATU ARTE

Mendira osterak ematera joatea gustuko nuen, momentu haiek baitziren neureak soilik, pentsatu, sentitu eta erreflexio sakon eta niretzat garrantzitsuak, egiten nituen uneak ziren. Nire mundu triste ilun eta zentzugabetik aldentzeko aukera nuen zatitxoak alegia, bizi nintzen toki eta egoera nazkagarriak gogaitu baino ez ninduen egiten eta arnasa hartzeko aukera gabe uzten ninduela sentitzen nuen geroz eta sarriago eta indartsuago. Nire bizitzari gero eta gogo gutxiagorekin ekiten nion egunak aurrera joan ahala, eta ez nuen bizitzaren inguruan arrazoi pisutsurik aurkitzen. Goizetan esnatzea gero eta lan gogorragoa zen, gainean milioika tona izango banitu baino gehiago kostatzen zitzaidan.

Ikastetxea jasanezina zen. Irakasleek alde guztietatik presionatu baino ez ninduten egiten. Matematikakoak “Gehiago ikasi beharra duzu eta klasean egindakoa egunero etxean birpasatu!”, kimikakoak ere berdin “Zure betebeharra baino ez da egunero lanak eginda ekartzea, hauek egiteak ez dizu inongo meritu larregirik ematen.” Eta baita Historian ere “Historia oso erraza da ipuin gisa ikasten baduzu baina ezin da azken egunerako utzi ikastea, hori eguneroko beharra da gainera lanak ere egin behar dituzue eta

egunero emandakoaren laburpena, egunero egin behar duzuen da hau eta hori da zuen lana.” Geroz eta nota baxuagoak lortzen nituen ikasi edo ez ikasi eta tutoreak beti berdina esaten zidan, beste irakasleekin hitz egin ondoren: nire ikasteko gaitasuna argi zegoela, nahi nuen tokira irits nintekeela, horretarako eta gehiagorako gaitasuna bainuen eta, eta alferkeriatan ari nintzela ikasi gabe eta guztiaz paso eginez eta horrela jarraituz gero ikasketak albo batera uztea hobe nukeela. Egia da bi urte arinago nire notak primerakoak zirela eta oso ondo neramatzala ikasketak. Baina beste garai batzuk ziren haiek, bizitza zoragarria iruditzen zitzaidan denbora.

Koadrila aspaldidanik arazoetatik atera ezinik zebilen, beti beste gazte batzuekin liskarrean eta nor borrokarako prest egon horien bila ibiltzen ginen. Edo ibiltzen ziren behintzat, izan ere, nik horrela bilatu edo ez, beti borrokaren batean bukatzen nuen konturatu gabe. Honek askotan nire barnean erreprimetuta izaten nituen gorroto eta frustrazioa askatzeko lagundu izan zidan hasieran, baina azkenaldian ez zen horrela izaten eta beti begi edo beste gorputz atalen bat orbanduta edo zaurituta bukatzen nuen. Hau gure mozkor edo gorputzean sartutako beste hainbat substantziak lagunduta egiten genuen. Substantzia hauek hasieran nire zorigaitza ahanzten laguntzen zidaten eta gero barneko sentimendu gorrotagarrienak beste norbaitekin ordaintzeko beharra sentiarazten zidaten honekin liskarretan bukatuz, eta are txarrago amaitzen nuen, gorputza minduta, burukominaz, norbaitekin haserre. Baina hasieran sentitutako bakeak substantziak gustaraztea eragiten zidan, beste ezer ez nuen aurkitzen nire bizitza eramangarria egiten zuena eta honen drogarekiko sentimendu berezi bat sorrarazi zuen nire barnean.

Etxekoa ez ninduen inola ere laguntzen. Aita, nire lagun onena izandakoa dudarik gabe, bi urte arinago galdu nuen auto istripu batean eta ordutik aurrera ama eta biok izan ginen etxean. Amarekin ondo moldatu izan nintzen aita bizi izan zen artean, baina zorigaitzaren ostean, horrexegatik gehiago baino ez zen etorri. Ama eta biok elkarrengandik urruntzen joan ginen apurka, ni geroz eta maiztasun handiagoz nire lagunekin ateratzen nintzelako eta berak hainbat mutil lagun, maitale edo lagun berezi izan zituelako. Aita hil zenetik amak bera maitatuko zuen norbait berri bat topatzeari ekin zion eta gizonak aurkitu, aurkitu zituen, baina inoiz ez zuen gizon egokirik aurkitu. Ama konturatzen ez zen gauza bat zen, berak uste zuen gizon haiek bera asko maite zutela, baina askotan beraiek ez zuten nire ama maite eta ama hauxe ikusteko gai ez izateak nirekin hainbat haserre izatea eragiten zuen. Nik berari begiak ireki nahi izateak berak nire jeloskor eta aitarekiko fidelotasun itsua aurpegiratzen zidan eta hau bere tristuraren putzua sakonago egitea eta aitak utzitako hutsunea bete ezina sentitzen zuen amak eta hauxe zen berak mutilak bilatzeko eta hauek bera bete ezin zutela konturatzean utzi eta frustrazioa baino ez zuen sentitzen, batzuetan gainera niri botatzen zidan harremanak ongi ez atera izanaren errua.

Honexek ere, nire sufrimenduen zakua geroz eta astunagoa egitea baino ez zekarren azken finean.

Nire lagunik onena Lander izan zen, beti bata besteari bakoitzaren kontuak kontatzen genizkion, anaiak bagina bezala konpondu izan ginen elkarrekin, beti batera edo-

nora eta beti bata besteaz arduratzen eta elkarri lagundu nahian. Txikitatik eskolan batera ibili eta elkarrekin hazi ginen, bion bizitza osorik ezagutzen genuen eta konfiantza osoa genuen bata bestearengan. Batera joaten ginen jaietara, azterketetan antzera egiten genuen, egoera berdinak bizi izan genituen, batera mozkortzen ginen, droga berdinak hartu, koadrila berean geunden eta beti borroka berdinetan izaten ginen. Behin, larunbat gau batean, etxera gindoazela, bera bere auzokidearekin abiatu zen kotxez eta ni beti bezala oinez abiatu nintzen. Lotan nengoela lagun baten deia jaso nuen esanez etxera bidean istripua izan eta Lander oso larri zegoela eraman zutela ospitalera.

Bertan bi aste eraman zituen koman esnatu arte, baina azkenik esnatu zen eta ordutik aurrera gauzak aldatu egin ziren, bizitza beste modu batera ikusten hasi ginen. Guztiz hunkituta zegoen Lander istripua zela eta. Orduan gure bizitzako norabidea aldatu behar genuela pentsatu genuen. Bion artean gure zorigaitzari nolabait amaiera eman behar geniola erabaki genuen. Egindako huskeriak eta akatsak zuzendu eta norabide berri bat jarriko genion gure bizitzari.

Ospitaletik atera eta etxerantz abiatu nintzen.

Aspaldiko partez amarekin luze eta zintzo egin nuen eta ordutik aurrera gure arteko beste harreman bati hasiera eman genion. Biontzat askoz hobea izango zena. Aitaren ezbeharra onartu eta bere omenez elkarrekin ondo konpontzen saiatu ginen. Hasieran ez zen erraza izan, baina batak besteari laguntza emango genion. Ordura arte izandako lis-karrei amaiera eman eta etxea izan zen infernua bizileku gozo, atsegin eta eroso bihurtzen ahalegindu. Amaren masailak malkoz blaitu ziren elkarriketa osoan zehar, baina zorion malkoak ziren haiek aspaldiko partez.

Aste batzuk pasatu ostean, Lander ospitaletik irten zenean, mendira joan ginen egun batean biok. Gertatutakoaz eta gertatuko zenaz hitz egin genuen. Iraganean izandako horretatik ondorioak atera, hausnarketa egin etorkizuna hobeto bideratu ahal izateko, eta aurretik egindako akatsak errepikatu ez daitezen. Aspaldiko partez mendiaz gozatzen nengoen eta bakean sentitzen nintzen. Bizitzari zentzua aurkitzen hasi nintzen. Gau hartan lo lasai eta gustura egin nuen aspaldian ez bezala.



Amaia Quintana Ordorika - Batxilergo 2. maila

*“Halako bi lehen sari hain potolo irabazi izanak,
gaurko eguna ahanztezin bilakatzen du”*

MALKOAK ZILEGI OTE?

MALKO OZPINAK...

*Ilunabarra iristean,
oroitzapenetan murgiltzean,
bizi izandako istorioa gogoratzean...*

*Erantzun galdua ezerezean bilatuz
negar malko beltzak,
masailean zehar,
gazi zapore garratzekoak,
ezin ekidituz.*

*Gauaren teilatuko zuloetatik so egitean,
zure bisaia izarretan antzematean,
zure esentzian murgiltzean,*

*zure irrifarrea gogoratzean,
gau ilun bakartian gatibatzean...*

*Zure presentziaren falta
ulertezina da,
jasanezina da,
eramanezina da,
oinazea da.*

*Ametsak...
hauek gerturatu bitartean mina sentituz,
bihotzeko sufrikarioa odol gori bihurtuz,
lo egin ezinik zure aurpegiaz oroitzuz,
negar malkoen esanahia zure izenean txertatuz.*

*Orain ordea, bakardade gordinak bornatu nau,
besarkatu nau,
inguratu nau,
BORTXATU nau,
aspaldiko laguna balitz bezala manipulatu nau*

*Bere erara,
bere gustora,
bere antojura,
bere modura,
egin dezakeen minaz jabetu barik.*

MALKO GOZOAK...

*Ilunabarra iristean,
oroitzapenetan murgiltzean,
bizi izandako istorioa gogoratzean...*

*Gaua,
gau hura,
gau zoragarri hura,
gau ahaztezin eta pasiodun hura,
gau bakar, desberdin eta zoriontsu hura.*

*Alkoholaren esentzian mozkortuz,
tabakoaren usaia somatuz,
suabe muxukatuz
pixkanaka pixkanaka biluztuz
maitasuna elkarri frogatuz.*

*Algarak sabelean ziztatzen,
kili-kiliak sortzen,
dardarak bizkortzen,
taupadak azkartzen,
gorputzeko atal guztiak gogortzen.*

*Izerdia loditzen,
plazer debekatua sentitzen
norabidea galtzen,
neurotiko bilakatzen
gorputzeko atal guztiak gogortzen.*

*Itsuturiko gaua
gau itsua
ozpin gozoa
gozo ozpina
itsuturiko gau ozpin gozoa, gau itsu gozo ozpina.*

MALKO OZPIN GOZOAK...

*Ilunabarra iristean,
oitzapenetan murgiltzean,
bizi izandako istorioa gogoratzean...*

*Sahats negartiaren negar desioa betez,
zeruko malko gozoez
ni azpian egonez
bi tristura bat eginez
bien guraria betez.*

*Desioa
pasioa
izarretan zure posizioa
sentsazioa
tentazioa.*

*Sentimendua
galdua
nire bihotzaren erdian lurperatua
galdua
sentimendua.*



Amaia Quintana Ordorika - Batxilergo 2. maila

AZALA

Azala:

*berriz uki nazala
lehendabizikoz bezala.*

*Perfilaren ingerada
lurrunduta begirada
uhintsua, (zure) ahoskera da.*

*Laztan goxo, hotzikara
bero, dantzaren zirrara
muxuen buztanikara.*

*Beltza gauaren azala
Dardarka jarri nazala
Izar bat banintz bezala.*

*Dantzan edozer ahal da
bihotz berriari lurra alda
zuretzat atea zabal da.*

*Azala dugu aztergai
mami guriak ere bai
zuku likitsez zikin, blai!*

*Begiak: eder, egiak;
desirak luzeegiak,
gauak motzeegiak.*

*Egunsentiko argi apala:
biluzik aurki gaitzala
bakar bagina bezala.*



Jon Iñaki Etxeandia Pradera - Batxilergo 2. maila

“Bizitzaren bidaiak harrapatuta bizi gara”

UDAZKENAREN ARGİPEAN

Azkenean, amore eman eta begiak ireki nituen, pare bat orduz horren gozo izan-dako lo-kuluxka hartara bueltatzea ezinezkoa zela ikusita. Hori bai, astiro-astiro egin nuen prozesua izan zen, poliki-poliki irekiz, bat-bateko argitasunak minik ez egiteko, eta uneari ahalik eta probetxurik handiena atera nahian edo. Enpresako kotxe ofizialean nindoan, atzealdeko ezker jesarlekuan. Instintiboki, gidariak atzealdea ikusteko duen ispiluari begiratu nion, eta bertan nire begiek gidariarenarekin egin zuten bat. Izan ere, ni enpresako exekutibo gorenetakoa izanik (kontseilari delegatua, zehazki esateko), normala da gidaria (Robert) nire mugimendu guztien zain egotea, adi eta prestu, nik zer eskatuko, ni nola joango. Baiezko keinua egin eta berera jarraitu zuen, autoa gidatzen.

Nik mantsotasun osoz ezkerrean nuen leihatilatik begiratu nuen, zer ikusiko. Egia esan, ez zen oso bista alaia, mendia janez egindako hilerria baitzegoen errepidearen alde horretan. Horrela bada, eskuineko leihatilatik saiatu nintzen, baita nahi nuena aurkitu ere: errepidetik ederki ikusten zen itsaso urdina eta, urrerago, Bartzelonako merkatal portua, udazkeneko eguerdietako eguzki malenkoniatsu, baina itxaropentsu horrek argi-

tua. Osteguna izan arren, sekulako aktibitatea nabari zen bertan, itsasontzietatik “kontainer” ikaragarriak atera eta sartzen ziren, gizakiak asmatutako altzairuzko kanaberek markatutako erritmoan. Kaietatik, kamioi eta bestelakoek bizitza propiodun hiria zen portu hura zeharkatzen zuten. Hamar urtetan asko aldatua zen. Denbora asko etxeko portua ikusi gabe.

Baina, bizitza legez, autoa ere azkar zihoan, nahiz eta azkartasuna sentimenduek, garaipen eta porrotek zehaztu beharrean inguruko autoek eta errepide arin hartako kar-telek zehaztu. Esan bezala, autoak eta bizitza, bizitza eta autoak, azkar doaz, azkarregi akaso, bidaia-ari egiten ari den bidaiaz konturatzeko denbora eman gabe ia; zuzen alai eta lasaiez, bidezuloez eta beste abarrez jabetzeko astirik gabe, hurrengo kilometroan sartzen gara, helmugara hurbilduz, amaierara; azkenean, bidearen amaiera noiz helduko gaude, bidaia aprobetxatzeaz arduratu gabe. Eta, nire bizitzako hainbat kapitulu legez, merkatal portua ere atzean gelditu zen, momentua gozatzen hasia nintzen une berean desagertuz.

Etxeak agertzen hasi ziren handik eta hemendik, ezagunak zitzaizkidanak; atzerriko unibertsitate batera ikastera joan nintzen egun hartan agur esan zidaten berdinak ziren harrera egiten ari zitzaizkidanak. Iraganeko gogorapen hura buruan nuela oraindik, Praça de les Drassanesen sartu zen autoa eta, aurrez aurre, Duana ikusi nuen. Eraikin sendo honek egiten dio kukua Bartzelonara doan bisitariari. Orduan bai sentitu nuen Bartzelonara itzulia nintzela.

Hurrengo plaza oraindik tipikoagoa da, Kolonena. Bertako lehoietan igota zeuden turista batzuk, argazkiak ateratzen. Eguerdiko ordu biak ziren eta plazako inguruan lanetik irten berri zirenak eta ordurik ez duten turistak aurki zitezkeen, bakoitza bere airera. Berriz ere, autoak nik nahi baino arinago egin zuen hanka handik, eta enpresak hartua zidan bost izarreko hoteleko atean gelditu zen. Jarraian, ateko zaindaria etorri zen nire maletaren bila, eta orduan Robert joan egin zen. Egia esan, enpresak ez zion bai-menik ematen horretarako, baina nik opor gau bat eman nion, bakarrik egon nahi nuelako; bakarrik baino gehiago, enpresarekin zerikusia izan zezakeen edonongandik urrun. Ez nengoen Bartzelonan lan kontuengatik; goiz hartan, Valentzian izana nintzen lan hitzarmen garrantzitsu bat sinatzeko, eta hurbiltasuna aprobetxatuz Bartzelonara joatea erabaki nuen, nire iragana egun batez berreskuratzeko.

Izan ere, hurrengo egunean Parisera nindoan, ostiral gauetan egiten diren lan afari horietako batera, gure Frantziako bazkide ziren enpresaburuek antolatuta; nik arinagoko urtean aurrera eramandako salerosketa arrakastatsu bat eskertu nahi zidaten, eta nik, bide batez, beste negozio potolo bat zehazteko asmoa nuen.

Beraz, Robert joan bezain pronto suitera igo nintzen, jada han baitzegoen nire maleta. Dutxa arin baten ostean, arropa informal batzuk jantzi nituen, eta soinean izandako trajea ohe gainean utzi. Eta, bazkaldu gabe ez ezer, kalera irten nintzen. Gose nintzen, bai, baina badute eguerdi eguzkitsuek, batez ere udazkenekoek, zerbait berezia; giro freskoan jotzen zaituzten eguzki izpiek eragindako sentsazioa, ez dakit nola esan. Eta jada hirurak zirenez, ez nengoen une hura galtzeko prest. Hala bada, Francesc Macià

plazara hurreratu nintzen, bertako kioskoak bizirik zirauela eta plaza Erdiko berdegu-neak inguruko bulego eraikinetako urduritasun eta presen kontrapuntu izaten jarraitzen zutela ikusteaz gain, autobusa hartzeko.

Hamar urte lehenago izandako ikaslea bezala sentitzen nintzen, hamazazpi urteko mutiko lotsati hura bezala, hogeita zazpi urteko exekutibo ziur eta dinamikoa baino. Hamazazpi urterekin joan nintzen Bartzelonatik ikastera, Londres, New York eta Dubli-netik eramango ninduen bidaiaria hartan, azkenean enpresa irlandar ezagun batetako agin-tari bihurtu arte. Etxera itzultzeko denborarik gabe, hazten ikusi ninduten kaleetara itzuli gabe, pertsona egin nintzen hiria zapaldu barik eta are okerrago, nerabezaroako amets maite, baina lortezina ikusi gabe.

Kiosko ondoko bankuan esertzean oroitu nintzen neska hartaz. Hamar urtetan zehar, askotan etorria zitzaidan burura eta, batez ere, bihotzera. Baina inoiz ez orduko indarrarekin. Bat-batean, nerabezaroan txora-txora eginda ninduen (eta oraindik ere) neskata haren milaka irudi etorri zitzaizkidan burura: irribarretsu, triste, zutik, serio, jesarrita, mozarrotuta, taberna baten tragoa konpartitzen, hondartzan etzanda nire toai-laren jabe bihurtuz... Uff. Gehiegi niretzat. Eskuinera begiratu eta Julia nire ondoan zegoela senti nezakeen ia. Baina ez zegoen, noski. Orduan, autobusa heldu zen eta nire ideiak alde batera utziz bertara sartu nintzen, nora zihoan galdetu gabe.

Kolonera iristean, bertan jaitsi nintzen. Hirurak bueltan zirenez, ez zegoen jada inor bertan: turistak jatetxe garesti edota *fast-food*-en batean sartuak egongo ziren, eta bartzelonarrak lanean edo etxean; pare bat jubilatuta eta institutuetatik irten berri ziren gazte batzuk bakarrik zeuden. Estatuaren barrura sartu eta igogailua hartuz gora igo nin-tzen, hiri osoa bertatik ikusteko. Nire ezpaineak bakarrik hitz egin zuten hiriarekin, nire buruaren kontrola ekidinez:

–Ai, zein desberdin eta zein berdina zauden...

Berriro behean, plazatik irten baino lehen lehoi bati urreratu nintzaion eta aurpe-gira begiratu nion. Jarraian, burua altxa eta Kristobalen aginduei jarraituz, edo hobe esanda, bere atzamar erakusleari, itsasorantz joan nintzen. Lautada txiki bat dago ber-tan, jauregi eta guzti, zuhaitz berde batzuekin. Arbola artean, arnasa hartu nuen, sakon, azken hotsa botako duela dakienak egiten duen indar eta beharrianarekin. Ostean, pausu ziurrez eta aurpegi alai antzeko bat jarritik, Maremagnumera joateko dagoen zubi modernoa hartu nuen. Maremagnuma Bartzelonaren irla bezalakoa zerbait da, aisialdi-rako makro-zentro bat bezalakoa; erosketak egiteko, arratsaldea pasatzeko, L'Aquarium bisitatzeko, goiko pisuko mini-golfean txarto gelditzeko liluratu nahi den neskaren aurrean, edota asteburu gauak bertako diskoteketan igarotzeko. Ostegun eguerdia zen legea, inor gutxi zegoen bertan; seiak inguruan egoera desberdina izango zen, ziur. Behin irlatxora helduta, merkatal gunean sartu nintzen, tomatedun ogiz eginiko ogitar-teko bat eroatera, eta bide batez erloju on bat eroatera, nirea hotelean utzia bainuen.

Jarraian, L'Aquariumean murgildu nintzen, marrazo eta dortoken artean, inoiz erantzukirik egin ez zidaten gaztaroko lagunak bisitatzen. Askotan bisitatzen nuen

hamasei urterekin, bakarrik, zapatu goizetan, nire gauzez pentsatzeko; ziur egon nahiago nuela arratsaldez eta lehen esan dizuedan Juliaren konpainian bisitatzea, baina ez zen posible. Bera bezalako neska batek ni baino askozaz mutil jatorragoak zituen ate joka asteburua pasatzeko; zer esanik ez ederragoak.

Oroitzapen hau burura etorri zitzaidanean hausnarketa txiki bat egin nuen. Bizitza oso krudela izan daiteke zerbait falta bazaizu, batez ere, gaztaroan; berdin dio dirua, maitasuna edo etxebizitza bada. Baina lehenengoa eta hirugarrena lana eta esfortzuaz konpondu daitezkeen artean, bestearen faltak bizi guztirako markatuko zaitu. Bizitza guztian zehar, falta horrek fantasma malenkoniatsu bat legeztaraituko zaitu, zoazen lekura zoazela. Agian neska jator bat aurkituko duzu, alaia eta bizitzeko pozarekin; baina gaztaroan izandako esperientzia latzak ez ditu momentuaz erabat gozatzen utziko. Galtzeko arriskuan aurkituko zara beti, zu baino askoz hobeak daudela bizi izan duzulako, zu baino nahiago izan ditzakeenak, eta gehien nahi duzuna galtzeko beldurrak apurka-apurka bizi-pozta lapurtuko ditu. Ahaztu ezin den iraganeko fantasma.

Horrexegatik joan nintzen ni beste herrialde batera ikastera. Ezin nuelako inguru hura jasan. Lagun onak nituen, oso onak. Baina batzuetan, lagun onek ere ezin dute bihotzaren tristura ekidin, maitasun behar hori ase. Eta pekadun masail politenak, begi marroi distiratsu eta ile leun maitagarriko neska hark gainditu egiten ninduen. Handik joan ezean, ero bihurtzeko arrisku bizian nengoen, ostiral arrats batean eman zidan ezetza onartu ezinik. Ezin nuen, bere ezetzaren ostean, asteburuetan ikusi, bere irribarrearekin jasan, berriro ere galdetu eta berriro ere berak ezetz esatea jasan. Nire osasunagatik joan nintzela esan daiteke.

Hausnarketa hauek marrazo eta dotokekin konpartitu ostean, kabina bat bilatu nuen eta oraindik Juliaren etxeko telefonoa gogoratzen nuen, hots egitea erabaki nuen. Tamalez, ez zegoen etxean. Horregatik, ondoko mezua utzi nion erantzungailuan:

–Ez dakit nitaz oroitzen zaren ala ez, ziurrenik ez. Marc naiz, nerabeak ginenean elkar ezagutzen genuen, lagunak ginen ia. Egia esan, nik lagunak izatea baino zerbait gehiago nahi nuen, eta hori izan zen gure adiskidetasunaren akabu. Zure ezetzarekin bizi naiz kanpoan egon naizen hamar urteetan, eta gaur, berriro ere gure hirian, inoiz baino gehiago botatzen zaitut faltan. Zure begiak ikusi behar ditut, zure ezpainenatik irteten diren hitzak aditu, nire barneko tristura hau iragan bihurtuko duen zure irribarrearekin ikusi. Zure masailetakotako pekatxoak izan dira nire gauetako izarrak, zure begien oroitzapena hamar urte hauetako argi bakarra. Hamar urte ilun pasa ditut, beltzak, oso beltzak, zure ilea adinakoa, baina ez horren maitagarriak. Esan bezala, gaur hirian naiz, Maciá Plazatik hurbilen dagoen bost izarreko hotelean. Baina lasai, bihar joango naiz eta. Ez izan kaletik ni ikusteko beldur, beraz; konturatu orduko, hemendik urrun izango naiz berriz ere. Ondo izan; gogoratzen zaitut.

Ez nekien nola amaitu nahi baino korapilatsuago bihurtzen ari zitzaidan aitormen hura, eta “gogoratzen zaitut” hura esan ostean telefonoa eseki nuen, urrunegi iristen ari nintzen beldurrez. Ziurrenik zoro bat nintzela pentsatuko zuen. Ez zitzaidan axola. Egia esan, gainetik zama bat kendu izan banu bezala sentitzen nintzen; barruan zerbait

gordeta izan ostean behingoz askatu ahal izan duenaren lasaitasuna senti nezakeen. Inoiz baino hobeto nengoen.

Bista altxatu eta zentro komertziala betetzen hasia zela ikusi nuen. Beste nonbaitera joateko ordua jada. Solairu pare bat igo eta beste bi jaitsi nituen, toki hartan egin-dako nire pausu kopurua nolabait handitu nahian edo. Baina, azkenean, kanpora irtekeko ate bat aurkitu nuen nire aurre-aurrean, magiaz edo agerrarazia, eta handik at joatea beste aukerarik ez zitzaidan gelditu.

Intendakoan, nire ezker eskuan auto-aldizkari bat aurkitu nuen, konturatu gabe promozio mahairen baten hartua. Ireki eta nire hankei nora joan erabakitzeke aukera eman nien, ni aldizkariaren irudi eta datuetan galtzen nintzen artean. Nora joan? Erabaki hura gehiegi zen niretzat une hartan. Horrela bada, bertan ageri ziren automobilerik begira nengibilen, noraezean, aurrera begiratu gabe. Bartzelona bezalakori hiritan, inor ez da harritzen horrelako norbait aurkitzean, eta beraz anonimatua osoz ibil nintekeen. Primeran.

Konturatu gabe, zubia berriz pasatua nuen, eta besoa altxatu bezain pronto taxi hori-beltz bat aurkeztu zen nire aldamenean. Bertan sartu baino lehen begirada bat bota nion taxi gidariari. Etxeko gizon jatorra zirudien, bibote eta guzti, gauetan familiak noiz etorriko itxaroten dieten horietakoa, eta berak ere familia faltan bota eta autoan beraien argazkia duen horietakoa. Barrura sartu eta zuzen nintzela deskubritu nuen: bolante ondoan neska-mutiko bi eta beraien ama ikus zitezkeen, gidariari irribarre eginez. Katalan jatorrez mintzatzen zen, eta nik gogoratzen nuen apurrarekin “arratsalde on” bezalakori zerbaite esan nion. Jarraian nora joan nahi nuen galdetu zidan, eta galderak sorpresa bezala harrapatu ninduen.

Egia esan... zertarako hartu nuen taxia? Ez nuen gogoratzen. Berak antzeman egin zuen, eta barre apur bat ere bai. Nik ere barre egin nuen, nola ez. Bide batez, pentsatzeko aprobetxatu nuen eta Park Güellera eramateko eskatu nion. Bidai luze antzekoa izan zen. Irratia jarria zuen, eta albisteak aditzen nituen bitartean, leihatiletatik ikus zitezkeen guztia nire memorian gordetzen saiatu nintzen. Burtsaren egoera kaskarra zen ostegun hartan, kritikoa ere, analistaren hitzetan, eta beldurtzen hasiak ziren hainbat enpresaburu krisi potentzial baten aurrean. Barre ironiko bat egin nuen, hurrengo eguneko afarian enpresaburu frantsesek izango zituzten aurpegiak imajinatzean.

–Burtsa interesatzen al zaizu, bada? –galdetu zidan, harrituta. Interesatu, zioen. Bertako maisu handienetakoa izanda, interesatu. Baina normala zen galdera hura egitea, nituen arropa informalekin eta distraitu aurpegi harekin sinesgaitza izango baitzitzaion nor nintzen esango banio.

–Ez askorik. Baina adi egon behar zaio burtsari ere, futbol taldeak beste poz eta zoritxar ekar baititzaie, eta lanak baino diru-sarrerak handiagoak inprobisatu nuen. Ez nuen nor nintzen azaltzeko gogorik, eta burura etorritako lehenengoa bota nuen. Azken finean, nahiko natural irten zitzaidan, eta txoferrak baietz egin zuen buruaz, adostasuna erakutsiz bezala.

–Ez nuen inoiz horrela planteatu. Argi dago gazteek beste zerbaite duzuela gauza hauetarako.

Hausnarketa honekin amaitu zen elkarrizketa, parke atera helduak baikin. Bidaia ordaindu eta etorkizunerako zortea elkar opatu eta gero, autotik irten nintzen, eguzki-izpiak lehen harrera egiteaz arduratu zirelarik. Parkera sartzeko bidearen bi aldeetan dauden fantasiazko etxeak begiratu nituen une batez, beraien teilatuen forman galduta. Hala ere, gorputzaren patxadari gailendu nintzaion eta aurrera jarraitu. Hantxe zeuden, nik utzi bezala, parkera igotzeko bi eskailerak, eta bien artean, saurio magikoa. Bera da benetan parkeko zaindaria. Gehiago luzatu gabe, eskailerak igo eta goiko plazara igo nintzen. Bertatik, hiri guztia ikusten da. Banku ondulatura hurbildu eta bertan eseri nintzen, ingurukoek ez bezala irakurtzeko libururen bat izan ez arren. Gehienak literaturan murgilduta zeuden, eroso jesarrita, literaturaren plazerra begietan nabari zitzaie. Beste batzuk, liburua irakurtzeaz arduratu beharrean, ondokoaz arduratzen ziren. Besteak zein liburu ekarri zuen galdetzearekin hasten zuten elkarrizketa, jarraian galderak pertsonalizatzeko eta azkenean, kafetegiren batera gonbidatzeko, zerbaite hartu eta ahal izanez gero, patrikako telefonoaren zenbakia eskuratzera. Baina ez ziren denak liburudunak, ez horixe. Bazeuden baita jada neskalagun edo mutil-laguna zutenak ere, eta egunean zehar izandako arazo eta pozak bikotearekin konpartitzeko banku ondulatu eder hura aukeratzeko zutenak. Bikotea bertara eramanez gero, altxatu baino lehen laztan edo muxu goxo eta benetakoa bat eskuratzeko ziurtatua duzu kasuen % 99,9an.

Nik neuk, ez nuen liburu interesgarririk patrikeran, ezta neskalagun irribarretsurihurtu. Hortaz, bertatik zegoen hiriaren ikuspegi orokorrarekin gozatzea mugatu nintzen. Sekulakoa zen. Hogeita zazpi urte badituzu eta Gupidok oraindik hainbeste desio duzun gezia oraindik jaurtiki ez badizu, agian amore emateko denbora da. Ez diot benetakoa gezia, bizi guztirakoa. Baina gutxienez bat, hala nolakoa, apur bat maitatua izan zarela sentitzeakoa gutxienez. Bizitzaren herenik onena pasatu bazaizu sentimendu garaia bizi gabe, ez dago hurrengo bi herenetan egoera aldatuko denaren esperantza izaterik. Fisikoki erakargarrien (edo gutxienez ez hain itsusi) zauden garaian, eromen gehiago egiteko prest zauden garaian, maitasuna zuk beste batengana sentitu duzun zerbaite baka-rrik da, pertsona horretatik baiezko erantzun bat jaso gabe inoiz, iragana ahaztu eta etorkizun beltz bat pasatzeko mentalizatzea komeni da. Hura zen ni hirira bueltatzearren arrazoi.

Nire gaztaroa nerabegaroko porrot batetik ihesi emana nuen, mundutik bidaiatuz, ikasten, lan on bat eskuratu eta bertan mailarik altuena lortu. Nire porroten bizileku izandako hiritik urrun, ihesi. Ezagutzen nituen neska guztiek Julia gogorazten zidaten, eta honek sortarazten zidan ezinegon, tristura eta porrot sentimenduak beraietako edozeinekin adiskidetasun on bat gaindi zezakeen erlazio bat izatea ekiditen zidan. Horregatik nintzen han berriz ere. Iraganarekin nituen atzeratutako kontuak gaurkotzeko. Eta, banku ondulatu hartan eserita, erabakiren bat hartzeko une aproposa zen jada.

Pare bat ordu eman nituen pentsatzen, hausnartzen. Bihotzak inoiz baino azkarra-go funtzionatzen zuen, eta ia-ia alkandora mugiarazten zuen. Erlojuan zazpiak zirela

ikusitakoan, bankutik altxatu nintzen. Bi ordu haietan, nire bizitzaren planteamendua aldatu nuen. Iragana ahaztea erabaki nuen, oroitzapen txar guztiak nire oroimenetik kanporatzea. Ez nion maitasunari ihes egingo, ez nintzen txikitari izandako porrot hartan errefuxiatuko neskalaguna aurkitzeko ezintasuna azaltzeko. Ausarta izan behar nuen, urduritasuna saihestu, burua kontrolatu eta neska bakoitza bakar eta berezi bezala kontsideratu, ez nire iraganeko neska batekin antzekotasun txikiren bat zuen emakume bezala. Hura zen, handik aurrera, nire bizitzaren erronka. Pentsamendu honekin altxatu nintzen bankutik.

Hiriari azken begirada bat bota nion. Argiak pizten hasiak ziren jada, zerua hartzen ari zen iluntasunarekin kontrastea. Parketik irten eta ate aurrean zegoen taxieta bat hartu nuen, Auzo Gotiko ondoan utzi ninduen. Bertako kale estuetatik presaka pasa nintzen, auzoa gaueko iluntasunak tokiari itxura espektral bat eman baino lehen ikusi nahi bainuen bere osotasunean. Katedraleko eskaileren aurrean agertu nintzen bat-batean, lehen euri tantekin batera. Korrika eskailera igo eta bertan sartu nintzen, ez interesa nuelako, baizik eta zetorren zaparradak kalean ez harrapatzeko. Zaparrada amaitzean handik irten eta Ramblara joan nintzen. Harrigarria zen ziurrenik minutu batzuk lehen euriagatik hutsik egongo zen kale erraldoi hura nola betea zen ikustea ni heldu nintzenerako. Titiritero eta malabaristen artetik pasatu nintzen, baita turista, hiritar arrunt, famili eta lapur-tranpari artetik ere. *Fast-food* kate ezagun batean sartu eta zabor zikinen bat jan ostean (afari deitza larregi iruditzen zait) kalera bueltatu eta Catalunya Plazara heldu nintzen. Kaleko ikuskizunak ikusteak eta zerrikeria hura jateko gainera itxaron behar izanak nire planak ezerezean gelditzea ekarri zuen, jada bederatziak baitziren; beranduegi pare bat leku bisitatzeko. Hala ere, desanimua ekidin eta Plaza erdira joan nintzen, erdigune hura inguratzen zuten autoetatik zuhaitz eta iturri polit batzuek babesten gintuztelarik han ginen bihotz bakartiok.

–Aizu, Marc al zara?

Norbaitek deitu zidan. Buelta eman eta neska bat ikusi nuen, harritu aurpegiarekin, eresketa poltsek eskuak hartzen zizkiotelarik. Bera baino harrituago nengoen ni.

–Ba... bai... ni naiz... ezagutzen al zaitut? Ba al dut ohore hori? –izan zen bururatu zitzaidan onena, ordu pare bat lehenago nire buruari urduri egotea debekatu niola ahaztuz une batez.

–Nola ez!! –pozik zegoen, zalantzarik gabe–. Marc, ez al zara nitaz oroitzen? Zerbait esaten al dizu eskola garaiak, institutura joan aurretikoak?

Ez nuen ezer ulertzen. Hala ere, esandakoari jarraituz eskola garaia oroitu nuen, mutil koskor bat nintzen hura. Hogei bat pertsona ginen klasean, hamaika mutil eta bederatzi neska. Orduan, banan-banan hasi nintzen bakoitzaren aurpegia gogoratzen... neska batenera iritsi arte. Ezin nuen sinetsi.

–Aizu... ez zara, ba, Paula izango, ezta?

–Ba noski baietz!!

Eta hau esanez, arropa garestiak ezkutatzen zituzten erosketa poltsak lurrean utzi eta elkar besarkatu genuen, txikitako garaiak oroitzen bezala. Ezin nintzen zorionekoago sentitu. Paula eta ni txikitan lagun handiak izandakoak ginen, klasean zein kalean ordu asko ematen genituen batera, bion gurasoak lagunak zirelako. Gu ere lagun on egin ginen, eta urte askotan zehar, hamar inguru izan arte, banaezinak izan ginen. Baina hamar urterekin, bere gurasoek, lan arrazoiak medio, beste hiri batera joatea erabaki zuten (inork ez zekien nora, ezta Paulak ere elkar ikusi genuen azken goizean). Niretzat, beraz, haurtzaroa hamar urterekin amaitu zen, lagun berriak egin behar izan nituelako. Denbora asko iragana zen ordutik hona.

Pentsamendu hauek guztiak burura etorri zitzaizkidan besarkada sentitu hark iraun zuen hamar segundoetan. Ostean, zeramatzan poltsak eramaten lagunduko niola esan nion, eta inguruko kafetegi lasai batean sartu ginen, egurrezko mahaiak dituzten horietako batera, txaleko beltz eta iduneko txoria darabilten zerbitzariak dituenetako batera. Mahai gehienak okupatuta zeuden, baina txoko batean libre zegoen bat aurkitu nuen, eta bertan egokitu ginen. Eseri berriak ginen zerbitzari bat etorri zitzaigunean, berrogeita hamar urteko emakumezkoa bera. Paulak kafeinagabe bat eskatu zuen, berandu zela eta. Ni kafe bat eskatzear nengoen, hutsa eta doblea, baina atzera egin eta alkoholduen edari gogor bat eskatzea hobe izango ez bazen galdetu nion nire buruari. Urduritasuna gailentzeko, batez ere. Azkenean, nire zati arrazionalenak ahotsa hartu eta freskagarri bat eskatu zuen niretzat.

Zerbitzaria joandakoan, aurrez aurre geundenez, bata besteari begira gelditu ginen, bestearen aurpegia arakatuz, eta batez ere, aurpegiaren markek hainbeste urte ostean ezkutatzen zituzten sekretu, kontu eta penak deskubritzeko amorratzen. Hamazazpi urte ziren elkar ikusi gabe, asko, gehiegi kasu honetan. Elkar ikusi genuenetik eta une hartara arte iragandako bost minutuek denboran hamazazpi urte atzera egitea adinakoak izan ziren. Bat-batean, berriro ere orduko lagun minak ginen, denbora igaro izan ez balitz bezala.

Bion arteko sinkronizazioa hain zen handia (bai txikitan, bai une hartan), biok batera barreka hasi ginela, aurpegi atzean ezkutatzen ziren sekretuak deskubritzeko bista baino hitzak egokiagoak zirela ohartu baikin, aldi berean baina. Jarraian, segundo berean, biok apurtu genuen ordura arteko isiltasuna, eta horrek bion algarak piztu zituen berriz ere. Azkenean, elkarrizketa hastea lortu genuen, baina ordurako adiskidetasuna berreskuratua genuen erabat. Gauza txikietatik hasi ginen, non bizi ginen eta horrelako gauzetatik. Paradoxikoa izan arren, ez bata ez bestea ez ginen hirian bizi. Urte haietan guztietan bakoitzari pasatakoak kontatu genizkion, biok baikenuen beharrezko barrukoa askatzeko. Norberari kontatu arren, eta norberak bere bizitzaren oreka mantentzeko indarra izan arren, komeni da zenbaitetan beste norbaitekin konpartitzea ere. Ez nuen uste, baina gau hark erakutsitako irakasgairik inportanteena izan zen, zalantza barik.

Tarteka-marteka, txikitan batera jasotako pasadizoren bat edo beste gogoratu genuen, tentsioa kendu eta erlaxatzeko. Paulak txikitan bezain alai zirauen, baina orain bere begi urdinak kolore bereko betaurreko batzuen atzean babesten ziren. Loditxoago zegoen, baina ez dut uste ondo ezagutzen zuen mutil bakar batek berarekin irteteko

eskatuz gero ezetz esango zionik, hain zen handia bere jatortasuna eta begien bizkortasuna.

Denbora neraman orduan beste barre egin gabe. Negozio-afarietan barre egiten duzu, bai, baina ez benetan barre egin nahi duzulako, baizik eta negozioa aurrera eramateko besteak kontatzen dituen txiste eta pasadizo eskasei barre egin behar diezulako, maisulanak balira bezala. Bezeroak pozik eduki behar dira. Baina, esan bezala, une hartan gogoz ari nintzen barreka, aspaldian ez bezala. Berak ere pozik zirudien, aspaldian ikusi ez den lagun mina ikustean. Bakoitzak eskatutakoaren beste unitate bat eskatu genion zerbitzariari. Guztiz normaltzat jo zuen; horrelako toki lasaietan arrunta dela suposatzen dut.

Handik gutxira, inoiz ahaztuko ez ditudan hitz batzuk aditu nituen. Bizi osorako gordeta izango dut une hura. Bere bigarren kafeinagabeari begira nengoen, ezker eskua mahai ertzean jarria. Orduan, nire ezker esku hori (bai, badakit ezker esku bakarra dugula, baina zertxobait espezifikatzeak ez dut uste inori kalterik eragingo dionik) beste esku batek hartzen zuela sentitu nuen. Harrituta, begiratu eta Paularenek inguratuta zutela ikusi nuen. Bere aurpegia serioa zen, iluna, ordura arte ez bezala. Zalantzarik gabe, zerbait garrantzitsua esatera zihoan, mikatza ziurrenik, baina esan beharrekoa hori ere.

Urte asko eman nituen jendeagandik ihesi, Marc, lanetik etxera eta etxetik lanera, erosketak bakarrik egiten, afariak telebistarekin konpartitzen, zapatu gauak bakardadearen oihalean ezkutatzen, mukizapia bustitzen. Triste, oso triste. Ez nuen bizipozik. Ez nuen bizipozik jasotzen, alegia. Etxeko atetik irten eta beldurrak hartzen ninduen, inoiz baino biztanle gehiago dituen mundu honetan inor baino bakartiago, konprenitu gabe. Mutilen bat bilatu nuen, bakardadea uxatzeko, bizirik sentiaraz nezan, barruan nuen maitatzeko ahalmen guztia norbaiti emateko beharrianarekin. Hobe inoiz ahalegindu ez banintz.

Nire lagun (horrela deitu ahal badira, behintzat) diren neska batzuekin irteten hasi nintzen zapatu gauetan. Badakizu ni ez naizela fisikoki oso erakargarria; betaurrekoak ditut, ez naiz ilehori edo ilbeltz bonboi puska bat eta bai, ametitzen dut, lodi antzean nago. Ezin dut bikinirik duintasunez jarri, egia da. Aurrealde eta atzealde ere ez ditut Barçak adinakoak, horretara bagoaz. Beraz, ulertzekoa da mutil bat bera ere nigana hurreratu ez izana, gaixotasun kutsakor bat banu bezala. Hori bai, nire ondoan zegoena aurkez niezaiei ez zuten nigana jotzeko problemarik. Behin lortuta, biak zihoazen, mutila eta nire laguna, batek daki nora (egia esan, denok dakigu), ni bertan utzita. Orduan, deprimituta etxera joateko une berean, mutilen bat agertzen zen, ez nire ondoko neskaren inguruan galdezka, ezta autobusen ordutegia galdetzeko ere. Ea berarekin jaia botako nuen galdetzeko, alegia.

Une horretan, inor baino garrantzitsuago sentitzen zara. Une batez, zure bizitzan bakarra den momentu horretan, maitatua sentitzen zara, desiratua, norbait sentitzen zara gutxienez zure bizitzan behin. Baina elkarriketa on bat eta gauza ondo joanez gero, muxu konprometituren bat tartekatzeke zure esperantzak handik gutxira joango dira, nire kasuan, bai, behintzat. Izan ere, lehenago tabernako beste neska guztiekin saiatu

ostean jotzen zuten nigana, azken errekurtsio bezala, hurrengo egunean lagunuen aurrean ehiza hasi zuten bezala amaitu dutela ez ametitzeko. Horretarako, behar-beharrezko zitzaien muxu-torloju bat ematea denen aurrean, aisialdian zer egitea gustatzen zitzaidan edota sinpleki nola sentitzen nintzen galdetzeaz arduratu gabe sikiera. Pare bat asteburuz gertatu zitzaidan, eta orduan erabaki nuen ez zela ni bilatzen nenbilena. Horregatik, ez nintzen gehiago irten plan horretan, eta etxean gelditzen hasi nintzen. Asko pentsatu nuen lagunez, maitasunaz, bizitza beraz. Depresioak jota nengoen.

Hala ere, ez nuen amore eman, eta bizitzen jarraitu nuen, bizitzera bultzatuko ninduen zerbait aurkitzeko itxaropenaz. Eta, hara non, nire bizitza aldatuko zuen gogoeta hau irakurri nuen nonbaiten:

“Bizipoza, pertsona batek bizitzeko behar duen poztasun hori, ez da besteetatik jasotzea itxaron behar. Hori eginez gero, galduta zaude, beti egongo zarelako zure bizitza aurrera eramateko poztasun hori beste norbaitek emateko zain. Norberak ekoiztu behar dio bere buruari bizipoza, emozionalki buruonesleak izan behar dugu. Besteetatik jaso dezakegunari uko egin gabe, noski, hau ere garrantzitsua delako. Baina minimoa norberak egin behar du, norberak eman behar dio norberari bizipoza. Bizitza bakoitzari eman zaion bide malkartsua da; eta zuk aurrera egiten ez baduzu, inork ez du zugatik egingo.”

Paularen azalpenak jarraitzen nituen heinean, gero eta identifikatuago sentitzen nintzen berak esandakoarekin. Azken finean, ni ere iragan trakets baten jabe nintzen, bakardadeak jandakoa; baina hala ere, ni ere aurrera egindakoa, bizitzak eman ez zidana nik atereaz, nire pertsonalitatean oinarrituz nire bizi-indarra. Bizitzaren naufragoak, eta era berean, superbizituak. “Badugu meritua”, pentsatu nuen. Eta egia da.

Orain pozik nago, ondo sentitzen naiz. Berriro ere bizitza alai bat dut, mundu guztiak bezala. Azkenean, deskubritu dut bilatzen ari nintzen altxorra nire kasuan ez dagoela beste batengan, nigan baizik- bukatu zuen Paulak.

Espero dut gaur izaten ari garen elkarrizketa honek ere zerbait suposatzea, besteen ekarpen gisa bezala bada ere!!- bota nuen, eta biok barreka hasi ginen, ordura arteko tonu serioa baztertuz.- Urte askotan izan dudana elkarrizketarik serioena izan da.- Egia izan arren, berriro ere barre egin genuen, azken hamazazpi urtetan bizi ez genituen une alaiak kafetegi lasai hartan berreskuratu nahiko bagenituzke bezala.

Kafetegia ixtear zeuden, din-dinak zioenez. Hortaz ohartuta, ondoko aulkian zegoen Paularen jaka hartu eta jartzen lagundu nion. Kafetegi osoa zutik zegoen, aulkietako erosketa poltsak hartzen, hirietan erabiltzen diren kapela pintoreskoak kokotean egokitzen baten batzuk. Xelebrea zen zurrumurru hura, beste dimentsio batean bezala; kanpoan gelditzen denetik kanpo bezala zegoen barneko giro hura. Musika lasai bat jarri zuten atera gindoazela, eta jendea abesten hasi zen, suabe baina argi. Gauero lokala ixtean egiten ez ote zuten galdetu nion buruari. Hala ere, atea zeharkatzean burutik joan zitzaidan pentsamendu hura, hain zen handia barru eta kanpoko tenperaturaren aldaketa.

Ate aurrean dozena erdi taxi zeuden, kafetegiak noiz itxiko, beraien presa itxaroten ari diren ehiztariak bezala. Taxi batera hurreratu eta atea ireki nuen, bertan Paularen erosketa poltsak sartu eta atea eutsi nuen, zutik, aspaldian ikusi gabeko lagun kuttunarekin une gogoangarri bat bizi izan duenaren aurpegi alaiarekin. Orduan, berak ere eusten zituen poltsak taxian sartu eta eskuekin bi masailak hartu zizkidan, bere aurpegira hurreraraziz, bere eta nire ezpainak zentimetro batez bakarrik bereiziak egon arte. Jarraian, ziztada bat jaso izan balu bezala, zentimetro hura ezereztu eta maitekiro muxu sentitu bat eman zidan, besoekin inguratzen ninduen artean. Bost segundoz horrela egon ostean, “ez dakizu zenbat bota zaitudan faltan, eta botako” esan zidan, eta negar malko bi atera zitzaizkion, bata ikusi izanaren poztasunaren erakusle eta bestea berriro ere bakoitzaren bizitzaren bideak bereiztearen tristurak sortua. “Nik ere bai” esan nuen, eta oraingo honetan nik musukatu nuen. Taxiaren bozinak eten zuen unea. Besarkada bukatu baino lehen, “zin egidazu ez nauzula ahaztuko, eta hurrengo batean ikusten bagara zuk errekonozituko nauzula” esan zidan. Besarkada estutu eta nire begiak uholladun gune katastrofiko bihurtu baino lehen, taxira hurbildu eta atea itxi nuen, erdi irri eta erdi triste zegoen aurpegia izan zelarik bakoitzak besteagandik ikusi zuen azkena. Taxia martxan jartzean, ziztu batean joan zen. Bihotzak buelta eman zidan.

Jada taxi guztiak joanak zeuden. Ondoko kabina baten sartu eta dei egin nion bati, hotelera eraman nezan. Bost minutu egon nintzen itxaroten. Paula eraman zuen taxiaren irudia etorri zitzaidan burura, baita segundo batzuk lehenagoko une berezi hura. Agian egunen baten era horretako une hunkigarri eta sentitu bat, erromantikotasunez jositakoa, neskalgunarekin konpartituko nuen galdetu nion nire buruari. Baiezko erantzun bat jaso ez nuenez, pentsatzeari utzi nion, ezezkoa jasotzea ekiditeko. Dena dela, ez nuen esperantza galdua. Ez galdu inoiz esperantza. Gutxien espero duzun momentuan heldu daiteke; edo baliteke inoiz ez heltzea. Baina ez galdu esperantza.

Taxira sartu eta hotela esanda, goizaldeko ordu-batetako albisteei aditasunez jarraitu genien gidariak eta biok. Arratsaldean aipatutako burtsaren “krisia” guztiz okertua zen jada, eta analistak hondamendiaz mintzo ziren. Barregarria benetan. Argi zegoen inork ez zuela munduko enpresa garrantzitsuenetako delegatu gorenek goiz hartan Valentzian hartutako erabakiaren berri. Hurrengo goizean salerosketa akordio hura argitara ateratzen zenean, pozak burtsak hartu eta arinagoko egunetan galdutakoa soberan berreskuratu eta irabazi ikaragarriak lortuko zituzten, ni Bartzelonatik Parisera eramango ninduen autobidean zehar nindoan bitartean, beste autoetako bidaiariren batek errekonozitu gabe, anonimatuan. Niri gustatzen zaidan bezalaxe.

Hotelera hurbiltzen ginela, Batlló etxe aurretik pasatu ginen, gaueko argiek egunez baino oraindik misterioitsuago bihurtzen zutela ikusiz. Azkenean, hotel atera heldu eta bidaiaria ordaindu bezain laster birak ematen zituen atetik sartu eta nire logelara igo nintzen, beheko kafetegian pianoaren melodi malenkoniatsua entzunez emakume bakarti bat bazegoen ikusi gabe. Leher eginda nengoen, eta ez nuen ehizarako gogorik. Atea ireki eta argi pixka bat jarri nuen, apurtxo bat. Jarraian, REM jarri nuen musika aparailuan, eta hozkailutik cava botilarik garestiena hartu nuen. Ez nuen ezer ospatzeko. Bueno, egia esan bai, gauza asko, baina axola dutenetatik, hau da, lanez kanpokoetatik,

pertsonaletatik, ez nuen maitasunik ospatzeko. Hala ere, nik parkean pentsatutakoa eta Paularengandik kafetegian entzundakoa etorri zitzaizkidan burura, eta egun bakar batean nire bizitzari egitea erabaki nuen aldaketa sakona ospatzekoa zela iruditu zitzaizdan.

Edozein aitzakia da ona edari goxoa ahoratzeko. Lehenengo tragoa nigatik hartu nuen. Bigarrena, ikusitako eta ikusi gabeko lagunen omenez. Animatzen hasia nintzen, eta hirugarrena Juliagatik hartu nuen, hain ederra izateagatik, hain nire konkista auke-retatik kanpo. Ederra benetan, bai kanpotik bai barrutik. Esan bezala, gehiegi niretzat. Egindako dei tristea oroitu nuen. Ordu batzuk izan arren hura egin nuenetik, urteak pasatu zirela ematen zuen. Parkean pentsatutakoa pentsatu arren, oraindik ere maite-minduta nengoen. Baina ahazten hasia nintzen jada, nire burutik kentzeko prozesuan nintzen; nire bizipoza berreskuratzen.

Botila erdi hutsik utzi nuen (edo erdi beteta, ez dut gogoratzen). Orduan, abesti erromantiko bat hasi zen, “Nightswimming”. Kopa mahaian utzi eta aireari besarkatuz, dantzatzen hasi nintzen, musikaren erritmoan, sinkronizatuta. Nire bikoteak ez zuen hutsik egiten, noski. Abestia amaitzearekin bat, gorputzari men egin eta atzerantz erortzen utzi nintzen, ohean buruz gora lehorreratu nintzelarik. Begiak itxi zitzaizkidan eta gehiagorako denborarik gabe loak hartu ninduen.

Hurrengo goizeko bederatziak bueltan tok-tok suabe batek esnatu ninduen. Emakumezko bat sartu zen logelan; berrogei bat urte izango zituen, baina oraindik ere liraina zen, krema bezain goxoa; bere aingeru formak mantentzen zituen, zalantzarik gabe. Ni ohean eseri nintzen, almodak bertikalean jarritz lepoa eusteko, eta berak gosariaren bandeja besaulkian utzi zuen, irri goxo eta guzti. Joan zenean, garai bateko erregeek hartzen zuten gosariaz gozatu nuen; konpainia baino ez zitzaidan falta, baina Julia oroitzearen beldurra jatekoaz bakarrik pentsatzera bultzatu ninduen. Jarraian, dutxa fresko bat hartu nuen, are gehiago deskonektatzeko, eta maleta atondu ostean harrerara jaitsi nintzen. Kontuak egin eta handik irten nintzen. Ate parean bospasei auto zeuden, urdin eta beltzak, gidaria barruan, denak beraien nagusia noiz aterako. Ni bilatzen ari nintzenak argiaz seinalea egin eta barrura sartu nintzen, atzeko eskuin atetik. Egun on esan eta elkarriketa txiki bat izan genuen, Robertek pasa izandako martxa gauaz (pozik eta eskertuta zegoen nik emandako gau libre hargatik) eta Parisera egin behar genuen bidaiaz. Ordu mordoska ziren, eta beraz bidean geldituko ginen zerbait bazkaltzera ziu-rrenik, ez genuelako presarik. Behin adostuta, nik bidaiari hasteko baimena noiz emango gelditu zen Robert, eskuak bolantean.

–Joan al gaitezke, bada? –itaundu zidan.

Nik atzera begiratu nuen, atzeko kristaletik, Julia agertzeko azken esperantzarekin. Ikusmenak errealitatera bueltatu ninduen, hots, hainbeste urtetan zehar nire bihotzaren taupaden abiadura igotzearen erantzule zen neska panpoxa hura ez zela ni agurtzera etorriko Bartzelonatik alde egiten nuen bigarren aldi honetan ere. Azken arnas triste bat hartu eta burua aurreranzko posizioa bueltatuz, “bai, orain bai” esan nuen, eta autoak arrankatu eta ziztu bizian atera ginen hiritik. Iraganetik ihesi, etorkizunerantz presaka.



Nerea Ozamiz Monasterio - Batxilergo 2. maila

“Bizitza bizi egin behar da”

SENTIPEN NAHASIAK

Nire biziko neska besoetan edukitze horrek zerua irekitzen dit. Bere laztanen beharrik ez dut, bere musuen beharrik ez dut. Bere pausoen soinuarekin gainontzekoa imajina dezaket, bere hanka epelak, gerri bizia eta bere ile erdi bustia, kristala lausotu osteko hezetasuna bezain garbia da. Guzti hau pasatzen zait burutik egunero-egunero. Ezin diot inori kontatu, inork ez nau entzun nahi, beraz argia itzali eta ohean sartuko naiz.

Ametsetan lehortzen da bere ezpainen bustidura, nola ondoan dudana, nola niretzako den. Beti biharko eguna itxaroten, gauero, hurrengo eguna itxaroten bera ikusteko irrikitan.

7:53 direnean Zugastietan tren hartzen du eta Gernikara 8:10 puntu puntuan iristen da. Segidan instituturantz abiatzen da azkar, bere zapata punta fina duten horiekin. Badirudi bere zapatak egurrezkoak direla eta boligrafoaren puntarekin sostengatzen direla. Bere “praka bakeroekin”; estilo eta kolore guztietakoak ditu. Hori bai, denak ere primeran gelditzen zaizkio. Beti dabil zilbor agerian duela, bere bularrak ondo markatuz. Beso ederrak, lepo xarmanta eta ile luze gorri haren parekorik ez da. Mutil guztiak

atzetik ditu beti, bateko telefono zenbakia eskatuz, besteko korredoretan ipurdia ukituz... Guzti horrek amorrarazi egiten nau. Neska alai hari isiltasuna, xarmangarritasuna eta edertasuna mutil zatar horiek kentzen diotelako.

Bere ondoan esertzen naiz gelan, goizeko 8:15 hasi eta eguerdiko 15:00-ak arte. Lagun handiak gara, nahiz eta ni lagunak baino zerbait gehiago izateko desiatzen egon. Beti gaude batera, bere amoreak kontatzen dizkit eta nik ahal dudan heinean gezurra esaten eta pixka bat engainatzen dut. Oso gogorra egiten zait nire gustuko neska beste batez horrelakoak esaten entzutea. Hain dira gauza politak!! Niri esango balizkit bertan urtuko nintzateke. Gaur galdetu dit ea berarekin erosketak egitera joan nahi ote dudan, eta nik baiezkoa eman diot, nola ez, nik ere erosketak egiteko izugarritzko gogoa nuela esanez. Beraz, arratsaldean autobusa hartu eta Bilborantz abiatu gara.

Bilbora heldu garenean denda handi bat ikusi dugu eta nolakoa izango den kuriositateak piztuta barrura sartu gara. Ni kamisetak begiratzen aritu naizen bitartean, Leire (bera da, orain arte bere izenik esan ez badut ere) praka dotore batzuk eskuetan hartuta etorri zait esanez: “hauek politak al dira?” Aho zabalik geratu naiz!! Pentsatu bakarrik horiek jantzi eta niregana etorriko dela... barrua ere dar-dar jarri zait.

Leire aldagelara sartu da eta bere arropak erantzi ditu. Aukeraturakoak janztean, deitu eta barrura sartzeko esan dit. Ea ondo geratzen bazaizkio galdetzean, hitzik gabe geratu naiz eta berak nahi duena egiteko esan diot, erosteko edo ez erosteko alegia. Segidan zigarro bat hartu eta kalerantz abiatu naiz. Urduri jarri naiz eta berak ere igarri duela esango nuke. Zigarroa ere ia-ia atzamarretatik erori zait dardararen poderioz. Egia esan, urte honen hasieran amari tabakoa utziko nuela agindu nion, baina oso zaila egiten zait. Eta gehiago honelako egoeretan. Leire ikustean barneko sua dantzan hasi eta egonezina sartu zait. Gero eta ziuurrago sentitzen naiz nire homosexualitateaz, baina hala ere, beldur pixka bat badiot oraindik. Ez dakit zergatik.

Leirek ez ditu prakak erosi, izan ere oso zaila da Leireri zerbait gustatzea. Arropa kontuutarako oso “kapritxosa” da eta zerbait perfektu geratzen ez bazaio, ez du erosten. Horretan bere ahizparen antz handia du, egia esan gauza askotan du bere ahizparen antza nortasuna ere ia antzekoa dute, desberdintasun bakarra jenioan dago. Leirek bere ahizpak baino askoz jenio biziago du, baina niri horrek ez dit axola, niretzako munduan ez dago Leire bezalako beste neskarik.

Beste denda baterantz abiatu gara gero. Bera nahiko haserre ez zaizkiolako prakak gustatu. “Mango” jartzen zuen denda batera sartu gara. Leire segidan joan da prakak esekita zeuden lekura, baina antza denez, ez zaio bat bera ere gustatu eta niki pare bat hartuz, berriz etorri zait aldagelara laguntzeko eskatuz. Baiezkoa esan diot neure burua kontrolatuko nuelakoan. Hasi da prakak erantzten. Ipurdia ematen zidan, ene bada!!! Praka estu horiek nigandik hain hurbil, gerritxo hori!! ez dut inoiz hain neska ederrik nigandik hain gertu ikusi. Bat batean, lotsa eta izua alde batera utziz, gerritik heldu eta musukatzeraz joan natzaio. Laztantz hasi naiz, ezin izan dut desio hori gehiago nire barnean preso eduki. “Miren zertan zabiltza!!!” oihukatu dit.

Lotsaren lotsaz, kanpora irten naiz korrika. Dendariak ere arraro begiratu nau, bera ere harrituta. Segidan kalera abiatu naiz, negarrez. Zer egin dudan neure buruari gal-

dezka. Homosexuala naizela pentsatzeak horrenbeste beldurtu nau... izan ere, nire barneko su hori momentu horretan kontrolaezina gertatu zait. Salto behar izan diot, suaren gainetik bezalaxe, barneko indar batek guztiz behartuta.

Gustiz nahasita nago, baina egia esan momentu hori, orain arte bizi izan dudana gozoena izan dela aitortu behar dut, baina era berean baita lotsagarriena ere.

Eguneko zortzigarren zigarroa piztu dut kalean. Jende asko ibili da nire ingurutik, Bilboko kale ezagunetako batean bainengoen. Denak niri begira zeuden baina nik inori begiratu gabe aurrera jarraitu dut. Negarraz blai eta lotsaren lotsaz ezinegonik, kale estu batean sartu naiz eta bertako eskailera zahar batzutan eseri naiz negar gustura egiteko. Sentimendu hura ez nuen inoiz sentitu, ez nuen uste hain gogorra izango zenik. Orain ere niri gertatu behar horrelakorik!!

Buruari jira eta buelta aritu naiz eta bat-batean Leire agertu da. Bera ere erdi negarez negatik. Heldu bezain laster barkamena eskatu dit oihu egitearren, ez zuela zertan oihurik egin behar, eta gutxiago horrelako egoera batean. Baina ni ez naiz Leirerekin haserre egon, nire buruarekin baizik. Nola galdu dut hain erraz burua? Nire aurrean nuen neska ederra ez zen bakarrik nire gustuko neska, nire lagun handia ere bazen eta hori kontutan hartu gabe egin dut dena.

Leire nire ondoan eseri da eta besarkada bat eman dit esanez: “Miren, zergatik ez didazu orain arte ezer esan?” Ez diot ezer erantzun, berari besarkatuta egon naizen denboran, sentitu dut nire besoetan nuena ez zela bakarrik nire gustuko neska, nire lagun handi bat zela eta arrazoi zuela egin didan galderan. Nahiz eta gogorra izan hasiera batean, gutxienez, lagun on bat izanez gero, nire lagunik onenari nire homosexualitatearen berri eman beharko nioke. Berriz ere galdera bera egin dit Leirek:

–Zergatik ez didazu orain arte ezer esan? Nik uste nuen konfidantza zegoela gure artean, bai horretarako, baita beste gauza askotarako ere.

–Barkatu Leire, ez nekien barnean sentitzen nuen zirrara edo sentipen arraro hura nola adierazi, eta gutxiago zuri. Nahiz eta nire lagunik onena izan, nire gustuko neska zara eta hori ezin dut ukatu.

–Nire iritziz, Miren, zuk sentitzen duzun hori ez da niganako maitasuna. Bi sentimendu oso desberdin nahastu dituzu. Laguntasuna eta maitasuna. Zu homosexuala zarela ziurtatzeko, neskengan arreata jartzen hasi zara eta ni izan naizenez zugandik hurbilen egon dena, nigan sakondu dituzu sentimendu horiek.

Berarekin denbora luzea hitz egiten egon ondoren, dena konpondu da. Egoera ez da batere erraza izan, ez Leirerentzat ezta niretzat ere, baina gaiari buruz hitz egin beharra genuen. Leirek ulertu nau, baita nire egoera ere, eta berarekin edozertarako konta dezakedala esan dit. Hau entzutean, asko poztu eta lasaitu naiz, banekielako nola jokatuko zuen egoera horretan.

Guzti honetatik, ateratako ondorioak garrantzitsuena zera da: nire gustuko neska galdu dut, baina lagun on bat izatearen altxor baliotsua mantentzen jarraitzen dut, eta azken finean, garrantzitsuena Leire bezalako lagun onak izatea da.



Mª Paz Ondarza Elorriaga - HHI-ko ikaslea

"Maite dut nire familia, eurekaz pozik sentitzen naiz"

EUSKADIKO FAMILIA BATEN OHITURAK



Ezagutu neban orain dela urte batzuk bikote bat, eta euki ebezan seme bi oso jatorrak. Txikitan danak izaten dira holakoak, gero hazterakoan aldatu edo gaiztotzen dira, baina gure istorioko mutilak ez ziren hain baldarrak; joaten ziren ikastolara eta etxera etortzean lanak egiten ebezen.

Urteak joan, urteak etorri, gure mutilak hazi egin ziren besteak bezala eta gurasoek nahi eben karreran bat egitea edo lantegi batera joatea, lanbide bat hartu behar ebela eta. Horrela, berba egin eutsen semeei. Honek ontzat hartu be

bai ideia hori eta hasi ziren, zaharrena estudiantzen eta bestea, berdinak ez izateagatik, hasi zen lanbide bat ikasten.

Gure aita eta ama pozik bai pozik zegozen hain seme esanekoak eta ikastorak zire-lako. Baina jendeak toki guztietan inoren ona ezin ikusi izaten dau ta txikienari burua

berotzen hasi jakozan, ba hau zen lantegirako izendatua. Lehengotan elkar oso maite ebelako ez eutson jaramonik egiten baina beti-beti gauza berdina entzuteaz aspertu zen eta enbidia sortu jakon barruan anaiaren aurka. Gurasoek, hau ikustean, samintasun handia hartu eben, hain pozik zegozen euren semeekaz, eta inguruan jende txarra egotea-gatik dena pikutara joan jakiela eta, oso triste egon ziren. Orduan erabaki bat hartu eben berriro. Deitu seme biei eta ea zer jazotzen jaken galdetzea erabaki eben. Eta halan egin be igande guztietan lez batu ziren laurak bazkaltzen. Semeek elkarri jaramon gitxi egitean, aitag itaundu eutsen ea katuak mihiña jan baeutsen. Momentu horretan agertu zen agertzekoa, ba nagusiak ezer ez zekiela eta gazteak kontatu eban zer jazo jakon. Orduan besarkada handi bana emon eta egin ebezen bakeak. Aurrerantzean ongi konpondu ziren.



Handik urte batzuetara, gurasoak zahartu eta atxakiak agertu jakezan, batez ere amari. Beti be oso makala egoten zen ama eta jagon ezinik ibiltzen ziren hirurek, gainera gaixo txarra baino ardura asko behar eban gaixotasuna zen. Beraz, seme zaharrenak ezkontzea proposatu eutson gurasoei, ze ezkongaiia zeukan. Eurek oso ongi hartu eben berri hau. Horrela ama zaintzeko eta etxeko lanak egiteko behar ebela emakume bat eta. Baina eurek horrela pentsa arren, emakumeak ikasketak eginda eta karrera eukan. Gainera lantegi baten lan egiten ebanez, ez eban nahi etxean geratu amaginarreba jagon eta lanak egiten. Horra hor iskanbilak sortu ziren ezkongaien artean.

Oso pentsakor zegozen gure aita eta ama, zelan izango ete ziren euren azken egunak, eta zerbitzari bat ekartzea gogoratu jaken. Neska jator eta behargiña, esku lanak eta erizain be bazekielez, horrela eurek be zaindu egingo ebezela, eta batez be ama. Sarritan euren artean esan be, bai ze ondo izango litzake geure mutil txikiena maitemindu eta ezkonduko balitz. Esan eta egin. Handik denbora gutxira, elkarrekin irteten hasi ziren eta ezkontzea erabaki eben. Baina zaharrena, bera luzaroagoan ebilela ta, batera jai bategaz ospatzekotan, horrela tiro bategaz txori bi harrapatzen zirela eta merkeago be irte-tekotan, egun berean ospatzea erabaki eben.

Baina behin eguna jarri ezker, igarri gabe pasatzen da denbora, eta gure neska mutilak hasi ziran preparatiboakaz. Gazteenak ez eukan etxebizitzaren ardurarik, ze gurasoari lagunduz, harekin bizitzekotan ziren. Besteak bere etxea erosita eukan baina apaintzeko gauza asko behar ziren, beraz oso urduri zebiltzan.

Denbora aurrera joian. Azkenean heldu zen egun zoragarri hori eta ezkondu ziren gure anaiak.



Festa izugarria ospatu eta gero, anai zaharrena, Iker izena eukana, eta bere emaztea, Nagore, Akapulhora joan ziren. Anai gaztea eta emaztea, Asier eta Edurne, etxean geratu ziren gurasoekin ba beldurra eukien hortik ziren bitartean zerbait pasatuko jakielata horrela pentsatu eben, besteak zetozenean eurek joango zirela.

Handik hilabetera edo agertu be gure Iker eta Nagore, ze pozik konpontzen eta lanak egiten saiatzen ziren. Bistan ikusten zen elkar oso maite ebela, Asier eta Edurne be joan ziren. Honeek Txinara joateko ametsa hartu eta handik haur bat ekartzeko ideia-gaz zoratuta zebiltzezan. Horregatik luzaroago egongo zirela esan eutsen ze joan etorri asko egin behar izaten dela eta. Gurasoei eta beste bikoteari aspergarri egiten hasi jaken baina zeozter lortu gura dabenak pazientzia euki behar.



Handik hila batzuetara agertu ziren txinatar bategaz. Ze pozik danak hartu eben! Izan be, oso polita zen neskatoa. Txora txora eginda, danak berari begira zegozela eta zelako barretsuak egiten eutsezan. Ba gure aitita eta emama gaztetu ziren umeagaz baita osatu ere, atxaki guztiek joan jakezan. Beste anai zaharren emaztea ere haurdun geratu zen da oso pozik danak bizi ziren. Handik denpora gutxira Nagorek euki eban mutil zoragarri bat. Neskatoa be bateatu gabe zegoelez, ba pentsatu eben biak egun berean bateatzea eta horretarako herriko abadeari esan eutsen. Honek oso pozik hartu eban eta laster igande baten ospatu eban bateoa izenak jarriarik Eneko mutikoari eta Maider neskatoari. Lehengusutxu biek elkar oso maite eben eta ikastolara batera joaten ziren.

Eta danak pozik izan ziren.



Aitor Gorriño Gandarias - HHI-ko ikaslea

“Hiru lagun jolasetatik heldutasunera bidean”

TXAPAPOTE IZENeko ITSASONTZIA

Euskal Herriko herri txikitxo bateko ume batzuk, Mikel, Iker eta Jon izenekoak, hondartzara joan ziren jolastera eta igeri egitera.

Mikelek gauza beltz bat ikusi zuen uretan eta Ikerri esan zion.

–Alde egin behar dugu beste hondartza batetara edo etxera –esan zion Ikerrek Mikeli.

–Bai zera! Hori ez da ezer –erantzun zuen Jonek.

–Tira ba, denbora apur bat gehiagotan geldituko gara –adierazi zuten Iker eta Mikelek.

Hauek etxera joan zirenean, Jon bertan gelditu zen eta mantxa hondartza ingurura heldu zenean usain gogorra ekarri zuen. Orduan Jon gaixotu egin zen.

Mikel eta Iker etxera heldu zirenean ikusitakoa eta beraien laguna, Jon, bertan gelditu zela kontatu zieten gurasoei. Mikel eta Ikerren gurasoak hondartzara abiatu ziren, Jonen bila eta zer gertatzen zen ikustera.

Jon ospitalera eraman behar zuten anbulantziaz, kiratsa zela eta oso txarto zegoela ematen zuen. Ospitalean astebete eman ondoren, osatu egin zen.

Umeen gurasoek aditu batzuegana jo zuten mantxa beltz hura zer zen galdetzera. Espezialistak hondartzara abiatu ziren zer zen ikustera. Aztertu ondoren petroleoa zela esan zieten eta hortik aurrera txapapotea deituko zutela.

Denbora pasatu ondoren haizearen norabidearekin txapapote izeneko orbana ia ia hondartza eta portu guztietara zabaldu zen. Herrietako jendea eta beste lurralde batzuetako jendea ere prestatu ziren bolondres txapapote hori kentzeko.

Petroleoa itsasontzi zahar batetik zetorrela esan zuten adituek. Itsasontzi hura oso zaharra zenez, silo asko zituen eta hortik txapapotea irteten zen. Herririk afektatueta-rikoena Jon, Mikel eta Ikerrena izan zen. Urteak eta urteak eman zituen txapapote horrek desagertzeko. Baina azkenean jendearen laguntzarekin desagertu egin zen. Orduan hondartzak eta portuak lehen bezala gelditu ziren, oso garbi, eta gure lagunok, Iker, Mikel eta Jon hondartzara joaten ziren.



Urteak igaro ahala, hiru gazte horiek herriko alkatearengana joan ziren, itsasontzi hura nondik etorri zen galdetzera, oindino herri hartako portu ondoan baitzegoen usteltzen. Alkateak ez zuen jakin ezer erantzuten, oso txotxoloa baitzen alkate hura.

Hurrengo egunean hiru gazteak oso goiz jaiki ziren ohetik eta portura abiatu ziren lasterka eta itsasontzi zahar hartara sartzea baino ez zitzaien burura etorri. Sartu egin ziren ba, eta itsasontzia oso zaharra zela ikusi zuten: ohol guztiak apurtzen zitzaizkion eta. Metalezko txapatxo bat ikusi zuten timoiaren ondoan jarrita. Bertan itsasontzia 1960koa zela jarrita zegoen eta Frantzian egindakoa ere bai.

Itsasontzi zahar honen barruan igaro ondoren bakoitza bere etxera abiatu zen, hurrengo egunean bertara bueltatzeko asmoekin.

Mikeli ohere joateko ordua heldu zitzaion eta lotara joan zen. Oso nekatuta zegoen pasatutako egun haren ondoren. Loak hartu zuen eta amets egiten hasi zen, itsasontzi

zahar horrekin. Lagunekin konpontzen zuela, egun asko igarota lanean, margoztu eta timoiaren ondoan zegoen txapatxoa berria jartzen xutela: Lekitxo, 2005ean, eta itsasontzi oso txukun uzten zutela...

Ametsa bukatu zen eta Mikel ohetik jaiki, gozaldtu eta ziztu bizian lagunengana abiatu zen itsasontzi zahar hartara bueltatzeko. Lagunak ikusi bezain laster, edukitako ametsa kontatu zien. Hara, ze sorpresa! Denek eduki izan zuten amets berbera.

Mikelek kitarra jotzen zuen, eta Ikerrek, berriz, bibolina. Etxera joan ziren instrumentuen bila eta kalean jotzen hasi ziren, itsasontzia konpontzeko dirua lortzeko, Jonek dirua batzen zuen bitartean. Diru mordoak lortu zuten eta itsasontzia konpontzeko materiala erostera abiatu ziren.



Behar zuten material guztia erosi eta gero, itsasontzia konpontzen hasi ziren jo ta ke. Egun guztiak igaro zituzten konpontzen eta konpontzen. Handik hila pare batetara, itsasontzia konponduta izan zuten. Eta lagunak oraindik gazteak zirenez, itsasontzia festak egiteko erabili zuten. Baina gaur etun gizon helduak eta arrantzaleak direnez, beraien eguneroko ogia lortzeko erabiltzen dute.



GERNIKA-LUMOKO UDALA
Hezkuntza Saila
Euskera Zerbitzua



**Bizkaiko Foru
Aldundia**
**Diputación
Foral de Bizkaia**